

# Oarso 2017

ERREENTERIA



# Bigarren Aroa

52. Alea

# Segunda Época

Número 52

# Errenteria

2017ko uztailak 22

22 de julio de 2017



ERRETERIAKO UDALA

 **KULTURA**  
kreaktiboa



**ERREDAKZIO BATZORDEA / COMITÉ DE REDACCIÓN:**

Txema Arenzana  
José Ramón Cruz Mundet  
Leonor García  
Iñigo Imaz  
Juan Carlos Jiménez de Aberasturi  
Juan Miguel Lacunza  
Koldo Ordozgoiti  
Elixabete Perez Gaztelu  
Josean Ruiz de Azúa  
Mikel Zabaleta

**AZALA / PORTADA:** Donato Castaño

Koldo Mitxelenaren omenezko eskultura, *Hitzen itzala*.  
Conjunto escultórico dedicado a Koldo Mitxelena denominado *Hitzen Itzala*.

**KONTRAZALA / CONTRAPORTADA:** Juan Miguel Lacunza

Alaberga auzoa eta Galtzaraborda, Alaberga, Versailles eta Sorgintxuloko goiko aldeak lotzen dituen igogailua.  
Ascensor que une el barrio de Alaberga con las zonas altas de Galtzaraborda, Alaberga, Versailles y Sorgintxulo.

**ESTABLEZIMENDU KOLABORATZAILEAK / ESTABLECIMIENTOS COLABORADORES:**

**Beraun:** Beraun Kioskoa "Paco"

**Erdigunea:** Bitxi kolore, Etxenike loteria, Hostoak, Maitexa estankoa, Mirentxu liburudenda, Morrongileta estankoa, Morrongileta kioskoa, Niessen kioskoa, Xenpelar kioskoa, Xenpelar kulturudenda, Zumardiko kioskoa

**Fanderia:** Marian liburudenda

**Iztietta:** Razquin estankoa, Urtzi Kioskoa

**Olibet:** Rojas liburudenda

Argitarapena / Edita:  
ERRENTERIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

Diseinua eta maketazioa / Diseño y Maquetación:  
ESATEN COMUNICACIÓN Y PUBLICIDAD, S.L.

Inpresioa / Impresión:  
GRÁFICAS LIZARRA

L.G. / D.L. SS 702-2017  
ISSN: 2386-9070





**Ezkerretik eskuinera / De izquierda a derecha:**

José Manuel Franco Insausti, Joseba Echarte Martín, Almudena de la Torre Fernández, Iñaki Ruiz Alonso, Isaac Palencia Caballero, Maite Azpilikueta Llorente, Montserrat Luis Cano, Eñaut Gracia Ibarra, José Ángel Rodríguez Medina, Julen Mendoza Pérez, Nagore Basurto Escamilla, Yon Collar Rioseco, Jaione Karrikiri Garaño, Jon Txasko Orgilles, Itziar Ostolaza Galdós, Garbiñe Oyarbide Iruretagoyena, Maite Peña López, José Cruz Legorburu Ayestarán, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi, Bernar Lemos Taberna, Mikel Rodríguez Barbero.



---

# Agurra *Saluda*

Julen Mendoza Perez  
Errenteriako alkatea

---

2017. urtearen erdia pasa den honetan,  
*Oarso* aldizkariaren ale berri bat dugu  
eskuartean.

Urtero bezala, joan den urtean gertatutakoen ikuspegi zabala erakusteaz gain, beste hainbat gai eta efeméride ere hizpide ditu. Guztiontzat interesgarriak izango dira artikulu guztiak, baina nik aipamen orokor batzuk besterik ez ditut egingo.

Batetik, azken urtean hil diren pertsonen eskainitako artikuluek leku garrantzitsu bat hartu dute aurtengo alean, eta leku berezia gazteegi joan zaizkigun horiei eskainitakoek. Balio bezate artikulu guzti hauek gure memorian eta gure hitzetan presente izan ditzagun guzti-guztiak.

Bestetik, Urdaburu, Andra Mari eta Lau Haizetaren 75., 50. eta 25. urteurrenak aipatzen dira. Beste hainbeste urtetan ere bide horretan jarraituko dutelakoan, zorion bero bat eskaini nahi nieke.

Atzera begira gure herriko historiari erreparatzen badiogu, gerra zibilak gure herriko seme eta alabengan izandako ondorioak hainbat artikulutan jasoak izan dira. Ezin dugu ahaztu aurten bete direla 80 urte Gernikako bonbardaketa gertatu zenetik eta segur aski badugula zor bat gertaera haiek bizi izan zituzteneekin. Hitzaurre hau baliatu nahi nuke Udalak lan hori egiteko duen konpromisoa azpimarratzeko.

Ezin aipatu gabe utzi amnistiaren aldeko astearen inguruko artikulua; kasu honetan 40 urte pasa dira gertaera haietatik eta ezin zuten gertaera horiek ale honetatik kanpo gelditu.



---


Estamos a mediados de año, y ya  
tenemos entre manos un nuevo número  
de la revista *Oarso*

Como todos los años, además de ofrecernos una amplia perspectiva de todo lo acontecido durante el pasado año, también trata otros temas y efemérides. Todos los artículos resultan interesantes, pero quería mencionar algunos en concreto.

Eta hori guztia gutxi ez eta, 1917ko prentsa laburpena, Emakumeen Etxeari buruzko prozesua, Mariasun Landa sarietako lan irabazleak, Ereintzak antolatzen duen ipuin lehiaketako lanak, Koldo Mitxelenari eskainitako eskultura, duela 780 urteko gure dokumentu idatzi zaharrena, etab.

Jaso agur bero bana, bihotz-bihotzez, eta goza ezazue ale honetako lan guztiak irakurriaz.

Gora gure Madalenak!!



# Gora gure Madalenak!!

Por un lado, los artículos dedicados a las personas fallecidas en el último año ocupan un espacio importante en el número de este año, y un lugar especial los dirigidos a las personas que nos han dejado demasiado pronto. Sirvan todos estos artículos para que tengamos presente a todas esas personas en nuestra memoria y en nuestras palabras.

Por otro lado, se mencionan los 75, 50 y 25 aniversarios de Urdaburu, Andra Mari y Lau Haizetara. Espero que continúen por el mismo camino durante otros tantos años, y les doy mi más sincera enhorabuena por el trabajo realizado.

También echamos la vista atrás para prestar atención a la historia de nuestro municipio, y las consecuencias que la guerra civil tuvo sobre la ciudadanía de nuestro pueblo se recogen en varios artículos. No podemos olvidar que este año se cumple el 80 aniversario del bombardeo de Gernika y probablemente tengamos una deuda con las personas que vivieron aquellos acontecimientos. Aprovecho este prólogo para subrayar el compromiso adoptado por el Ayuntamiento en relación a dicho asunto.

No podemos dejar de lado el artículo dedicado a la semana a favor de la amnistía; en este caso han transcurrido 40 años desde aquellos hechos y no los podíamos dejar fuera de este número.

Y por si todo esto fuera poco, un resumen de prensa de 1917, el proceso relativo a la casa de las mujeres, los trabajos galardonados con los premios Mariasun Landa, los trabajos del certamen de cuentos organizado por Ereintza, la escultura dedicada a Koldo Mitxelena, nuestro documento escrito más antiguo que data de hace 780 años, etc.

Os hago llegar mi mas sincero saludo, y espero que disfrutéis leyendo todos los trabajos de este número.

Gora gure Madalenak!!

---

# Bi urte eta erdi geratzen dira... *Faltan dos años y medio...*

---

Erredakzio batzordea / Comité de redacción



---

2020. urtea oso gertu dugu. Urte horretan, apirilaren 2an, gure hiribildua sortu zela 700 urte izango dira.


Asko geratzen dela irudi lezake, eta hala da, baina bi urte eta erdi ez da horren epe luzea eta gertakaria ez da horren txikia antolatzen hasi nahi badugu gertae-raren garrantziarekin bat datorren programa. 2020. urtea une hoberena izan daiteke: ospatzeko urtea, gure sustraiei buruz hausnartzeko urtea, gure iraganaz, oraingo garaiez, eta, baita gure herriaren etorkizunaz ere. Gure hiribildua itsas-joerarekin sortu zen eta, era berean, nekazaritzan eta olagintzan finkaturik; industrializazioaren hiribildu aitzindaria, baina aurreko garaietako erroetatik zetorrena. Hiribilduak ez ditu inoiz gauzak errazak izan, baina beharra gidaritzat harturik, jakin izan zuen iraganean kokaleku geografikoak ekarri zizkion zailtasun guztiei aurre egiten, zailtasunak aukera bihurtuta. Orain sarturik

---

El año 2020 está muy cerca. El 5 de abril de ese año se cumplen 700 años de la fundación de nuestra villa.

Puede parecer que falta mucho, y así es, pero dos años y medio no es un plazo tan grande y el acontecimiento no es tan pequeño si se quiere empezar a pensar en organizar un programa acorde con la magnitud del evento. 2020 puede ser el momento óptimo: un año para conmemorar, un año para reflexionar sobre nuestras raíces, sobre el pasado, el presente y, también, el futuro de nuestro pueblo. Sobre una villa que nació con vocación marinera y, a su vez, asentada en su parte rural y ferrona; una villa pionera de la industrialización pero con fuertes raíces anteriores a ésta. Una villa que nunca lo ha tenido fácil pero que, haciendo de la necesidad virtud, ha sabido hacer frente en el pasado a todas las dificultades que le supuso su situación geográfica,





Alfonso XI Gaztelako erregeak 1343ko irailaren 1ean Algecirasen gaineko Realean Villanueva de Oyarsoren fundazioa egiaztatzeko emandako pribilegioaren kopia. Aurretik 1320ko apirilaren 5ean Valladoliden emana zuen pribilegio hori. EUA B-1-1-3.

gauden industria-gizartearen osteko erronkak baliatu ahal ditugu era berean. Zergatik ez?

2020. urteak aukera sorta zabala eskaintzen digu beren ezagutzak gehitu nahi dituztenentzat gure herria hobeto ulertu ahal izateko. Halaber, aitzakia ederra da gure herriaren irudia kanpora begira indartzeko. Gure aurretik izan diren beste hiribildu askok hala ulertu dute eta kasu askotan lortu ere egin dute, orain esaten den bezala beren irudia "ikustarazi", alegia. Gogora ekarri nahi dugu hor izan garela, hor jarraitzen dugula eta hor jarraitu nahi dugula.

Espero dugu ohar honek balio izatea ikerketa bultzatzeko, hausnarketa, eztabaida eta gure herriak merezi dituen oroitzapenezko ekitaldiak antolatzeke.

convirtiéndolas en oportunidades. Los desafíos de la sociedad postindustrial en la que estamos inmersos pueden ser aprovechados de la misma forma. ¿Por qué no?

El año 2020 ofrece todo un abanico de posibilidades para quienes deseen aportar sus conocimientos en pro de una mejor comprensión de nuestro pueblo. También es una excelente excusa para potenciar la imagen de nuestro pueblo al exterior. Así lo han entendido otras muchas villas que nos han precedido y en muchos casos lo han conseguido, "visibilizándose" como se dice ahora. Recordando a todas las personas que ahí hemos estado, ahí seguimos y ahí queremos continuar.

Esperamos que esta nota sirva para impulsar la investigación, la reflexión, el debate y la organización de los eventos conmemorativos que nuestro pueblo merece.



---

# Iñaki Goñi, laurogei urte kantari

---

Jon Etxabe Goñi

Zazpi urterekin hasi zen Errenteriako parrokiaren abesten eta oraindik ere jarraitzen du. Abeslari bikaina, tenore paregabea, zuzendari prestua, berezkoa duen eta urteetan landu duen dotoreziaz, musika senaz, gustu apartaz jantzi ditu zortzi hamarkada luze hauetan bakarlarik bezala, abesbatzetako otxote, boskote, seikoteetako abeslari eta zuzendari bezala eskaini izan dituen interpretazioak. Elkarrizketa honetan bere ibilbide luzeaz mintzatu gara.

### **Galdera.** *Noiz hasi zinen kantatzen?*

**Erantzuna.** Elizan. Etxekoak, aita, ama, denak, bezperak, meza nagusiak eta denetara joaten ginen eta jendeak kantatzen zituen kantak tiple bezala kantatzen genituen eta horrela hasi nintzen sei-zazpi urterekin. Orain dela laurogei urte gutxi gorabehera. Don Bautista genuen zuzendari eta maisu. Gero Don Bautista gerra denboran joan zenean, D. Jose Maria Olaizola organista eta apaiz zumaiarra etorri zen. Ondoren Iraolak hartu zuen zeregin hori, Olaizola Bilbora joan zelako. Ordurako Felix Lavilla hasia zen pianoan eta organoan, Iraolarekin, eta Felixen gidaritzapean jarraitu genuen.

### **G.** *Familian aitzindariak bazenuen kantuaren mundu honetan.*

**E.** Familian, osaba Teodoro antzerkilaria izan zen, zuzendaria ere bai, eta gainera musikarako zaletasuna zuena, klarinetea jotzen omen zuen. Tamalez 25 urterekin zendu zen. Fabrika handiko bihurtzea zen lanbidez. Hori izan zen familian aurrekaria antzerkia eta musika esparruan. Gero, aitak bertsoak kantatzen zituen, pila bat zekizkien, eta nik, hari entzunda, ikasi nituen mordoxka bat.

### **G.** *Entzun izan dizut esaten mutil koskorretan, hamabi, hamahiru urterekin, zarzuelak egiten zenituztela.*

**E.** Halaxe da. D. Felipe Barandiaran eta D. Jose Luis Lekuona Erreteriarra etorri zirenean, nik uste orduan hamabi, hamahiru urte izango nituela, zarzuelak egiten hasi ziren. Ba da *Polvorilla* zarzuela bat (*kantari hasten da musika lan horretako pasarteak abesten*) eta nik egiten nuen bakarlari. Gogoan dut Mikel Erriondok tabernariaren papera egiten zuela eta Antonio Mendizabalek ere parte hartu zuela beste gazte batzuek bezala.

### **G.** *Etxean egunero bokalizatzen zenuela egia al da?*

**E.** Bai. Egunero bokalizatzen nuen etxean, baita erromantzak kantatu ere. Eguerdietan lanetik atera eta lanera berriz joan arte, nire kuartoan kantatzen nuen. Horregatik esaten zuten niregatik *“¡siempre cantando!!!”*. Nik orduan hemezortzi, hemeretzi urte izango nituen eta nola erraz kantatzeaz gain gustukoa nuen, aria, erromantza eta kanta asko etxean ikasi nituen.



Iñaki Goñi sir Simon Rattlerekin  
(Berlingo Orkestra Filarmonikoko zuzendaria).

Feliz Lavillarekin ere bera pianoan eta ni kantari pasatako arratsaldeak ez ditut ahanzten. Zenbat ordu aria eta erromantzak ikasten, Felixekin!!!! (*Felix Lavilla erreteriarra mundu mailan izan den abeslari lirikoaren piano jole laguntzaile onenarikoa izan zen eta bere garaian bakarlari onenenekin, munduko antzoki eta eszenatoki entzutetsuenetan ibili zen*).

### **G.** *Garai horretan irabazi zenuen tenore lirikoaren kategorian Hernanin egin zen kantu lehiaketara, ezta?*

**E.** Don Bautistak preparatuta joan nintzen 18 urterekin Hernanin egin zen kantu lehiaketara. Bertako zinemari izan zen. Derrigorrez abestu beharreko obra “Ama” izan zen, euskaraz, Vicente Escuderoarena, Francisco Escuderoaren anaiarena, *Tristán de Easo* bezala sinatzen zituen partiturak. Nik hautatutako obra bezala, Donizettiren *L’elisir de amore* operako “Una Furtiva Lacrima” abestu nuen, eta tenore lirikoaren kategorian neri eman zidaten lehen saria.

Epaimahaia Jesus Agirregabiria tenore izanduak, Gabriel Olaizola Hernanin jaiotako baxu, abesbatza zuzendariak eta Luis Urteaga, organo-jole eta konposatzaileak osatu zuten.

### **G.** *Orduan hasi zinen ahots teknika ikasten?*

**E.** Mari Paz Urbietarekin hartu nituen kantu teknika klaseak. Nola arnasa hartu, lehendabizi ahoa itxita ahotsa bere lekuan jarri, maskara esaten zaion lekuan,





Goxo boskotea. Ezkerretik eskuinera: Iñaki Goñi, Valeriano Arruabarrena, Ignacio Camacho eta Luis Aramburu. Akordeoilaria, Rafael Bereciartu.

gero ariketak egin, eta gero teknika hartu nuenean partiturak ematen zizkigun ikasi genitzan. Dorita Alkiza soprano errenteriarrek ere berarekin ikasi zuen eta gero Milanera joan zen.

**G. Parrokiako koruan beti kantatu duzu, orain bertan kantatzen duzu, baina baita otxoteetan ere. Lehendabizikoa gogoan duzu?**

**E.** Otxote Oarso Don Bautistak sortu zuen. Nolabait esateko otxote titularra zen eta gero bazen beste otxote "suplentea" Lavillak zuzentzen zuena eta han kantatzen nuen nik. Parrokiako koruaz aparte ez zegoen beste korurik herrian, garai hartan berrogei edo baginan kantariak. Aste Santuko, Korpus eguneko eta Elizako jai handietan talde ederra osatzen genuen.

**G. Gero Jubaola otxotean abestu zenuen?**

**E.** Otxote Jubaola Don Bautista hil zenean sortu zen. Tenore lehenengoak Pedro Corostola eta ni; tenore bigarrenak, Karmelo eta Luis Arruabarrena; baritonoak,

Valeriano Arruabarrena eta Xipri Elizegi eta baxuak Jose Antonio Agirre eta Inazio Camacho. Don Juan Bautista Olaizolaren tiple izanduak ziren ia denak ni izan ezik eta Jubaola jarri genion izena, (Juan Bautista Olaizola izen deiturretatik zetorren izena). Ez zuen asko iraun.

**G. Karnaba otxotea ondoren. Zergatik jarri zenioten Karnaba?**

**E.** Errenteriatik, Donostiako Santa Zezilia abesbatzara joaten ginenok antolatu genuen. Patxi Mitxelena eta ni tenore lehenengoak, Jose Manuel Mitxelena eta Antontxu tenore bigarrenak; baritonoak Sabin Etxebeste eta Joxe Mari Arbelaiz, eta baxuak Joaquin Arruabarrena eta Juanito Busselo. Etxebestek utzi zuenean Josean Altxu sartu zen.

Orduan otxoteak, dagokion bezala, zortzi kantarik osatzen zituzten. Bat zuzendari behar eta nik ematen nituen tonuak. Txapelketetan parte hartu genuen, San Vicente de la Barqueran adibidez, hiru aldiz garaipena



Iñaki Goñi Donostiako Santa Zezilia abesbatzaren entsegua zuzentzen. Pianoan Francisco Escudero.



Iñaki Goñi lehengo Kursaal Antzokian.

lortu genuen, baita Arrasaten eta Bizkaian ere. Mallorcan ere izan ginen Donostiako eta hango sukaldarien topaketa batean eta Madrilgo Alcalá Hotelaren inaugurazioan ere kantatu genuen.

Izenaren kontuari dagokionean, badakizu nork proposatu zuen izen hori jartzea? Antontxuk. "No es el pájaro que mejor canta pero siempre está cantando". Eta horrela, Karnaba jarri genion. Itxaropena otxotearekin ere kantatu nuen Santa Zezilia Abesbatzan abesten zuten Altzako kide batzuek antolatutako taldea izan zen.

**G.** *Abestu duzun abesbatzen atalera pasa aurretik, beste bi talde aipatu nahi nituzke. "Quinteto Goxo" eta "Sexteto de la Congregación de los Luises", biak Erreterian.*

**E.** Bi horietatik lehendabizikoa seikotea izan zen. Manolo Ortiz akordeoian, abeslariak Jesus Arregi, Joxe Mari González, Juanito Mendizabal, Mikel Olaizola, José Luis Mujika, ni eta Jabier Olaskoaga gidari. Olaskoagak Xeiko kantak bazekizkien, eta soinuarekin rantsxerak eta gisa horretako kantuak abesten genituen. Erreterian Reina antzokian era guztietako funtzioetan parte hartzen genuen.

"Quinteto goxo" gero etorri zen. Rafael Bereziartuk, Juan Gorostidirekin harremana zuen eta talde txiki bat euskal kantak abestuko zituena ongi legokeela esan zion eta horrela sortu zen. Disko bat bakarra grabatu

genuen, Columbia diskoetxean. Boskoteko partaideak: Rafael Bereziartu soinu-jole, Luis eta Valeriano Arruabarrena, Inazio Camacho eta ni. Camacho Afrikara joan zenean Jose Antonio Agirrek ordezkatu zuen.

**G.** *Gatozen kantatu duzun koruez hitz egitera. Parrokiako koruan hasieratik eta oraindik ere jarraitzen duzu, baina lehen abesbatza, Orfeon Renteriano izan zen.*

**E.** Bai Orfeon Renterianon kantatu nuen, D. Jesus Quejeto etorri zenean birsortu zen, aurrez izen berarekin gure herrian izan zen abesbatza.

**G.** *Coral Pasaitarra, Hernaniko Schola Cantorum eta Ametsa Koruan ere kantatu duzu?*

**E.** Coral Pasaitarra, Luis Romerok zuzentzen zuen eta kontzertuak Portuko jangelatan ematen genituen igande eguerdietan. Romero Easo koruko kidea zen eta han kantatzen zirenak orduan koruentzako ohikoa zen errepertorioaz baliatzen ginen. Hernaniko Schola Cantorum. Escuderoren *Ileta* lehendabiziko aldiz kantatu nuen, Hernanin eta Donostian. Zuzendaria *Orio* deitzen zioten musikari oso ona zen, Escuderoren ikaslea. Ametsa Korua lehendabizi gizonezkoen korua zen, Fernando Etxeparerekin eta han nengoen ni ere sortu zen garaian.



Iñaki Goñi Plácido Domingorekin, 1995. urtean, A Coruñan.

*G. Errenteriako Andra Marin, Sociedad Coral de Bilbao eta Iruñeko Orfeoian ere kantatu duzu.*

**E.** Bai, kontzertu jakin batzuetarako errefortzuak behar zirela eta deitzen zidaten eta kantatu nuen aipatzen dituzun talde horiekin.

*G. Egia al da egun batean hiru kontzertu abestu zenituela hiru abesbatza ezberdinekin?*

**E.** Bai, bai, horrela izan zen. Santa Zezilia egun batean, igandean ospatzen zen, 11.30ean Kursaal antzokian Schola Cantorumekin abestu nuen; eguerdiko 13.00etan Errenteriako Zumardian Errenteriako Orfoiarekin eta bandarekin, eta arratsaldeko 20:00etan Irunen, Ametsa Koruarekin. Baina abeslari bezala nire errekorra Aita Prietok zuzentzen zuen Comillaseko Schola Cantorumekin daukat. Uztail batean 28 kon-

tzertu eman genituen 31 egunetan, ia kontzertu bat egunero hilabete batean.

*G. Bakarlari bezala aritzen zinen parte hartzen zenuen ia koru guztietan eta horrela ezagutu zenuen Aita Prieto, jesuita.*

**E.** 1955. urtean Santa Zezilia abesbatza Lisboan, Tivoli antzokian bi emanaldi ematera gonbidatu zuten. Han ezagutu ninduen Aita Prietok bakarlari bezala kantatu bainuen, eta berarekin harremana horrela hasi eta urteetako erlazioa izan genuen. Bera *Les petits chanteurs* mugimenduko lehendakari ordea zen eta bere eskutik Parisko *Les petits chanteurs de Saint Lauren*'t taldearekin, askotan abestu nuen bakarlari bezala. Gogoan dut Milanen emandako kontzertu bat, non entzuleek *bravo il tenore!* ozenki esaten zuten txalo egiten zuten bitartean, nik bakarrik abestu ostean. Baita, Saint Moritzen





Goian, ezkerretik eskuinera: Joaquín Arruabarrena, Patxi Mitxelena, José M.<sup>a</sup> Arbelaitz eta Juan Busselo. Behean, ezkerretik eskuinera: Sabin Etxebeste, Iñaki Goñi, José Manuel Michelena eta Antontxu Sainz.

abestu nuen eguna ere, uztailaren 12ko eguerdia zen eta elurra mara-mara ari zuen. Tenorraren soloak nik egin nituen, Aita Prieto pianoan. Hotel batean abestu genuen.

**G.** *Erromako Gregoriana Unibertsitatean ere bakarrik kantatu zenuen. Kontaiguzu.*

**E.** Erromako Gregoriana Unibertsitatean Parisko talde berarekin bakarrik abestu ostean asko zoriondu ninduten, besteak beste txinatar tenore profesional batetik. Aipatu tenoreak Aita Prietori esan zion nire ahotsak merezi zuela Erromako Santa Zezilia Akademian ikasten geratzea, baina diru asko behar zenez ezinezkoa izan zen hura.

**G.** *Santa Zezilia Abesbatzarekin Erroman ere izan zintzen.*

**E.** 1956. urtean, Aita Prietoren bidez joan ginen Erromara kantatzera. Tren bagoi bat ia 100 pertsonakoa bete genuen abesbatzako kide, senitarteko eta lagunekin. Erroman Unibertsitate Gregorianoan eta Instituto Pontificio de Musica Sacra-n abestu genuen.

**G.** *Santa Zezilian, orduan hasi zinen zuzendari?*

**E.** Kontzertua genuen egun batean, azkeneko momentuan Vicente Escudero, gure zuzendaria, Francisco Escuderoaren anaia, ordezkatu behar izan nuen, Santa Zezilia abesbatzak Donostiako Udaletxeko terrazan eman zuen kontzertu batean. Eta ordezkotzak hogeita bederatzi urte iraun zuen, 1989. urtean utzi nuen arte. Francisco Escudero askotan etortzen zen gure entsaioetara, baita pianoz lagundu ere askotan.

**G.** *Francisco Escuderoak asmatu zuen beraz, "tu vales para dirigir" esan zizunean. Hiru hamarkadatan zure ibilbidea Santa Zezilia abesbatzarena da. Dena aipatzerik ez, baina Lilleko nazioarteko lehiaketa eta Loreto lehiaketa ondoren Aita Santuaren audientzian zuzentzea tokatu zitzaizun. Zer dela eta?*

**E.** Lillen Nazioarteko II. Lehiaketa ospatzen zen, 1962. urtea zela uste dut. Gu gizonezkoen abesbatzen kategorian atera ginen eta bigarren saria lortu genuen. Erromakoari dagokionez, Loreton lehiaketan parte hartu ostean, nahi zuten koruek audientzia izaten zuten Aita Santuarekin, orduan Pablo VI.a zen. Ordubetek zain egon eta gero, audientzia hasi zen eta Aita Prietok esan zidan, "zuzendaria ez dator eta zuk zuzendu beharko duzu", eta horrela niri egokitu zitzaidan kanatuak gidatzea.

**G.** *Hernaniko Escuderoaren hileta eta haren ondoren, orfeoia-ekin abesten hasi zinen arte ez zenuen gehiago orkestrarekin abestu. Noiz hasi zinen Donostiako Orfeoian kantatzen?*

**E.** Jubilatuko nintzenez. "Sani", Orfeoiko zuzendariak bertan kantatzeko aukera eskaini zidan eta horrela hasi nintzen. Ia hogeita hamar urte egin ditut orfeoian.

**G.** *Errepertorioko obra ezagun eta bikainenak kantatzeko aukera izan duzu, bakarlari bezala aritu zara, munduko orkestra, zuzendari eta bakarlari onenekin antzoki, audi-*



Iñaki Goñi Pablo VI.a aita santuak eskainitako audientzian parte hartu zuten abesbatzak zuzentzen.

*torio eta musika jaialdi onenetan aritu zera. Donostiako Orfeoiazen azken hiru hamarkadetako historiaren partaide izan zera. Asetua geratuko zinen?*

**E** Egia esan, ez nuen pentsatzen Orfeoian hasi nintzenez, jubilatuta ondoren hainbeste gozatu nuenik. Betidanik entzun eta abestea amesten nituen obrak kantatzeko aukera izan dut, Brahms, Verdi, Faure, Mozart, Berliozen Requiemak esaterako eta beste hainbat eta hainbat musika lan. Claudio Abado, Riccardo Muti, Riccardo Chailly, Loren Mazel, Daniel Barenboim, Simon Rattle, Valeri Guéguiev, Rafael Frühbeck de Burgos, Victor Pablo Pérez, Michel Placido Domingo edo Tugan Sokhiev, batzuk aipatzearen, zuzendaritzapean abestu izana suerte handia izan da. Munduko orkestra eta bakarlari onak entzun ditut, Salzburgeko Jaialdian parte hartu nuen, hainbeste dira une gogoangarriak...Egia esan, asko gozatu dut.

Maisu izan da eta da Iñaki Goñi, eredu ere bai, Donostiako Orfeoiko zuzendari den Jose Antonio Sainz Alfaro, publikoki orfeoiko kideen aurrean esan zuen bezala. Tenore aparta, teknikoki bikaina, ahotsa zaintzen jakin duena (laurogei urtetan marranta behin izan du), harrokeriarik gabeko gizon apal eta zintzoa, hartutako konpromisoak leial bete izan dituen (entsaio eta kontzertuetan ia sekula kale egiten ez duen "rara avis" horietakoa). Antzoki entzutetsuenetan dela edo

herriko meza batean dela duen onena ematen du eta beti laguntzeko prest egonda eta dago. Hori guztia, gainera, umorez eta irribarrez.

Errenteriar izateaz beti harro, musikaren alorrean herri gintzan lauorgeri urte luzez aritu ondoren *Oarson* egin diogun elkarrizketa hau, omenaldi xume bat baino ez da izan. Gehiago merezi duela uste dut, besteak beste, bere jaioterriaren ezagutza.

Bejondeizula, osaba, besarkada eta muxu handi bat, eta mila esker!!!!

Iñaki Goñi eta Itziar Zugarramurdi emaztearen urrezko ezteiak.



# Lo diré todo: ¡galletas Olibet!

Maite Ruiz de Azúa

Una magdalena fue la que desató en Marcel Proust la evocación de un intenso momento que le transportaría a su infancia, en casa de la tía Leonie, impresión que fue el comienzo de la materialización de todo su pasado en su presente, revelación que venció la línea del tiempo y que dio paso a su gran obra *En busca del tiempo perdido*.



Pero Proust era francés, su historia arranca en Cambridge y, como ya he dicho, la clave estuvo en una magdalena.


Un olor, un sabor, el recuerdo de un tiempo... estos ingredientes nos llevaron a pensar en la magia que también pudo poseer nuestra galleta Olibet, por lo que nos propusimos seguir su rastro literario, para descubrir, con sorpresa, que es mucho más proustiana y literaria de que lo que imaginábamos.

Comenzaremos nuestro recorrido hablando del universal poeta Juan Ramón Jiménez, quien, aficionado a las galletas Olibet, en su exilio las recordaba con un tono nostálgico, casi mítico. Así, durante la estancia

del poeta en Washington, su esposa Zenobia Camprubí escribía una carta a Juan Guerrero Ruiz, con fecha de 15 de junio de 1945, en la que le solicitaba el envío de algunas de las pertenencias que habían tenido que dejar en España. Entre retratos de familia, objetos de plata, manuscritos y ediciones corregidas de las obras de Juan Ramón, Zenobia también le hacía la siguiente petición: **"Unas galletas «María» de Olibet para J. R. serían la gran sorpresa, porque siempre está hablando de ellas como cosas legendarias e inasequibles"**.

Otro creador andaluz universal que también hace referencia a este mismo producto, y asimismo en relación a la evocación de tiempos pasados, es Pablo Ruiz





Juan Ramón Jiménez en una de sus clases en la Universidad de Maryland hacia 1945.

Picasso. Su amigo Jaume Sabartés cuenta en la biografía que escribió sobre el pintor, que una vez a los setenta años de edad, viendo a un niño cómo aprendía a caminar, Picasso comentó lo siguiente: «**Aprendí a caminar empujando una lata de galletas *Olibet* porque sabía lo que contenía**» e insistió en la importancia de sus motivos, orgulloso de su ingenio a tan tierna edad. Esta apreciación temprana de la forma geométrica simple, combinada con el interés por lo que está oculto en el interior, resulta sumamente adecuada en el futuro inventor del Cubismo. En un sentido visual, la memoria de Picasso permaneció extraordinariamente clara en lo relativo a cosas importantes y precisaba que la lata tenía al menos cincuenta centímetros de alto.

No fue solamente el pequeño Picasso el que buscó otra utilidad práctica a la caja de galletas Olibet. Un siglo después, en 1897, *Repertorio*, la revista de teatro de la Universidad Autónoma de Querétaro (México), recoge la siguiente sugerencia: “G. Baty dice: ¡Si se nos conceden nuevos aparatos eléctricos y nueva maquinaria, tanto mejor! Si no, me río de ellas. **Cuando no se tiene proyector se coge una caja de galletas *Olibet*.** Cuando no se tienen baterías coloreadas, se cuelgan hojas de celofán con alfileres de la ropa. El director de escena debe saber trabajar en la pobreza en que se encuentre”.

Pero volviendo al pintor malagueño, el escritor Antonio Martínez Cerezo recrea la mencionada anécdota acerca de Picasso y las galletas Olibet, introduciéndola en la novela *El otoño de una primavera*, al tiempo que le adjudica un sentido totalmente proustiano:

“La hija mayor de la coneja, Amarita, chica lista como rata que a gato escapa, pasa junto a nosotros con *una caja de hojalata*; con dulce voz avisa: «Ya mismo viene mi madre con lo suyo de ustedes» y sale al filo de la entrada a echar *serrín* y poner un saco donde puedan los que entran res-tregarse el agua y el barro.

**La muchacha pone a la altura de mi exaltada vista la lata**

-“Olibet”- leo en voz alta.

Aprieto la caja, la golpeo con las manos. El sonido me resulta sumamente familiar. Agradezco a Amarita su gentileza. Pintarla a ella me compensará de pintar al resto de la familia. Sabes, yo aprendí a andar empujando una lata de esas. El olor de las galletas movía mis piernas. Concluyo que el *olor de las galletas estimulaba en mí* el deseo de cogerlas; al ir a cogerlas, empujaba torpemente la lata; al empujar la lata, ésta se separaba de mí; la separación me obligaba a dar un paso, un nuevo *paso*, cada vez un *paso* más: así aprendí a andar.

**Esa caja de galletas «*Olibet*» ha sido para mí una revelación.** Al olerla no he olido a *serrín*, sino a lo que en su día debió contener: *galletas*, que qui-



El dramaturgo Pedro Muñoz Seca —sentado el segundo por la derecha— con unos amigos en la terraza del Guría en San Sebastián, jugando a cartas, 1928. Foto: Pascual Marín. Kutxateka.

zã fueron para Amarita sustitutivo de la teta. Al tocarla, no he tocado los bollos y herrumbre actuales, sino la tersura de aquella otra que se aparece vagamente a mi memoria como litografiada. A menudo me ocurre ver, oler, tocar, palpar, oír, saborear algo que traslada de inmediato mis memorias (las memorias son cuando menos cinco) al inasible universo de la infancia”.

Otra mención de la marca *Olibet* la encontramos en la obra *Los planes del abuelo*, del dramaturgo Pedro Muñoz Seca, comedia estrenada el 16 de noviembre de 1921 en el Teatro rey Alfonso de Madrid.

Muñoz Seca, asiduo veraneante en San Sebastián, llegó a estrenar una decena de obras en el teatro Victoria Eugenia. La obra *Los planes del abuelo* está ambientada en esta ciudad, en el mes de agosto, en torno a ese mismo comienzo de los años 20, y presenta en escena la terraza del Hotel Mundial, un hotel de gran lujo, que se supone enclavado al final del paseo de la Concha. Como telón de una perspectiva, que abarca parte

de la isla de Santa Clara y un trozo del Monte Urgull, con su castillo allá arriba, y abajo, el paseo, orgullo de los donostiarros. En una de las escenas presenta a los personajes refiriéndose a uno de los planes habituales de los veraneantes: acudir a Errenteria a adquirir productos de la fábrica de Olibet.

(De izquierda a derecha atraviesan la escena Mario y Fraile. **Mario trae una cajita de galletas “Olibet”**).

Fraile- ¿Entonces has ido en “auto” hasta Ren-tería?

Mario.- Hasta la fábrica de galletas, y aquí le traigo lo que me encargó.

Fraile. — Te habrán convidado allí, ¿no?

Mario. — Mire usted, me he puesto de galletas “María” que voy a tener un cólico. Con decirle a usted que *acabo de encontrarme* a María la lavan-


dera y le he dicho: Adiós, Sinforosa, porque hasta el decir María me repugnaba." (Se van por la derecha).

Muñoz Seca no será el único dramaturgo que tiene en mente la galleta Olibet, también Miguel Mihura, la cita en el *Epistolario selecto de Fuenterrabía (1928-1977)*, en concreto en una carta dirigida al también genio de la escena Enrique Jardiel Poncela, con quien llegó a colaborar en alguna comedia. Sin embargo, al parecer la relación entre ambos no fue siempre igual de cordial y un buen día de 1928 Jardiel Poncela se sienta en una silla, coge su estilográfica y escribe a su colega: «Desde hace muchos meses, más de dos años, vienes utilizando para tus cuentos y artículos todos aquellos trucos, desplantes, equivalencias, resortes, comparaciones, hipérbolos, incongruencias y juegos de ingenio que yo inventé para mis artículos y mis cuentos. La influencia en literatura es lícita, yo he influido en alguno que otro, lo que ya no es lícito es el plagio. El plagio en este caso es tan patente que cuando tú comenzabas a publicar mucha gente me preguntó si era yo quien lo hacía con seudónimo».

Acto seguido Miguel Mihura le replicará de la siguiente manera: "Si yo puse en mis cuentos *diálogos ingleses en camelo*, tú pusiste en tus cuentos, en camelo, diálogos ingleses. Hasta las **galletas Olibet** y las sardinas marca Curbera te han valido para probarme tu tesón. Y no es que yo tenga el privilegio ni de Curbera ni de **Olibet**, es que tu persecución furiosa ha llegado hasta las sardinas y las galletas".

Saltamos al año 1936, precisamente al 18 de julio, jornada en la que estalla la Guerra Civil, episodio que Mariano Estornés Lasa recoge en un *Diario*, escrito en 1965.

Al parecer, aquella noche del 18 de julio la plana mayor del nacionalismo en Guipúzcoa se reunió en su casa de la calle Legazpi 5, a pocos metros del Gobierno Civil de la calle Oquendo, fue entonces cuando el Partido Nacionalista Vasco adopta su polémica decisión respecto a la guerra que se inicia. En situación tan delicada, unos vasos de jerez y una lata de galletas Olibet, fueron las vituallas que acompañaron en tal difícil resolución, y de tal manera lo narra el escritor navarro:



"Serían las 11 de la noche de aquel 18 de julio. Yo había llegado a Isaba el día 11, sin quedarme al Tributo de las Tres Vacas del día 13. Mis primas se extrañaban que no me quedara pues sabían que era de los que no faltaban a esa cita en Ernaz. Pero yo tenía no sé qué presentimiento, confirmado al llegar a Pamplona en la Roncalesa. En los urinarios públicos de la estación de autobuses las pinturas cubrían las paredes. Predominando los "Muera la República!". La Falange y el Carlismo estaban allí sin temer a represalias. Esto me alarmó. No comprendía que se insultara al Régimen que había surgido triunfante de unas elecciones libres. Alarmado, pues, tomé la Roncalesa y me presenté en casa, Legazpi, 5-1º, San Sebastián.

Como decía, ese día 18, hacia las once de la noche, después de cenar, llamaron a la puerta. Abrimos, sin más. Nuestra sorpresa fue grande al ver la calidad de los que buscaban un "asilo para pasar la noche". Allí estaban la plana mayor del nacionalismo en Guipuz-





Mariano Estornés Lasa.

coa: Manuel de Irujo, José María Lasarte, Telesforo de Monzón, Ander Arcelus, Justo Antoñanzas, que los traía, de S(olidaridad) O(breros) Vascos, vivía en la misma casa, como Pelayo Azcona, presidente de Soli. También en los pisos altos vivía la familia Múgica Herzog con chicos de poca edad.

Nuestra exclamación fue espontánea "A buen sitio venís. Nos llevarán a todos juntos". Advierto que en nuestro piso funcionaba la Academia Estornés Ikastetxea, con un letrero de siete metros en el balcón. También era la sede de Beñat Idaztiak, con publicaciones muy conocidas como el Mapa de Euskadi - *Vasconia*, *Historia del País Vasko* de mi hermano Bernardo y la colección Zabalkundea que iba en el tomo número 20 *Castillos Medievales de Navarra* de Julio Altadill.

Los visitantes se instalaron en el comedor. **La amandera Eleuteria Lasa puso en la mesa una gran lata de galletas Olibet, una botella de Jerez y vasos.** Los

reunidos apenas probaron nada. Don Manuel no cesaba de hacer llamadas telefónicas. Don Telesforo, joven nervioso de porte distinguido se sentaba en el borde de la mesa. El comedor, de estilo vasco, aún se conserva. Nosotros les dejamos a sus anchas. Podían analizar tranquilamente la índole de los acontecimientos (...):

Continuamos nuestro recorrido con Manuel de la Sota, escritor vizcaíno nacido en 1897 y militante en el nacionalismo vasco, desarrolló sus aptitudes creativas impulsando, con otros colaboradores, la labor teatral propagandística de la organización. En 1937 marcha al exilio, donde continúa su labor de apoyo al Gobierno Vasco, acompañando al equipo de fútbol Euzkadi y al grupo Eresoinka. Su estancia en Nueva York, desde 1940 hasta 1946, en la delegación vasca, le lleva a escribir en 1949 *Yanqui Hisrsutus: pequeñas conversaciones sin importancia sobre los habitantes del nuevo mundo anglosajón*. Es en esta novela donde hace una referencia a la galleta producida en Errenteria: "En el pequeño comedor, que también servía para recibir visitas, había visillos y cubiertas de almohadón elaborados a ganchillo, alfombras de estera, lámparas con pantallas de pompones, mesillas de tres patas cargadas de souvenirs fabricados con conchas marinas, y un piano arrinconado que parecía un ballenato. En las paredes, el "Ángelus" de Millet, una odalisca de Gustavo Doré, y un **calendario representando unos niños que iban muy contentos a la escuela porque comían galletas Olibet.**"

La publicación *Papeles y Memorias: medio siglo de relaciones Iglesia-Estado en España 1936-1986* de Jesús Iribarren recoge el recuerdo del sacerdote Serafín Ascasubi, a quien conoció el autor cuando era niño, puesto que se conocieron en Legutiano, población de la cual ambos eran oriundos:

"El párroco don Serafín Ascasubi, doctor en derecho canónico (ja principios de siglo) era muy amigo de casa, me enseñó bien el solfeo, por el método Eslava. Carlista (...), Don Serafín predicaba un domingo en vasco y otro en castellano: sus sermones tomaban inicio en el evangelio, pero infaliblemente terminaban en anatemas contra los liberales o gritos contra los bizcaitarras. Era piadoso, abnegado, irritable, emprendedor, manirroto y su caridad nunca hizo distinciones

entre amigos y adversarios: los gritos del púlpito indicaban dónde estaba su ideal, pero liberales o bizcaïtarras sabían dónde estaba su corazón. (...) Tenía dos hermanas, Petra y Carmen, una sosa y otra dulce; pero ambas daban galletas a los chicos. **Lo diré todo: ¡galletas Olibet!**

Otro autor al que queremos citar es Julián del Valle, nacido en Bilbao en 1896, promotor teatral y cinematográfico, que realizó también la labor de cronista de la vida bilbaína. En *Mi calle: el Bilbao de principios de siglo visto desde Carnicería Vieja* (1968), describe a distintos vecinos del casco viejo bilbaíno, entre ellos a Don Andrés Martín "el Untosito", al frente de una tienda de ultramarinos, de quien recuerda: **"Me obsequiaba con una estupenda merienda a base de chocolate "hecho", mermelada inglesa y galletas "María" de Olibet.** Se reía cuando le contaba las travesuras en el colegio y la calle".


Regresamos con la fábrica Olibet a Errenteria, marca que siempre fue una seña de identidad tanto para los

integrantes de la villa como para los foráneos, y así lo contaba José Ramón Recalde, el que fuera consejero del Gobierno Vasco, en una entrevista que le hizo María Antonia Iglesias para el libro *Memoria de Euskadi: la terapia para la verdad, todos lo cuentan todo*: "El pueblo con el que me siento más ligado, aparte de San Sebastián, es Rentería, porque de allí eran mi padre, mis abuelos... Rentería era un pueblecito que en 1939 debía tener 7.000 habitantes. **Era un pueblo muy vasco, al tiempo industrial, galletero, porque fabricaba las galletas Oliver (sic), que son los que inventaron la galleta María** que, por error, por disparate de los que llevaban la empresa no la patentaron, no la protegieron... Eso nos fastidió a los que somos de Rentería de adopción, o sea, San Sebastián y Rentería, que nada tiene que ver con la Rentería de ahora. Recuerdo Rentería como algo muy simpático. Íbamos a casa de mi tío, que era bastante mayor que mi padre; las fiestas de la Magdalena, que las celebrábamos en el restaurante Panier... Todo era muy agradable."

Y dejamos para el final la obra *Planicio* de José Luis Olaizola, novela ubicada en el San Sebastián de los años inmediatamente posteriores a la Guerra Civil, donde los protagonistas, Pachi y su hijo Planicio, viven estrecheces económicas. Planicio pasa hambre de continuo y solo sueña con hacerse con una buena provisión de galletas para momentos de extrema necesidad.

"Aita, cuando cobremos tenemos que comprar comida y tener en casa.

Él quería decir tener en casa alguna clase de comida cuando se le producían esas hambres terribles. Por ejemplo, **le habían dicho que en Rentería había una fábrica de galletas que vendía las rotas y malformadas –pero que sabían lo mismo- a peseta el kilo;** debían comprar cinco kilos, meterlas en una caja de hojalata para que no se ablandaran, y usarlas solo en caso de necesidad. (...) No dudaba de que una dieta de galletas, manzanas y agua se podía resistir bastante. (...) De momento, lo más práctico era comprar los cinco kilos de galletas en la fábrica de Rentería. Aita estaba de acuerdo, pero nunca lo hacían porque el asunto del dinero era muy confuso. (...)



- Pero ¿a ti quién te ha dicho que venden el kilo de galletas a peseta?

Se lo había dicho la Francisca, la portera, que de joven trabajó en aquella fábrica y la conocía muy bien

- ¿Y te vas a fiar de lo que dice esa sinsorga?

Planicio le insistía que sí, que se fiaba, y le recordaba que Francisca trabajó de joven en la fábrica. Entonces el padre le interrumpía sarcástico:

- Entonces sería en el siglo pasado. Y desde entonces han cambiado mucho las cosas.

Como este tipo de bromas no las entendía el chico, le daba otros argumentos.

- Además, te vas a gastar en el tranvía más de lo que cuestan las galletas.

De todos modos Planicio no desistía de la idea de informarse muy bien de dónde estaba la fábrica, y aunque fuera andando –Rentería estaría a unos siete kilómetros de San Sebastián-, ir a proveerse”.

El deseo de Planicio no se podrá realizar hasta que él mismo gana unas monedas como recogepelotas en unos partidos de tenis: “pensó que quizá hubiera llegado el momento de cumplir su viejo sueño de tener en el sobreático una provisión de emergencia, por ejemplo, de **galletas rotas**, que decía Francisca **que vendían en Rentería tan baratas**, metidas en una caja de lata para que no se ablandaran con la humedad”.

Acabamos de citar el episodio de una posguerra en la que un niño sueña con galletas, mención que recoge Aguirre Sorondo como vivencia personal: “Hasta su cierre en los años sesenta, la visita a **La Olibet** era un plan típico de veraneantes, mientras que **los niños siempre que teníamos algo de dinero nos acercábamos a por galletas rotas y recortes.**” O el testimonio de Joxe Maria Zuloaga, vecino de Errenteria: “... hau, hau kontatuko dut, hau politta da oso. Juaten giñan, ‘Galletas Olibet’? Eta ‘**Galletas Olibet’ek eitten zun, galletak in, eta papurrak, eta galleta puskak-eta, kaja batian**

**hartu eta kanpora bota;** zelaira. Pareta bazuten, ate ttiki bat erekitzen zuten, eta uain “rascacielos” dauden toki hortan, joaten zian eta praaast! Han bota. Eta gu han zai eoten giñan. -Hartzeko...-**Eta galletak hartzen genitun, eta galletak jaten genitun. Galleta puskak.** Eta nik uste dut pixka bat egiten zutela guei launtzeko; nik txoriyai botzen yoten gisa. Hori’re goatzen naiz, ta askotan joan izandu giñan...”.

Y finaliza aquí este recorrido en el cual hemos seguido el aroma de las galletas Olibet a través de diferentes autores y textos, aunque a decir verdad, aún hoy, literariamente o no, su rastro aún lleva a muchos de aquellos que las saborearon a la evocación de un tiempo y a un sinfín de recuerdos, y es que aquella galleta Olibet, ¡lo dice todo!



---

# Frantziska Astibia Etxegoien, *Onintze*, *Astitxe* (Gerraurreko) emakume fededun militantea

Aurtengo abuztuaren 15ean beteko dira 30 urte  
Frantziska Astibia Etxegoien hil zela.

---

Elixabete Perez Gaztelu



Errenterian jaio (1900eko apirilaren 8an) eta hil bazen ere, urte asko (50 bat urte: gaztaroa, eta helduaroaren epe luze bat) Errenteriatik kanpo eman zituen. Horregatik, beharbada, ezagunagoa da sorlekutik kanpo, *Onintze*, *Astitxe* idazlearen itxuran, hezurharagizko Frantziska Astibia errenteriar emakumea baino. Kanpoan eta hemen, idazlearen eta Frantziska Astibiaren arteko lotura ez bide dagoela behar bezala eraikia agerikoa da.

Euskal testuen ikertzaileek ez dute beti aipatzen. Esate baterako, Jabier Díaz Nocik "Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntza ereduak", 1994ko artikuluan<sup>1</sup> emakumeen lana bereziki aipatzen du, baina ez du *Egunan*, *Euzkadin* bere erakusleihoa zuen *Astitxe* aipatzen.

Ataltxo hau bukatutzat eman baino lehenago, emakumeen garrantzia azpimarratu nahi genuke. Euskal Herriko erdarazko kazetaritzan ez bezala, emakume batzuek euskaraz idatzi zuten. Fenomeno hau E.A.J.rekin eta abertzale jeltkideekin zerikusia zuen Emakume Abertzale Batzak sortzen lagundu zuen.

Eta aipatzen dutenean ere ez dute beti zuzen asmatzen Astibiaren gorabeherekin. Azken alditsuko bi kritikari ekar ditzagun, konparazio baterako:

---

<sup>1</sup> Díaz Noci, Jabier (1994). "Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak", ASJU, XXVIII-3, 1994, 791-835.

Jurgi Kintanak 2009an, *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila (1810-1940)* liburuaren aurkezpenean hauxe adierazi zuen, Gipuzkoako egunkari baten esanetan.

Ez dut izugarritzko altxorrik topatu, baina bai bitxi polit batzuk, adibidez Francisca Astibia *Onintze*-rekin egin dut topo. Ezer gutxi dakigu berari buruz, 1900 aldera jaio zela eta Emakume Abertzale Batzakoak izan zela. Olerkaria izan zen eta olerki batean fede-zalantzei buruz jardun zen. (*Diario vasco*, 2009.06.11).

Jon Kortazarrek ere <http://www.bilbaopedia.info/francisca-astibia> izeneko plataforman (2014koa bide da testua) hauxe dio:

Urriak dira Frantziska Astibiaren jaiotzaz eta bizitzak dakizkigunak. Liteena [sic] da Usurbilen (Gipuzkoa) jaioa izatea, paratu zituen olerkietako batean herri horretako ibaietako baten aipamena egin zuen, haurtzarako [sic] bere herrikoa zela esanez.

Aita Onaindiak, ordea, *Bizkaiko olerkariak* izeneko saiakeran, 1990ean, emana zuen *Onintze* eta Astibiaren berri. *Utarsus* (Untzeta'tar Sorne) eta *Onintze* (Astibia'tar Panzeske) aipatzen ditu olerkari onen artean, biok "Euzko-Emakume Abertzale-Batzakoak" izan zirela esanez eta honela kokatzen du *Onintze*:

... eta gipuzkerazkoa, «Euzko-Gaztedija», gaur be Errenderi bere sortarrian bizi dan «Onintze»-k egiña. «Errenderi» Aita kaputxino olerkari sutsuaren arreba dozu berau, larogetaz urtekin zematua nik joandako udazkenean egin neutson ikustaldian, oraindik aski gordin, mistikari emona, aurkitu nebana ain zuzen. Arrezkero il izan da Onintza olerkaria Errenderin.

Agerian da, beraz, Frantziska Astibia Etxegoen *Onintze*, *Astitek* ez duela lortu "bere lekua" gerraurreko emakume militante eta (halabeharrez?) idazle haien artean; ez zaiola aitortu bere garaiko beste emakume batzuei aitortu zaiena.

Lerro hauek lagundu nahiko lukete idazlearen eta errenteriar emakumearen arteko zubia eraikitzen, jakinik, hala ere, beren lanek behintzat mereziko luke-tela orain hemen egingo ez dugun lan zabalago eta sakonagorik.

Zubigintzan hasteko, orain arte egin gabeko bi alderdi izango ditugu hizpidean. Lehenik eta behin bizitzaren gainean arituko gara, batez ere etxekoek eman dizki-guten datuez baliatuz (eskerrik asko!), eta ondoren argitaratu zituen lan guztien (guk dakigula guztien) berri zehatza emango dugu.

## Bizitza

Bataiatze agirian idatzia dagoenaren arabera, Francisca María Dionisia Astivia Etxegoen Errenterian bataiatu zuten 1900.eko apirilaren 9an. Guraso zituen Jose Fructuoso Astibia Sarbide errenteriarra eta Sebastiana Etxegoen Aldako oiartzuarra.

14 senideko 13.a izan zen Frantziska, baina jaiotzerako zazpi senide hilak ziren<sup>2</sup>. Maria gazteena ere —maistra izan omen zen—gazterik hil omen zen. Fanderian jaio ziren senide guztiak, gurasoak bertako erroteriak ziren eta.

Zorionez, Frantziskaren bizitzaren berri jakiteko modua badago, bai argitaratutako lan batzuei esker —aita Onaindia eta Xabier Olaskoaga<sup>3</sup> aipatu beharrak dira— bai ezagutu zutenei esker. Izan ere, Astibiatarrek gorde dituzte eta gure eskuetan paratu eskuratu dituzten Frantziskaren dokumentu idatziak eta argazkiak. Horietako batean hauxe aitortzen du "izeba Pa-kitak" (lexiko "garbizalea" darabilela):

Amalau senide izan giñen. Txiki-txikitan bi gotzon-txu [aingerutxo] joan ziran donokira [zerura]. Bi anai buruñurdun [kaputxino] sartu ziran. Obek lenengoz,

<sup>2</sup> Donostiako gotzaindegiko agirien arabera ([www.mendezmende.org](http://www.mendezmende.org)), 1900. urtea baino lehen (Internet bidez ezin da agiri berriagorik kontsultatu), Frantziska sortu aurretik, 7 senideok hilak ziren: Román Cándido (1886-10-04 / 1886-11-13), María Luisa Trinidad (1888-05-27 / 1888-08-21), Juan José Cornelio (1890-09-16 / 1891-07-19), Elías Isaías Jeremías (1892-02-16 / 1892-06-27), Lucas Román (1893-10-19 / 1893-11-20), María Margarita (1895-10-25 / 1896-05-15), María Ysidora Ricarda (1899-04-04 / 1899-06-21).

Bestalde, gauza jakina da José Ramon Gregorio anaia [*Errenderi aba* idazlea] 1881eko azaroaren 17an jaio eta 1916an hil zela. Gainerako senideak, José Julian (1883-01-28/?), Esteban María Modesto (1884-06-16/?), Ana María (1897-09-02), Pedro Nicolás (1889-09-10/?), María (19?), eta Frantziska bera 1900 igarota hilak dira.

<sup>3</sup> Olaskoaga, Xabier (1981). "Errenderi'tar Erraimun aba. Olerkari eta lekaide", *Oarso* 1981.

Lekaroz'ko Ikastetxera joan ziran, eta gero bertan gelditu ořela nai zutelako. [...] An izan ziran iru anai, ta bat etoři zan zortzi urte an igarota.

Errenteriara itzuli zen anaia Kepa zen (Pedro Nicolás bataio agirian); hamalau senide haietatik familia hazi zuen bakarra (zazpi seme-alaba izan zituen). Mikel semearen eta Inaxiren etxean egin zituen, hain zuzen ere, izeba Pakitak bizitzako azken urteak.

*Exposición y presentación del libro.* Alguno de los actos centrales del aniversario estaban previstos para el mes de febrero. Durante la primera quincena de ese mes cerca de 1.000 personas, todo un récord, visitaron la exposición sobre la historia de Urdaburu. 75 años concentrados en 450 fotografías donde se refleja el conjunto de actividades del club: montaña, esquí, escalada, alpinismo, espeleología, etc. En el marco de dicha exposición, el 13 de febrero, lunes, exactamente el mismo día en que en 1942 (aquel año era viernes) se fundaba Urdaburu, tuvo lugar la presentación del libro con la historia del club *Urdaburu Mendizale Elkarte 1942-2017*. La acogida por parte de los socios fue tal que la sala Xenpelar se quedó pequeña para la cantidad de gente que acudió. La nostalgia por los momentos vividos en la montaña fue palpable en numerosos de los presentes en el acto.

## Los actos en curso

Mientras escribimos estas notas, las actividades conmemorativas continúan su curso.

*Ascensión a todas las cumbres de Euskal Herria durante el año 2017.* El mismo 1 de enero se puso en



1967. Puerto de la Herrera.  
Certamen de la Canción Montañera.

marcha el proyecto para ascender a todas las cumbres, 596, incluidas en el *Catálogo de montes de Euskal Herria*, con el objetivo añadido de que lo haga el mayor número de socios. Para su seguimiento se preparó una aplicación informática donde se registra cada ascensión, con una fotografía de la misma, que acredita dicha ascensión. En el momento de cerrar este artículo (6 de mayo) se han subido 483 montes (el 81 % del total) y han participado 103 personas, con una media aproximada de 2 personas por monte, que contabiliza un global de 981 subidas. Con todo, la aceptación del proyecto no ha podido ser mejor, pues al ritmo actual, es bastante previsible que lo hayamos concluido para cuando se publique esta revista.

*Ascensión a los techos de Euskal Herria.* Otra de las actividades es la ascensión a los puntos más altos de cada provincia en seis excursiones programadas a lo largo del año. La primera salida fue el 4 de fe-

brero para ascender al monte Artzamendi (927), techo de Lapurdi, mientras que el 6 de mayo se subió el Okabe (1.466), en Nafarroa Beherea. A lo largo del año las siguientes ascensiones serán: Aitxuri (1.551), en Gipuzkoa; Hiru Erregeen Mahaia (2.444), en Nafarroa; Orhi (2.017), en Zuberoa y Gorbeia (1.475), en Bizkaia.

*De Abau a Erreterria.* Igualmente, el 18 de marzo, tercer sábado de mes, se puso en marcha la travesía en diez etapas entre la borda de Abau, que Urdaburu tiene en el valle de Ansó, y Erreterria. De momento se llevan realizadas dos etapas de este proyecto.

Las actividades conmemorativas continuarán a lo largo de todo el año. En cuanto a las excursiones montaÑeras, las ya señaladas se completarán con la *Salida a Dolomitas-Chamonix* entre el 25 agosto y el 3 de septiembre. El 28 de mayo, domingo, será un día muy especial ya que Urdaburu tiene programa-





17 de diciembre de 2016.  
San Marcos.



Logo del 75 aniversario.

das tres marchas (de 10 km, 20 km y 44,5 km) en el marco del diseño que venimos llamando "Vuelta al Valle del Oiartzun"; con ellas pretendemos lograr la máxima participación de todo tipo de personas (niños, adultos, familias, jubilados...). Posteriormente, los días 1 y 2 de junio, continuando con la tradición de traer a Errenteria a los alpinistas del momento, hemos programado la presentación en el Auditorio de Niessen de *Alex Txikon* y *Alberto Zerain*, sucesivamente. Tras el verano, afrontaremos la recta final de este 2017 conmemorativo. Entre el 4 y el 10 de septiembre podremos visitar la exposición y participar en la travesía, entre Donibane Lohizune y Errenteria, de la Red Comète, actividad que llevamos realizando durante todo este siglo pero que este año tendrá un realce especial. El 22 de octubre Urdaburu y Errenteria asumen el reto de organizar el Día del Finalista del montañismo escolar de Gi-

puzkoa, día en el que se espera una masiva participación de escolares de todas las comarcas guipuzcoanas. Cerraremos el año con el Día de Urdaburu, un día muy especial dedicado a todos los socios y socias del club. Será el 26 de noviembre. Además de la tradicional comida, se organizarán un conjunto de actividades.

# Landarbaso Abesbatza

Landarbaso Abesbatza

1991ko uda zen, abestea gustuko zuten eta ekintzaileak ziren gazte batzuk abesbatza berri bat sortzea pentsatzen hasi zirenean. Entsegu hilabete eskasen ondoren beren burua jendaurrean aurkeztu zutenean urte hartako azaroa zen, eta oportetan hasi zuten garapen

ezjakineko abentura hura, egun jada 25 urte beteak dituen errealitate sendoa. Hasiera batean gazte talde baten erokeriatzat har zitekeen proiektu hura, egun nazioartean sona duen errealitatea da: sorreratik Iñaki Tolaretxipik zuzentzen duen Landarbaso Abesbatza.

Landarbaso Abesbatza. 2016ko azaroak 19



Horregatik 2016ko azaroaren 19ko kontzertua, taldearen 25. urteurrena ospatzekoa, horrelaxe izendatu zen: Landarbaso 25!. Ez baita marka makala abesbatza batek urtemuga hori ospatzea, eta are gutxiago punta puntako mailan eta indartsu egitea. Hori horrela, egungo Landarbasok argi zuen kontzertuak merezitako ospakizuna izan behar zuela, bai alderdi musikaletik eta baita parte hartzaileen aldetik ere, eta ahalik eta ospakizun borobilena osatzen saiatu ziren denak. Maddalen Dorronsorok abesbatzaren urteurrenerako bereziki idatzitako poema batekin hasi zen kontzertuak musika eta emozioak, bizipen eta oroitzapenak batu zituen lehena, oraina eta geroa uztartuz.

2016ko urte hasieran, taldearen 25. urteurrenako jarduerak aurkezteko prentsaurrekoan adierazi zen be-

zala, azaroaren 19ko hori izango zen ospakizun "etxe-koena", taldekideek agian berezien sentitu zezaketena. Izan ere, Landarbasok beti argi izan duen zerbait baita "izan zirelako gara" esaldia, pertsonak egiten baitute taldea, eta horiek gabe 25 urteko historia ezinezkoa izango baitzen. Horregatik, eta taldeko urteetan zehar abesten egon diren pertsona horiei behar bezalako garrantzia emateko, Landarbaso Abesbatzak abeslari ohi guztiak gonbidatu zituen elkarrekin egun berezi horretan abestera. Aukeratutako obra, Josu Elberdin konpositoreari ekitaldirako espreski idazteko eskatutako "Te Deum" obra. Ezaugarri berezikoa eskatu zitzaion Elberdini obra hori: Hiru abesbatza eta pianoarentzat idatzitako obra izatea, horrela beharrezkoak izango baitziren obra osatzeko Landarbasotik igaro diren abeslariak, eta ia 260 horietako batzuei esker errealitate egin baitzen. Abesbatza nagusia egungo Landar-

---

Kontari de Landarbaso Abesbatza. 2016ko azaroak 19.





baso izan zen, baina berarekin batera arituko ziren 2. abesbatzan taldearen lehenengo urtetako abeslariak (1991-2003 urteen artean abesten aritu zirenak), eta 3. abesbatzan bigarren aldikoak (2004-2015 urte artekoak). Horrela, hiru taldeen artean uztartuz eta sare koral ederra osatuz, abesbatza handi bat osatu zen.

Kontzertuaren zati garrantzitsuenetakoa izan bazen taldearen lehenaldia eta historia erreparatu zuen hori, are garrantzitsuagoa izan zen egungo erakundea osatzen duten talde guztiek parte hartu izana: Kontari haurren taldea, Dizdizka gazte taldea eta Landarbaso Abesbatza. Izan ere, lehenaldia eta geroa uztartuz, 2016ko azaroaren 19 hori izan baitzen Landarbaso Abesbatzako haurren proiektu berria jendaurrean aurkezteko aukeratutako eguna, KONTARI Proiektuaren aurkezpen eguna.

Urte horretako urrian bertan entseguetan hasita eta ilusioz beterik, 8 eta 13 urte bitarteko Kontariko haurrak guztiz beteta zegoen Fatima Elizan atera ziren eskuetan telazko larrosa gorriak zituztela, beraien lehenaldizko abestia abestera. Larrosa horiek eskuan abestu zuten aurkezpenerako aukeratutako obra, eta obraren amaieran Landarbasoko kideak gerturatu zitzaizkien azken konpasak elkarrekin abestu eta haurren telazko larrosak jasotzera, orainaldia eta etorkizuna, edo egun errealitatea den geroa uztartuz. Kontzertuaren hurrengo zatian, Landarbasoko neskek ehun gorri horiek askatu eta beraien jantzi beltzen gainean kolore ukitu bezala erabiliko zituzten, haurren ekarpenari esker. Emanaldi bikaina eta ezinbesteko parte-hartzea Kontariko haurrena. Artikulu hau idazterako garaian eta hilabete gutxiko bizitzan ekitaldi garrantzitsuetan abestu duen taldea, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiak Urola Kostako Gerra Zibil

---

Iñaki Tolaretxipi director. 19 nov 2016.



garaiko langileei egindako omenaldian, Landarbaso Elkartearen "Gabonetako kontzertu solidarioan", Zorroagako Haur Abesbatzen Topaketan edota "Gernika. Ilunetik Argi" emanaldi berezian.

Lehenaldia eta geroaren artean ordea, egungo Landarbaso Abesbatzak izan zuen bere parte-hartze berezia ere. Kontzertuaren bigarren zatian John Rutterren "Magnificat" obra, maila altua eskatzen duen obra abestu baitzuen egungo taldeak. Obra osoa osatzen duten 7 mugimendutatik 5 entzuteko aukera izan zen, Kaabestri ensemble (Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideek osatua) eta ekitaldirako bereziki etorritako beste instrumentistek (egur eta metalezko haizezko instrumentu eta perkusioaz zabaldua) osatu zuten orkestran, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean. Horiekin batera aritu zen gainera Miren Urbietta soprano bakarlaria, egungo gure inguruan dugun punta-puntako abeslaria eta obra sinfoniko-koral eder hori osatzen lagundu zuena. Ezaugarri horiekin Europan lehen aldiz entzun ahal izan zen "Magnificat" hau, ezbairik gabe 25 urteko historiak eskatzen zuen tamainako ospakizuna.

Behar bezelako urteurren eta ospakizunen ostean, taldearen bizitzako 26. urte honetan 100dik gora dira Landarbaso Abesbatza Elkarteko abeslariak eta hiru, elkarteak barne hartzen dituen taldeak haur, gazte eta helduez osaturik. Osasunez sano, maila altuan eta energiakz beterik dagoen taldea, eta hasierako ilusio eta gogo berberarekin lanean jarraitzen duen elkarte. Urte askotarako, Landarbaso!



Landarbaso Abesbatza eta abeslari ohiak. 2016ko azaroak 19.



Afarian ateratako argazkia. Egungo abeslariak eta abeslari ohiak. 2016ko azaroak 19.




# Jagoba Narbarte eta Guruceagaren testigua

Jakina da zesta puntak Errenteria-Oreretarekin duen harremana, baina merezi du, noizbehinka bada ere, historia bitxi zein eder horri errepassoa ematea.

Loren Barbado

Melchor Guruceaga  
zesta puntaren asmatzailea.



Zestaren sorrerak urteak atzera garamatza, XIX. mendearen bukaerara hain zuzen, eta adierazten digu gure herriak euskal pilotarekiko duen atxikimendua. Izan ere, asko dira iraganean Errenteria-Oreretak emandako pilotariak.

Horietako bat zen Melchor Guruceaga, 1865eko urtarrilean jaioa eta ostera zesta puntaren asmatzailea izango zen gizon errenteriarra. "Joko garbian" ibiltzen zen bera; trebea genuen, indar askorik gabekoa, baina azkarra eta abilezia handikoa. Ezagutu zutenek jokalaria arin eta bizia zela zioten. Hemeretzi urterekin egin zuen debuta herriko frontoian eta ordutik aurrera Bizkaiko pilotalekuetan ibili ostean, Ameriketara hainbat bidaia egin zituen. Ipurtarina zen Guruceaga, geldi egoten jakin ez, eta alde batetik bestera ibiltzen zen horietakoa.

Egonaldi horietako batean, 1888an, Argentinan ari zela, Melchorrek lesio gogorra izan zuen eskuin eskumuturrean. Bere itzulera kolokan jarri zuen lesioak; izan ere, joko garbira jokatzeko erabiltzen zen erremitak, xisterak, min handia egiten zion jokatzeko orduan. Hori dela eta, Guruceagak zesta bat asmatu zuen, errebesarekin jokatu ahal izateko. Zestak *Mauser* izena jaso zuen, fusil mitikoaren omenez. Luzea eta fina zen, eta sakonera handiagoa zuen. Horrek pilotaren jasotzea errazagoa egiten zuen.



Guruceagaren erreminta berria gainontzeko jokalarien artean zabaldu zen. Pixkanaka, zesta punta izenez ezagutzen hasi zen modalitatea Buenos Airese-  
sen egonkortzen hasi zen, nahiz eta Euskal Herrian ez zen 1894 urtera arte aurkeztu. Donostiak jaso zituen egin-eginean lehendabiziko *mauseristak*, adituen kritika zorrotz eta gogorren artean. Ostera, al-  
diz, eta hasierako errefusek hartutako bidearen kontra, zesta punta pilotari gazteen artean hedatu zen. Horietako askok eta askok Ameriketara joatea zuten helburu, pilotan jokatu eta dirua irabaztera.

Urteen buruan erretiratu bazen ere, Guruceagak bizitza guztia eman zuen frontoietan. Izandako seme-alaben artean sei puntista profesionalak izan ziren, eta aitaren legatua munduan zehar zabaltzea lortu zuten. Horren adibide izan ziren, besteak beste, Egipton, Manilan, Mexikon eta Cuban eraiki zituzten

frontoia. Beste euskal modalitate batzuekin gertatutakoaren aurka, zesta puntak arrakasta handia izan zuen nazioartean.

Egun, bere heriotzaren hirurogeigarren urteurrenean, bada herrian zesta puntaren sugarra berpiztu nahi duen norbait. Jagoba Narbarte (Errenteria-Orereta, 1992), Guruceagaren antzera, geldiezina zen txikitan, eta hamar urte zituela, aita zesta puntan hasteko konbentzitu zuen, 2002an telebistan emandako Mundialak hamar urteko mutikoa lilurtzea lortu ondoren.

Donostiako Balda eskolan eman zituen lehen urratsak Narbartek, herrian zestan ibiltzeko baliabiderik ez zegoela eta. Laster lehen partidak jokatu zituen adin txikitan eta etorkizunean, Estatu Batuetan lehiatzeko helburua jarri zion bere buruari.



Jagoba Narbarte Dania Beacheko frontoian.

Urteetan ibili da entrenatzen gazte erreteriarra. Hamasei urte zituela, Kepa Urdanpilletarekin hasi zen entrenatzen Lasarteko frontoi txiki batean. Hark Ameriketara izandako esperientzia baliatuz Jagobaren akatsak zuzentzeko apustua egin zuen. Ez zen bide samurra izan, baina amateur mailan lehiatu ondoren, 2015ean profesionaletan jokatzeko lehen aukera suertatu zitzaion Narbarteri. Manex atzelari irundarrarekin batera, Goikoetxea eta Garitaren aurka jokatu zuen. Emaitza ziur aski anekdotikoa da egun, 30-22 galdu zuten. Partidaren ondorioek, ordea, munduaren beste aldean izan zuten eragina. Izan ere, Jagobak Dania Beacheko frontoiko zuzendariaren deia jaso zuen. Sei hilabeteko kontratua eskaini nahi zion. Antza, bere arbasoen antzera, bere patuak Ameriketara jokatzeko nahi zuen.

Gaur egun, herriko gaztea munduko pilotari onenen artean dugu, sinbolismoz beteriko historia baten bigarren atala idazten. Hasi besterik ez da egin, baina jada neurria hartzen ari zaio pixkanaka. Jokoa ezberdin dago egituratuta. Egunero jokatzeko dute, astelehenean larunbatera, eta kiniela formatuan jokatzeko dute. Bikote ezberdinek hartzen dute parte, tanto bakarrera, batek huts egiten duenean, hurrengo bikotea ateratzen da; horrela, bikote batek zazpi tanto lortzen dituen arte.

Zesta puntaren egoera asko aldatu da azken urteetan. Estatu Batuetan gehienbat. 80ko hamarkadako greben ondorioz, frontoiek beherakada nabarmena izan zuten Jai Alai izenez ezagutzen den kirolean. Lehen 10.000 pertsona zeuden lekuan, orain 200 bat gerturatzen dira pilotalekuetara. Bestalde, Euskal Herrian ez bezala, frontoia kasinoen barruan daude.

Garai berriak dira zesta puntarentzat, baita Euskal Herrian ere. Baina, aitzina bezala, gure herriko puntistek atzerrian aurkitzen dute beren babeslekua. Pilotaleku luze gutxi dago zesta ibiltzeko, eta gehienak gainera, Bizkaian daude. Horregatik, beti da pozgarria horrelako historiak idatzi ahal izatea. Garrantzitsua, bestetik, gazte baten ametsak irudikatzen dituelako, eta baita, Guruceagaren testigua hartuta, euskal kirol honen iraupenari ekarpen nabarmena egiten ari zaiolako ere.

Gurean harro egoteko, ordea, badugu zer hobetu. Izan ere, zesta puntan jokatu ahal izateko baliabideak falta dira herrian. Jagobak ere bere bidean oztopoak aurkitu zituen. Egun bi pilotaleku estaliak badira ere, ez dago zesta ibiltzeko sarerik, ezta material egokirik. Horrek gazteak aukera gabe uzten ditu kirol modalitate honetan hasteko eta bestelako kirolen aldeko apustu egiten dute.

Zesta punta erreteriar batek asmatu zuen. Urteetan gainera, herriko pilotari andana eman zituen: Guruceaga, Samperio, Goenaga, Echeveste, Elicegui... Orain, hamarkada askoren ostean, herriko gazte batek, txikitako ametsa bete nahian, Ameriketara egin du bidaia. Hortaz, bada herrian baliabideak sortzeko garaia, badugu norengandik ikasi.

---

# Fábrica de rosarios La Milagrosa

A pesar de vivir en lo que en su día se denominó por su capacidad industrial “la pequeña Manchester”, hoy cualquier parecido con aquella realidad sería irrelevante. Errenteria y sus gentes siguen descubriéndome novedades, detalles, anécdotas y vivencias que, por una u otra causa, desconocía.

José Ángel Rodríguez Medina



Mostrario del material realizado en *La Milagrosa*.

Del contacto con los vecinos he conocido la existencia en la villa de dos fábricas de rosarios. Una era la de la familia Nogués, denominada primero como *Francisco Nogués* y luego como *Eduardo Nogués*. Estaba ubicada en el solar que hoy ocupa la parroquia de Fátima. La otra fábrica fue constituida hacia 1940 y se denominaba *La Milagrosa*, cuyo fundador fue Ignacio Gaztelu-

mendi. Estaba situada en la calle Miguel Alduncin nº 16, junto a la casa Hiru Etxe.

Las personas que me han descrito y facilitado información sobre esta actividad eran trabajadoras de *La Milagrosa*, pero quien ha sido la artífice de ello y que ha conseguido reunirnos es Consuelo Zabaleta Galarraga.



Máquina que se utilizaba en la fábrica *La Milagrosa*.



Todo comenzó por casualidad el día en que Consuelo me solicitó si podía contactar con responsables del Ayuntamiento para ver si podrían tener interés por quedarse con una máquina que estuvo ubicada en la que fue la fábrica de rosarios *La Milagrosa*.

Esto me llamó poderosamente la atención, ya que nunca había oído hablar de ello y enseguida me entusiasmé por conseguir información y poder realizar, si era posible, un pequeño artículo.

En 1903, en el mes de septiembre en un artículo del ABC bajo el título "Una exposición en Rentería" se decía entre otras cosas lo siguiente; *"... pero, los que conocen Rentería por otros detalles ignorarán sin duda, que es el pueblo más industrial de España, y que casi puede afirmarse que del mundo, porque ni en Suiza, ni en Alemania, ni en Bélgica, ni en los Estados Unidos, habrá, probablemente, un pueblo, tan pequeño por su extensión y por su población, que tenga establecido el número de industrias que cuenta Rentería. De su prodigioso desarrollo industrial acaba de hacer gallardo alarde."* En esos años en el listado industrial de la exposición, ya aparecía la Fábrica de Rosarios de D. Francisco Nogués.

En 1954 se celebró en la villa el "II Muestrario Industrial" sin la presencia, por su desaparición, de algunas de las industrias que participaron en la anterior exposición. En este nuevo listado, muy superior al de 1903, ya aparece la Fábrica de Rosarios *La Milagrosa*.

Esta pequeña pero puntera fábrica, durante los años que mantuvo la actividad, realizó miles y miles de rosarios que llegaron desde nuestro pueblo a muchísimos rincones del mundo, ya que eran muy solicitados por su buena calidad y variedad, extendiéndose su uso por misiones y congregaciones religiosas, colegios, grandes almacenes... lo que conllevaba un continuo ir y venir de viajeros con sus muestrarios representando a diferentes empresas, entre las que destacaba El Corte Inglés. Se compraban también para comuniones, suvenires y romerías, donde podías encontrar vendedores en las de San Marcos, Guadalupe, Santiagomendi... Asimismo, era material muy apreciado en santuarios (como el de Fátima, Lourdes o Guadalupe), extendiéndose por todos ellos así como por monasterios o casas religiosas.



Troqueles y medallas que se utilizaban en la fabricación de los rosarios.

La fábrica, hasta septiembre de 1971, fue dirigida por su fundador Ignacio Gaztelumendi. Al fallecer éste pasa a llevarla D. José Zabaleta, junto al que trabajaron sus hermanas María del Carmen y María Teresa. En la misma trabajaban 12 operarios de los que la mayoría eran mujeres. Pasaron por dicha fábrica muchas personas, manteniéndose siempre el mismo número total de plantilla. Pero, además, muchas familias de la villa se dedicaban en sus casas a realizar los rosarios, superando en muchos momentos el número de 30 familias en esta situación, más las monjas Agustinas de Erretería y Astigarraga. Se les facilitaba el material y por cada 6 docenas que harían venían a ganar unas 6 pesetas.

Se trabajaba de lunes a sábado de 08:00 a 12:00 y de 14:00 a 16:00. A partir de la edad de 14/15 años de aprendices en las categorías 1ª, 2ª, 3ª o 4ª categoría, pero hasta la edad de 18 años no se tenía un sueldo base.

Según me cuentan, muchas mujeres trabajaban indirectamente para las fábricas del pueblo. Montaban pequeños talleres caseros en los que arreglaban y/o fabricaban multitud de productos que los pedían directamente a las fábricas como alpargatas, calzoncillos, gabardinas, trajes, mantelerías, sombreros, rosarios... con lo que ganaban un dinero que venía muy bien en aquellos años para el sustento familiar.

El material que se utilizaba principalmente era la madera de boj que se traía de Navarra, también pepitas de algarroba, perlas de latón que se bañaban en plata, perlas de cristal de diferentes colores, así como de plata y nácar.

La fábrica contaba con diferentes máquinas para realizar el proceso, había prensa, cortadora, troqueladora, sierra, perfiladora... Con la madera de boj se hacían arandelas y las mismas se manipulaban para realizar las perlas, después se teñían, se pulían y con cera se conseguía que cogieran brillo. Igualmente se montaban las cruces, estampas y corazones de filigrana.

Muestrario del material realizado en *La Milagrosa*.



Recuerdan que trabajaban con varias empresas como Cartonajes Limousin para los embalajes, Nueva Montaña Quijano para el alambre, Joyería Santa Cana para perlas y filigranas, la Empresa Estatal de Metales Preciosos para la plata y alguna más que tenían dudas por lo que no podían asegurarlo.

Con el fallecimiento de D. José Zabaleta, el 1 de diciembre de 1989, esta fábrica tuvo que reorientar su fabricación para mantenerse en el mercado, ello fue debido al descenso de demanda de rosarios que comenzó paulatinamente a caer tras el Concilio Vaticano II (curiosamente se reconocía que con la República se vendían muchísimos rosarios). Se empezaron a fabricar batidoras de hacer clara, figuras de hierro en varios tamaños, por ejemplo del Quijote o Sancho Panza, o vidrieras, adaptándose a las diferentes demandas que se imponían en cada momento y que con la maquinaria que tenían podían realizar. Igualmente se hacían trabajos de prensa para diferentes empresas de Errenteria.

Según iban contándome surgían vivencias, anécdotas e incluso accidentes, pero lo que se podía comprobar era que los años pasados en la fábrica los recordaban como muy intensos y armoniosos. Me contaban que

con una moneda de 5 pesetas de plata se hacía un rosario o que las primeras bolas para el sorteo de la Lotería Nacional, que fueron de perlas de boj, se hicieron en esta fábrica. Que para conseguir los metales preciosos tenían asignado por el gobierno un cupo mensual o que había alambre para los rosarios de dos tamaños y para las perlas de tres.

Recordaban perfectamente cómo una vez hubo un accidente al descargar el camión que traía las garrafas de ácido sulfúrico. Una de ellas se rompió y el ácido quemó a varios trabajadores en los pies. O que para darle al latón el baño de plata se utilizaba además del ácido sulfúrico, el cianuro y el nitrato de plata mezclados en determinadas proporciones y los secaban con serrín de madera de boj...

Fue una agradable charla donde, entre risas, fue surgiendo información y gracias a ello he conocido, no sólo esta fábrica, sino su devenir y su importancia en la economía de las familias y en la industrialización de aquellos años en nuestra villa. Así se ha dado lugar a este artículo para que al menos se recuerde esta fábrica y los rosarios de Errenteria que se extendieron por el mundo.

---

Troqueles y medallas que se utilizaban en la fabricación de los rosarios.





---

# Jose Cruz Sarasola Mitxelena nire lagun handiari nire sentipenen kutxaren barruan

Laguna galtzen dugunean ezinbestekoa da nahigabea  
edo atsekabea sentitzea.

---

Jose Luis Insausti Urigoitia

Laguna galtzen dugunean ezinbestekoa da nahigabea edo atsekabea sentitzea. Egunak bizitasunik gabeko bihurtzen dira eta ez dugu gogorik izaten gure jarduerak burutzeko, batez ere beste mundurantz joan dena gure lagun leial bat bada.

Ez dago gehiago suntsitu gaitzakeena maite dugun norbait hiltzea baino. Izan ere, bera falta dugunean ulertzen dugu heriotza baino ikaragarriagorik ez dagoela, eta irekitzen den oinaze zauria oso zaila dela osatzea.

2016ko apirilaren 6an, Jose Cruzen heriotza uste-kabeko berria izan zen. Hunkitu egin gintuen, sinagogortasun eta oinaze sakon baten nahasketa sentiarazi zigun. Jakin badakigu gutako bakoitza ibilbide laburreko bidaiari garela mundu apetatsu baina zoragarria ere baden mundu honetan, eta tarteka erabat ankerra ere bai. Hala dela, jotzen dugun guztia kartazko gaztelua bezala eror daiteke egun batetik bestera. Horrelako gorabeherak aipatzen genituen askotan geure artean.

Nire ustez, oso pertsona berezia eta egundoko bizitza adibide izan zinen guztiontzat. Lagun arteko harremana 1974. urtetik eratu genuen, eta ez zait



sekula ahaztuko. Adiskidetasun huts-hutsa izan zen, urte mordoa iraun zuena, heriotzak soilik banandu ahal izan gaitu eta.

Baina lerro hauek idazteko unean gurekin ez bazau-  
de ere, bertan jarraitzen eta jarraituko duzu bizirik  
nire oroimenean eta bihotzean.

Lagun hori, agur esan gabe joan zinen. Atzean utzi  
zenituen bizi izandako une haiek eta elkarrekin bi-  
zitzeko falta izan genituenak. Borroka oso zail haiei  
aurre egin genien, barrez ere lehertu ginen une alaiak  
gozatuz. Den den, malkoak ezinbestekoak dira, zu  
joan egin zara eta. Ez dago erremediorik, nire arima  
zimurtu egiten da zure agurraren isiltasun hotzaren  
ondorioz.

Joan egin zinen, guztiok egunen batean egingo du-  
gun bidean barrena, baina, agian, azkarregi izan zen.  
Beharbada, beste munduak zure alaitasuna behar  
zuen barrez betetzeko zerua deitzen dugun leku hori.  
Gaur zure arima han bertan dago eta zure bihotzak  
gure artean jarraituko du.

Ez zaitut estutuko gaur zu joateak eragin digun su-  
frimenduaz hitz egingez, eta zure familiartekoen eta  
lagunen artean utzitako hutsunea nolakoa izan den  
ere ez dizut kontatuko. Bizi zinela antzeman zenuen  
zuri genizun maitasunaren handitasuna, eta orain  
zauden lekutik ondorioztatu dezakezu zu joateak  
eragin digun oinazearen bizitasuna. Beraz, artikulu  
hau bideratuko dut gure elkarrizketen hizkera be-  
rean, hau da, zuzena, xehea, argia, erlaxatua eta ze-  
hatza izango da, zuk gogoko zenuen bezala.

Lehenik, argitu behar dizut jarraian idatziko dudana  
ez dela soilik lagun bati egindako omenaldia, baizik  
eta bete beharreko eginkizuna. Izan ere, uste dut gi-  
zarteari denok transmititu behar dizkiogula joaten  
zaretenon lekukotza biziak eta adibide eredugarriak,  
zuen bizitzak oinarritu dituzuenean etikaren eta ba-  
lioien sakontasunaren haritik. Agintzen dizut nire  
hitzetan ez dela izango esajeraziorik. Idatzi baino  
gehiago, zuk ekintzekin idatzi zenuena soilik hitze-  
tan transkribatuko dut. Egin dezakedan omenaldirik  
onena da zure eredia erabilgarria izan dela erakus-  
tea.

Jose Cruz Erreterian jaio zen, eta beti bere herria-  
rekin konprometitua egon zen. Zenbat aldiz "behar-  
turik gaude gure herriaren historia berreskuratzen,  
ahaleginak egin behar ditugu dokumentatzen eta  
idatzirik uzten" esaten zuen. Sentipenezko hitz ho-  
riekin beti animatzen ninduen idaztera, uste zuelako  
kultur aurrerapauso handia izango zela gure herria-  
rentzat.

Hil zen egunaren bezperan hizketan aritu ginen ha-  
sita genuen proiektu interesgarri bati buruz. Adierazi  
nion biharamunean Madalena Basilikaren historia-  
ren liburua aurkeztuko nuela nik, eta zorionak eman  
zizkidan. Jose Cruz eta Miren emaztea Maria Mag-  
dalenaren Lagunak Kultur Elkarteak basilikan anto-  
latzen genituen kontzertuetara joaten ziren. Berak  
basilikan egindako lana eskertzen zigun eta adorea  
ematen zigun aurrera ekiteko.

Oraindik gogoan dut nire bizitzaren parte izaten hasi  
zinen eguna. Hasieran ez nuen pentsatu horren be-  
rezia izango zenik, edozein unetan ondoan izan ne-  
zakeen laguna, alegia. Adin aldea ez zen oztopo izan  
gure arteko adiskidetasuna gero eta handiagoa izan  
zedin. Zurekin barre egitea erraza zen, eta adina  
zenbakia besterik ez zen.

Ezagutu zintudan moduan ez zen beharrezkoa ezer  
esatea gauzaren bat gertatzen zela jakiteko. Zure  
ondoan igarotako momentuak egundoko esperien-  
tzia izan ziren eta nire oroimenean betiko geratuko  
den oroitzapena izango da. Izan ere, inoiz ez dut  
ahaztuko, nire iritziz, gure herrian lan-, gizarte-, kul-  
tura- eta politika-arloetan historia egin zuen norbait.  
Mila esker zurekin bizi izandako une horiengatik.

Jose Cruzek frankismoaren aurka sortutako ekintza  
guztietan jardun zuen. Polizia atzetik segika izaten  
zuen, kartzelatua izan zen, familia ondasunak eta  
bereak lapurtu zizkieten; alabaina, gorabehera ho-  
riek guztiek moldatu zuten Jose Cruzen bizitza eta  
izaera. Bera beti "galtzaileen alderdiarekin" zegoen  
lerrokaturik. Beti erakutsi zituen bere konpromisoa  
eta militantzia, eta abertzalea eta euskalduna sen-  
titzen zen.

Ezagutu zintugunok beti jakin genuen pertsonaren  
irudiaren atzean bazela, nire ustez, behintzat, egun-

doko arima, eta hala zela erakutsi zenigun sarritan gai korapilatsuetan. Esan beharra daukat, eta hala sentitzen dut, pertsona ikaragarria izan zinela, lagun deitu ahal izateko harrotasun handiena.

Askotan jarduten genuen bizitzan barrena zure iragiteaz hala nola nireaz, eta kontuan hartuta gure artean zegoen adin aldea handikeriaz jardun beharrean, behin baino gehiagotan adierazi bezala, apala izatea nabarmentzen zenuen. Apala izateak ikas-tera zaramatza, eta paradoxikoki, zu maisu bihurtu zintuen eta ni ikasle. Nire nahia da lerro hauek balio izatea hilondoko omenaldia eskaintzeko, hau idazten duenaren aldetik, ohoratua, laketua era harro-harro zu ezagutu izanaz sentitzen bainaiz.

Zure heriotzak tristura handia eragin zigun eta zure hutsunea ezingo du inork bete. Beti lagun zintzoa izan zinen, eta gainerako guztiei laguntzeko prest. Mundu honetatik barrena gure iragaitea laburra da eta egunen batean gure arimek elkarrekin topo egingo dute. Duela urte bat zure arima beste mundura abiatu zen, baina gu guztion bihotzean bizi zara. Eta hauxe da esker oneko oroitzapena Jose Cruz nire lagunaren alde

Adio nire lagun handiari.

*Beti gogoan izango zaitut!*

Eskerrak horrenbeste urtetan izandako une haiengatik guztiengatik. Une haiek konpartitutako sentimenduak eta pentsamenduak, ametsak eta desirak izan ziren, sekretuak, barreak eta malkoak eta, batez ere, gure adiskidetasuna. Minutu bakoitza bihotzean betiko iltzaturik geratuko da.





# Robinson desconectado

Voces expertas nos informan de que, a pesar de las apariencias, entre los usuarios de Internet hay un mayor interés en la comunicación que en la búsqueda de información.

Es un hecho que vivimos en una sociedad que tiene horror a la soledad mientras que la padece más que nunca, que huye del silencio relacionándolo con el aburrimiento que confunde vacío con nada



Mariasun Landa

Es decir que, muchas personas que se conectan a la red y actúan como usuarios activos dentro del sistema tienen, sobre todo, un objetivo fundamental: establecer comunicación con otras personas. Esta necesidad y profusión de relaciones sociales que aluden a la plaza pública en la que se ha convertido Internet, no deja de plantearnos muchos interrogantes. En esta ocasión, a mí me ha llevado a repensar la soledad del ser humano, la intrínseca, la inevitable.

Y Robinson Crusoe ha venido a mi mente como paradigma incontestable, en nuestro imaginario colectivo, de la supervivencia del ser humano ante la naturaleza y la soledad absolutas.

El protagonista de la novela del siglo XVIII de Daniel Defoe naufraga, se da cuenta de que es el único superviviente en una isla ignota, y debe enfrentarse a algo que la humanidad temió desde sus comienzos: la ausencia de comunidad, de tribu, de grupo, la ausencia de los otros ante la todopoderosa naturaleza. Es varón, blanco, inglés, comerciante y tiene al único y verdadero Dios de su parte. Vuelve a los restos del barco consiguiendo salvar, entre otras cosas, comi-

da, armas y pólvora. Se construye un refugio que irá llenando con muebles rudimentarios y erige una cruz donde inscribe la fecha de su llegada, 1 de septiembre de 1659. A partir de entonces, hará una marca en la madera por cada día que pase para no perder la noción del tiempo. Cuando le rescatan sabe que ha estado en la isla veintiocho años, dos meses y diecinueve días. Robinson Crusoe está solo en medio de la naturaleza y teniendo que ejercitar sus capacidades para sobrevivir.

Todas estas aventuras y empeños fueron, sin duda, lo que motivó su gran éxito en la época en que fue publicado y, más tarde, contribuyó a que los jóvenes hicieran suyo este libro convirtiéndolo en una obra clásica de la Literatura Juvenil. Pero, es evidente, y así fue entendido en su tiempo, que Robinson Crusoe es mucho más. La supervivencia y la autogestión es sólo una parte del tema. Es el triunfo del ser humano contra las fuerzas de la naturaleza y de la persona humana enfrentada a sí misma, a su libertad y sobre todo a su soledad. Ver qué pasa cuando lo superfluo desaparece y queda lo esencial. La idea de que el protagonista es el único dueño de su destino, por muy incierto que sea y de que no enloquezca sin tener contacto humano, sigue siendo muy evocador para cualquier persona que lo lea. Porque el reto al que se sometió no sólo era la inmensa y terrible naturaleza sino también su propia soledad.

En realidad, ¿podemos vivir solos? ¿La idea del ser humano enfrentándose y dominando a la naturaleza es posible? Sí, hay algunos casos. Pero en nuestro ADN está inscrita la necesidad de LOS OTROS, sin la que hablar de un YO no tendría sentido. En esta época donde Internet ha amplificado de manera espectacular nuestras relaciones sociales en diferentes áreas de la vida cotidiana, en diversas profesiones y niveles educativos, nos encontramos con que la Ciber-plaza, puede ser tanto la ocasión de una extensa intercomunicación, una democratización de la cultura de discusión y debate, como un reducto de conductas abusivas, agresivas, dañinas o difamatorias fuera de todo control.

Pero volvamos a Robinson Crusoe. Tienen que pasar seis años antes de que descubra varias huellas de pies de hombre en la arena. ¡Otro ser humano! Lo salva de

los caníbales que lo habían apresado. Y encuentra, por fin, alguien a su lado. En primer lugar, le hace saber que su nombre será Viernes, que era el día en que le había salvado la vida. También le enseñará a decir amo, y le informará que como tal tendrá que tratarle.

Así pues, nuestro más célebre naufrago toma al OTRO como sirviente o esclavo, le enseña a hablar inglés y algunos conceptos del cristianismo. *Le bon sauvage*, agradecido, le muestra su total sumisión. Lo hace suyo, intenta domesticarlo, lo esclaviza, a cambio de tener un interlocutor a su medida. Aunque es verdad que, en el transcurso de los años, la relación parece ir transformándose en una entrañable amistad entre dos hombres. Sí, pero nunca una relación *inter pares*.

Si el naufragio hubiera ocurrido en nuestra época, y Robinson hubiera podido rescatar de los restos del barco su portátil, o su teléfono, o su tablet... cualquiera de los medios actuales que nos permiten conectarnos con el resto del planeta, hubiera podido gozar de radio, TV, prensa, cine, libro, teléfono, correo, lugar de encuentro, compra, venta, intercambio y hasta relacionarse con otros naufragos de lejanas islas. Su soledad sería relativa o distinta ya que interactuaría a escala mundial y esto sin dependencia del tiempo ni del espacio.

Pero estaba desconectado.

Nosotros, en cambio, estamos la mayor parte del tiempo conectados, muy pero que muy conectados. Nos damos a conocer en la plaza del pueblo virtual, nos paseamos para ver y que nos vean, buscando amigos Viernes pero quizás también esperando enemigos, caníbales, piratas, oscilando entre el deseo de ser amos o sumisos esclavos. Gente que nos llegará a conocer sin que sepamos nada de ella, mientras que nosotros también conocemos la vida de otros tantos sin tener ninguna relación con ellos, porque nuestra necesidad de conexión, más que de comunicación, es ya irrefrenable. Contactos, empleos, negocios... pero también estafas, robos y acoso.

Como he mencionado anteriormente, algunos expertos afirman que hay un mayor interés en la comunicación que en la búsqueda de información. Sin negar


la curiosidad intelectual, las motivaciones profesionales y académicas de los usuarios de Internet, este mundo sin fronteras, con culturas, valores, principios y costumbres distintos, es vivido como un campo de posibilidades interpersonales. La posibilidad de pertenecer a una comunidad virtual de ámbito mundial que comparta temas de interés común, y en la que se generan vínculos afectivos entre sus miembros, es muy seductora, crea adicción.

Pero no me parece banal que Robinson Crusoe, a pesar de sus intensos deseos de compañía recele de su nuevo compañero. El OTRO es una necesidad pero también un TEMOR. Un refugio y una amenaza. La salvación y la muerte. Así también en la isla virtual, las cosas quizás no son tan diferentes, ni la situación del internauta es tan abismalmente opuesta a la de Robinson. Cuando navega por el océano telemático, busca cómplices, interlocutores, y cuando los encuentra crea nuevas formas de comunidad que desafían los límites de la territorialidad. Pero sólo provisionalmente le salvan, en el más afortunado de los casos, de la soledad.

Y a la soledad de Robinson quería llegar, en este puente más intuitivo que otra cosa que ha establecido mi mente entre Robinson Crusoe e Internet.

¿Nos sentimos menos solos conectados? ¿Cómo es la calidad de nuestra comunicación humana? Es un hecho que vivimos en una sociedad que tiene horror a la soledad mientras que la padece más que nunca, que huye del silencio relacionándolo con el aburrimiento, que confunde vacío y nada. Cuando Blaise Pascal escribió aquello de que "todas las desgracias del hombre se derivan del hecho de no ser capaz de estar tranquilamente sentado y solo en una habitación." no pensó en que ese ser humano podía estar conectado. Porque es evidente que a la soledad a la que se refería no era la física, sino aquella consustancial del ser humano, origen de sus angustias pero también de sus logros. *"No la aventura del hombre lanzado a la conquista del mundo exterior sino la aventura del hombre que explora los abismos cuevas de su propia alma"*, como diría Ernesto Sábato.

Me temo que se puede estar muy conectado pero muy solo.





# Gernika: hil kanpaiak hildakoen oroimenez

Koldo Ordozgoiti

Gernikako bonbardaketaren 80 urte bete diren honetan, Zalloko hilerrian, Gernikan zortzi hamarkada lurperatuta ezkutuan izan diren 82 gudarien berria iritsi zaigu, horien artean Errenteria eta Pasaiako gudarien izenak.

ERRIAGAITIK HILD  
OROIMENEZ

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa.—10 <sup>ga</sup> ren zenbakia.—1930 <sup>gn</sup> . urilak 18 75 <sup>en</sup> ofialdea	
<b>Diario Oficial</b> del <b>País Vasco</b>	<b>Euzkadi'ko</b> <b>Agintaritzaren</b> <b>Egunerokoa</b>
Dirección y Administración: Diputación de Bizcaya. Suscripción: 40 pesetas semestres. Ejemplar suelto: 25 céntimos.	Zuzendaritza eta banakaritza: Bizkaya'ko Aldundia'n. Apirio: 40 laurteko sei ilabeterako. Zenbaki bakoitza 25/100.
<b>Sumario</b>	<b>Arkibidea</b>
<p>1.—DEPARTAMENTO DE DEFENSA.</p> <p>Decreto ordenando la movilización de todas las clases e individuos de tropa pertenecientes a los alistamientos de 1932, 1933, 1934 y 1935.</p> <p>Decreto estableciendo un uniforme para las Milicias populares que sustituir al amado «mones».</p> <p>Decreto estableciendo una zona de guerra afecta a la línea de combate.</p> <p>Decreto ordenando la militarización de las industrias o trabajos que tienen finalidades de guerra.</p> <p>2.—DEPARTAMENTO DE TRABAJO, PREVISION Y COMUNICACIONES.</p> <p>Decreto constituyendo la Organización mixta Profesional de esta provincia.</p>	<p>1.—GUDA ZAINGOA.</p> <p>Oroagindua. 1932, 1933, 1934 eta 1935 urteetan gudari ziran mutilak gudariu bear dutela agindua.</p> <p>Oroagindua. Efi-gudarietaz janzki berdiña aukeratuaz, mono area orde ezabilta izan dedin.</p> <p>Oroagindua. Su lekuko inguruak, guda-tokitzat artuaz.</p> <p>Oroagindua. Gudari dagozkion gintza lanak gudaizteko agindua.</p> <p>2.—LANA, AURBEGIRAMENA ETA ERAMAN-EKARI ZAINGOA.</p> <p>Oroagindua. Nagusi Langileen Epailletza erki ontan eratuaz.</p>
<b>Departamento de Defensa</b>	<b>Guda Zaingoa</b>
<b>DECRETO</b>	<b>OROAGINDUA</b>
<p>En conformidad con el Decreto del Ministerio de la Guerra de la República Española, de fecha 29 de septiembre último, adaptándolo a las circunstancias y necesidades propias, de acuerdo con el Consejo del Gobierno Vasco, vengo en decretar lo siguiente:</p> <p>Artículo 1.º Se ordena la movilización de todas las clases e individuos de tropa pertenecientes a los alistamientos de 1932, 1933, 1934 y 1935 que se encuentren actualmente dentro del territorio sujeción a la jurisdicción del Gobierno Vasco.</p> <p>Artículo 2.º Quedan exceptuados de esta movilización todas aquellas clases e individuos de tropa incorporados a las milicias organizadas para el frente de batalla, a no ser que hayan servido en los Cuerpos de Artillería, Ingenieros, Intendencia o Sanidad. Los que hayan servido en estos Cuerpos verificarán su incorporación en los lugares que se señalarán oportunamente.</p> <p>Se acreditará la condición de miliciano por declaración sucinta del jefe militar correspondiente.</p> <p>Artículo 3.º Los incorporados serán sometidos a reconocimiento cuando alegaren alguna causa de inutilidad, aunque hubiere sido alegada y estimada en su día. Asimismo, se resolverá si habrán de volver</p>	<p>Erkalaren Guda Zaingoak, joan dan agoteko 29'an eman zuten oroagindua ontzat emanda, gure inguruko beaen arauz tajatzen degulatik, ona zer agintzen dedin:</p> <p>1.º go. atala. 1932, 1933, 1934 eta 1935'gairetan gudartza bete eta Euzko-Jaurlaritzaren mendeko lufaldean arkitzen diran mutilak gudariu dituzela agintzen da.</p> <p>2.º en atala. Gaurko efi-gudari diran mutiloi ez dagozkie gudariu bear ori bai ordea Artillería, Ingenieros, Intendencia edo Sanidad gudari-taldetan len gudartza bete bazuten. Oiek, dagozkionan adieraziko dan lekuetan gudariuko dira.</p> <p>Efi-gudari dala egiztuzteko, Gudari-taldeko Buruzagiaren aitortpena eskatzen da.</p> <p>3.º en atala. Gudartzarako gai ez dirala aitortzen duten mutilak ikustatuaz, gurego dira, naiz lengo gudartizan beren aitortpena ontzakotzat artua izan.</p>

## Errenteriako gudariak

**Jose Alvarez Rodriguez**, 24 urte. Errenteria. Saseta batailoia. Heriotza lekua eta data: Elgetako guda-oina; 1937-04.

**Mariano Gomez Elizondo**. Errenteria. Itxarkundia batailoia. Heriotza lekua eta data: Aramaio guda-oina; 1937-04-21.

**Enrique Marticorena Otegui**, 19 urte. Errenteria. Itxarkundia batailoia. Heriotza lekua eta data: Amorebieta ospitalea, 1937-01-03.

**Hipolito Tolosa Urreta-bizcaya**. Errenteria. Itxarkundia batailoia. Heriotza lekua ezezaguna, data: 1936-12-29.

**Juan Quiroga Dieguez**. Errenteria. Saseta batailoia. Heriotza lekua eta data: Elgetako guda-oina, 1937-04.

**Francisco San Vicente Olalde**, 25 urte. Errenteria. Ogibidez jornalari. Loyola batailoia. Heriotza data eta lekua: Ubideko guda-oina, 1935-12-03. Bala zaurien ondorioz hila. Erregistro data: 1936-12-04.

## Pasaiaiko gudariak

**Julio Alzua Goicoechea**, 24 urte. Pasaia. Loyola batailoia. Heriotza lekua eta data: Urduñako guda-oina, 1936-12-12. Bala zaurien ondorioz hila. Erregistro data: 1936-12-12.

**Luis Basurko Aguirregomezkorta**, 22 urte. Pasaia. Loyola batailoia. Heriotza lekua eta data: Urduñako guda-oina, 1936-12-11. Bala zaurien ondorioz hila. Erregistro data: 1936-12-12.

**Jose Elberdi**. Pasaia. Ogibidez nekazaria. Loyola batailoia. Heriotza lekua eta data: Legutioko guda-oina, 1936-12-01. Bala zaurien ondorioz hila. Erregistro data: 1936-12-03.

Ez gara garaiz ibili 2017ko Oarso hau argitaratzen denerako ditugun izen hauen ondorengo historiak argitzeko, ezta haien familiartekoengana iristeko ere. Datorren urteko Oarso aldizkarian honen gaineko artikulua zor dugu eta zuri irakurle, hildako hauen ahai-dea bazara edo hauen berri bazenu, eskertuko genizuke informazioa <sup>1</sup>.

Hauk dira Errenteriako eta Pasaiaiko gazteak, Euzko Gudarosteko EAJ-PNVren Itxarkundia, Loyola eta Saseta batailoietako gudariak, guda-oinetan zauritu eta hildakoak, eta lauogei urtez Gernikako hilerrian ezkutuan ehortziak egon direnak eta aurtendik aurrera bere lekua, izen eta abizenekin, izango dutenak Zalloko hilerrian, Gernikako bonbardaketaren hildakoak hartzen duen kanposantu berean. Guztion oroitza ekitaldia Gipuzkoako Ahdun Nagusia Markel Olano buru zuela hildako gudarien familien partaidetzarekin ekainaren 17an burutu zen Gernikako hilerrian.

<sup>1</sup> oarso@errenteria.eus

**Jose Oyarbide Elorza**, 26 urte. Pasaia. Ogibidez enplegatua. Loyola batailoia. Nafarrateko guda-oina, 1936-12-02, Bala zaurien ondorioz hila. Erregistro data: 1936-12-04.

**Francisco Prieto Puertas**, 30 urte. Pasaia. Loyola batailoiko kapitaina. Heriotza lekua eta data: Urduñako guda-oina, 1936-12-11. Bala zaurien ondorioz hila. 1936-12-12.

**Pedro Segurola Egua**, 21 urte. Pasaia. Loyola batailoia. Heriotza lekua eta data: Urduñako guda-oina, 1936-12-11. Bala zaurien ondorioz hila. 1936-12-12.


## Gernikako hilerrian ezkutuan lurperatuta izan diren gudarien gorpuen historia

Gerra hasieran, Eusko Gudarostea izena (Euzko Gudarostea garaiko grafian) Eusko Alderdi Jeltzalearen miliziarri zegokion, Euskal Estatutua onartu ondoren izen hori hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren menpeko gudarosteak eta bertan integratu ziren Errepublikaren alde borrokan ziren milizia guztiak.

Irailaren 25erako elkartzea egin zen eta 1936ko urriaren 7an, Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatzearekin eta Eusko Jaurlaritza sortzearekin batera, Jaurlaritzaren mende geratu zen Eusko Gudarostea, Defentsa Sailari atxikita. Jose Antonio Agirre, Lehendakaria izateaz gain, Defentsa sailburua ere bazenez, Eusko Gudarostea bere esanetara zegoen. Hala ere, lehendakariak Joseba Rezola Arratibel izendatu zuen Defentsako Idazkari nagusi, eta ondorioz azken honek izan zuen Eusko Gudarostearen aginpide zuzena.

1936ko urriaren 18an, Eusko Jaurlaritzak bere esku zegoen lurraldean lau kinta soldadutzara deitu zituen eta lehena-gotik boluntario borrokatzen zeudenei gehitu zitzaizkien.

Eusko Gudarosteak 80 batailoi izan zituen, Errepublika eta Eusko Jaurlaritza babesten zuten alderdi eta sindikatuek antolatutako batailoiak, era honetara: Eusko Alderdi Jeltzaleak, 28 batailoi izan zituen; PSOE-k eta UGT-k, 13 batailoi; JSU (gazteria sozialista batuak), 9 batailoi; Euskadiko Partidu Komunistak, 8 batailoi; CNTk, 7 batailoi; Izquierda Republicanak, 7



EAJren Zalloko kanposantuko lur saila zegoen tokia, 1951 txostenean.

batailoi; Eusko Abertzale Ekitza edo ANVk, 4 batailoi; ELA-STV-k, 3 batailoi; Jagi Jagi-Eusko Mendigoizale Batzak, 2 batailoi; Unión Republicanak batailoi 1; eta azkenik zortzi batailoi ofizialak.

Eusko Jaurlaritzak Gudarostea antolatzearekin batera, Gernika inguruan kokatu zituen Gipuzkoan sortutako hainbat batailoi, kontuan izanda iraila erdialdeaz gero, Eibar eta Elgetaren salbuespenekin, Gipuzkoa frankista matxinatuen esku eroria zela. Hori jakina izanda, ez da hain ezaguna gudari eta miliziano haie-tako batzuentzat bere batailoien atzealdeko kuarter-len egoitza izan zen herriko hilerria izango zela bere beraien betiko ehorts lekua.

Hilabete gutxi geroago, Itxarkundia batailoiak Bermeora pasa zuen bere kuarter nagusia eta EAJ-PNVren Saseta metrailadore batailoiak hartu zuen Gernikan libre utzitako kaserna. Gernikatik gertu, EAJ-PNVren Amaiur batailoiak Mundakan izan zuen bere kuartera.





Gudariak lurperatuta egon ziren lur saila egun eta 1951ko txosteneko argazkietan.

Garai horretan, EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarrak panteoiak eta lurra erosi zituen Gernikako kanposantuan, Zalloko hilerrian, inguruan kuartela zuten alderdiko batailoietako gerran hildako gudariei bertan lur emateko. Nicasio Letamendi bergararra, Loyola batailoiko kapitaina izan zen Gernikan ehortzitako lehena. Borroketan buruan jasotako tiro baten zaurien ondorioz hil zen eta 1936ko azaroaren 11n lurperatu zuten. Ondoren ehortzitako bi lagunak ere Loyola batailako gudariak izan ziren ere (Luis Elortza Zabaleta eta Jose Maria Fernandez Cortes de Lekuona), 1936ko San Andres egunean (azaroaren 30ean) Legutio eta Olleriaseko guda-oinetan jasotako zaurien ondorioz hildakoak.

Gisa horretan, Zalloko hilerriak Loyola, Saseta, Amaiur eta Itxarkundia batailoietako hildako gudari gipuzkoarren gorpuak hartu zituen (71 dira bertan), batailoi horietako Araba eta Bizkaiko beste bederatzi gudari ere han ehortziak dira. EAJ-PNVk erositako kanposantuko lurretan ehortzi zituzten CNTko Isaac Puente batailoko Miguel Ezkurra Dierex miliziano donostiarra eta ELA-STVren San Andres batailoiko Leandro Plazaola Zubizarreta azpeitiar gudaria.

Felipe Larrañaga elorriarra, Juan Bizcarra abadinarra, eta nongoa zen jasotzeko aukerarik izan ez zen Santos Guisasola izan ziren Zalloko hilerrian ehortzitako azkeneko hiru gudariak. Izan ere, Euzko Gudarosteko Rebelión de la Sal batailoiko hiru hildako hauek apirila-



ren 25ean ehortzi zituzten; hau da, Gernikako bonbardaketaren bezperan. Frankistek hiria hartu baino bi egun lehenago.

—¡Qué más quisiera que serlo! Porque todo sería distinto. No sabes lo que daría por tener fé, por aferrarme a la esperanza absoluta, aunque sepa que detrás de ella no hay nada.

Mientras escuchaba a Manuel, trataba de digerir aquella demoledora reflexión. Era el razonamiento de un hombre que en aquel instante se mostraba extrañamente sereno. Y también la abstracción deformada de una mente enferma, una mente que no hacía sino trasgredir la realidad. Pero, ¿qué realidad? ¿La suya o la mía? ¿Acaso no confluían ambas en un mismo punto y compartían el mismo destino? Un aluvión de preguntas se agolpaba en mi cabeza, amenazando con desplomar mi frágil castillo de naipes. Porque aquellas palabras, aderezadas con el sabor amargo del desaliento, habían logrado resucitar en mí viejos fantasmas, al adentrarse en una verdad que yo me había negado siempre a aceptar.

Aquella fue la última conversación que mantuve con Manuel. A los pocos días caía en una nueva crisis. La

situación se complicó con un infarto que le mantuvo ingresado en la UCI. De allí fue trasladado con carácter definitivo al Hospital Aita Menni, donde falleció años después.

\* \* \*

La lluvia no ha dejado de caer en toda la tarde. Miro a través de la ventana del despacho y trato de alentar con la vista el avance de ese caracol que ha surgido entre la hierba del jardín. Hoy es mi último día en la residencia. Me cuesta resignarme a entregar el testigo, a asumir que el paso de una etapa a otra de la vida se resuelva con la firma de un finiquito y el cierre de un expediente laboral. Es como si la historia de todos estos años quedara reducida a las cuatro cosas que me llevo de recuerdo en la cartera. En realidad, para qué más. Me acerco a la mesa y saco mi agenda del cajón. De una de las solapas extraigo el trozo de papel añil. Leo los versos en voz alta, pero nadie me oye. Antes de guardarlo en la cartera, vuelvo a mirar por la ventana y recorro la sinuosa estela que el caracol ha dejado en el adoquinado. Al fin se abre un claro en el cielo. *¡O tempo voa!*



---

# Luis Elizetxea: "Argiaren Hautsan agertzen den istorioa kontatu beharra nuen"

---

Mikel Ugalde



---

Madalen jaietan Ereintza Taldearekin  
amaierako agurrean.

Patri Urkizuk, Arantzazu Fernandezek, Mireia Gabilondok, Eneko Olasagastik eta Dorleta Urretabizkaiak osatutako epaimahaiak Luis Elizetxearen *Argiaren Hautsa* obrari eman zion LIII Donostia Hiriko Kutxa Literatura Saria euskarazko Antzerki sailean. Sariaren irabazle izanik eta Ereintza taldearen eskutik hainbat urtetan eginiko lana gogoan, idazle errenteriarrekin izandako solasaldia dakargu oraingo honetan.



*Madalen jaietan zuk eginiko hainbat lan antzestu duzue gure herrian: Hiru biren prezioan, Hegan, Relaxing, Ekografiak eta Katea bezalako obrak eskaini dizkiguzu. Ikuslearen gogoko izan dira. Oraingoan, berriz, Argiaren Hautsa lanak irabazi du saria. Urrats sendoa izan da zure ibilbidean...*

Argiaren Hautsan agertzen den istorioa kontatu beharra nuen. Honen guztiaren jatorria esperientzia pertsonala izan da. Amari eskaini diot lan hau, amaren gaixotasunak eta heriotzak bide eman zidan lan hau egiteko. Gaixotasun kroniko baten heriotzak denbora eskatzen du dolua egiteko. Gerora amarekin bizi izandako esperientzia azaldu nahi nuen, baina fikziora eramanda, halako distantzia behar bainuen hobeto kontatzeko. Hausnarketa horiek islatu nahi izan ditut. Horrela lanari ekin nion.

*Lanari ekin eta baita sariketara aurkeztu ere...*

Hasieran nobela gisa burutzea pentsatu nuen eta landu ere dezente egin nuen. Hori bideratzeko behar adina astirik ez nuenez, antzerki moldetan marmitzea pentsatu nuen. Antzerki alorrean bide bat egin nuen, Ereintza taldearekin landutako esperientzia baliagarri izan zait. Ereintza izan ez balitz ez nukeen, seguru aski, *Argiaren Hautsa*, idatziko. Sariketari dagokionez, berriz, deialdiaren berri izan nuenean, baldintzak irakurri eta gero, barruan neraman zorra kitzatzea erabaki nuen.

*Gustura izango zaitugu beraz...*

Antzerkian Ereintzarekin eginikoak jasotako erantzuna ikusten nuen, baina epaimahai koalifikatu baten iritzia jaso nahi nuen nire lanari buruzko iritzia finkatzeko. Eta mahaia osatzen zutenen maila aintzat hartu eta gero, aurkeztu egin nuen. Gustura nago bai, pozik eta harro hitzaren esanahi zuzenean.



Saria Donostia Hiriko Kutxa Literatura Sariaren gainontzeko irabazleekin Luis Elizetxea.

*Argiaren Hautsa izeneko lan honetan zahar etxe bat eta bertako Manuel eta Milagrosen arteko harreman giroa irudikatzen duzu. Irudimena eta elkarrizketa bizia tar-teko, sarritan pentsatu ohi dugun ez bezala, giro lasaia, baketsua, heriotzaz hitz egiterakoan era baikorra, sumatzen da.*

Zahar etxe baten ingurua eta giroa bestelakoa izan zitekeen, gogorra, dramatikoa, deprimentea. Hori ere bai baitago. Baina norbaitek lana irakurri eta azaltzen

---

“Amari eskaini diot  
lan hau”

---

dudan errealitatea ezinezkoa dela esango balu guztiz oker egongo litzateke. Hau ere gertatzen da. Txikia nintzela amak Errenteriako asilora noiz behinka eramaten ninduenean huraxe bai zela ume batentzat beldurgarria. Nire amak ia urtebete eman zuen zahar etxe batean eta ni ia egunero joaten nintzaion. Etxe hark ez zuen asiloaren inongo antzik.

*Ikusten dudanez, lanerako osagaiak eskura izan dituzu.*

Zahar etxearen mundua ezaguna zait. Batetik familian bizitzea egokitu zaidalako eta, bestetik, lanean ere, ikastetxeak Uzturre zentroarekin dauzkan harremanengatik gertutik jarraitzen dudan kontua da.

---

## Zinema

*Zaharren egoitzaz hitz egin dugu. Baina bada lan honetan deigarri gertatzen zaidan puntu bat. Zinemaz ari natzazu. Alicia zure amak zineman lan egin izanarekin zer ikusirik bai al du?*


Gaia ezagutzen duzunez, pribilegiatu bat zara. Izan ere horrela nahita jasotako kontua da nire amaren lanarekin eta herriko Reina aretoarekin zuzen lotua. Amak harreman handia zuen zinemas arduratzen zen familiarekin eta txikitan joan izan nintzen, baina baita haien etxera ere. Zinemari omenalditxo bat egin nahi izan diot eta antzerkian agertzen diren zine inguruko bizipenak zerikusi zuzena dute amak bizi izan zituenekin. Fikziora eramandako bizipenak, noski.

---

## Euskara

*Zaharren etxeaz, zinemas, mintzatu gara. Gaiaren trataerak epai mahaiaren oniritzia jaso du. Literatura lantzeko, ordea, besteak beste, hizkuntza ere ongi menderatzea ezinbestekoa da. Argiaren Hautsa irakurtzerakoan berehala konturatzen gara erabiltzen duzun euskara zehatza dela. Neurritzko esaldian, dotoreziaren esanetara makurtu gabeak...*

Bai, halaxe da. Horretan saiatu naiz. Esaldiak borobildu egin nahi izan ditut. Hausnarketa sakonak maite ditut, baina, aldi berean, esaldi borobilak eta zuzenak. Saiatu naiz ondo eta zuzen idazten, barne egiturak arretaz zaindu ditut, sinboloak eta metaforak agertzen dira, ezinbesteko erabileraren orekari eutsi nahi izan diot, baina, betiere, literaturaren eskakizunari erantzunez. Pozik nago, esaterako, Milagrosen jaiotza azaldu dudan erarekin, zinemaren gaiari emandako trataerarekin...



Argitaratutako *Argiaren Hautsaren* azala.

---

“Zinemari omenalditxo bat egin nahi izan diot”

---

*Nondik norakoa izan da euskararekiko bilakaera?*

Ametsetako bat nire lan bat euskaraz argitaratzea izan da. Anekdota moduan esango dizut sari banaketaren saioan Antzoki Zaharrean gaztetako gelakide batekin

egokitu nintzela. Harri eta zur gelditu zen saritu nindutela ikusi zuenean. Erdaldun ezagutu ninduen. Hark ez zekien euskaldun nintzenik, are gutxiago euskaraz idazteko gai nintzela eta, jakina, lehen saridun izan nintekeela ez zitzaion inondik ere bururatuko. Egia da, ahalegin handia egin dut. Saritua izan den ahalegina. Gaur egun, halabeharrez, gaztelaniaz ere irakasten dudan arren, euskara irakaslea naiz D ereduko eskolan, eta lana euskaraz egiten dut, euskaldun gisa ezagutu izan naute ikasle eta lankideek. Horregatik, oso harrituta gelditu ziren, zuzendaritzaren aginduz, gaztelaniaz ere irakasten ari nintzela ikusi zutenean.



Alicia Iturburuk, Luis Elizetxearen amak, antzezten zuenekoa.

## “Ereintza izan ez balitz ez nukeen, seguraski, Argiaren Hautsa, idatziko”

### Errenteriarra

*Gaur egun Donostian bizi zaren arren, zure sorterriarekin oso bat eginga zaude...*

Bai, halaxe da. Umetan Jesuitetan Donostian ikasi behar izan nuen. Berez, Tellerira joatekotan nintzen, eta nire koadrilakoak han hasi ziren, baina niretzat han tokirik ez nonbait eta Donostiara eraman ninduten. Eskola garaiko oroitzapenak onak ditut. Lagunartean, saskibaloian... Nire lehen antzerki saiotxoak ere eskolan egin nituen. Orain gogoratzen dudana da nire koadrila Errenteriakoa zela. Fatimako Gaztedin, aisialdi eta abarretan gustura ibili nintzela. Koadrila hemen eta Donostian.

### Ereintzaren lana prestatzen

*Hurrengo Madalenetan Ereintzak antzeztuko duen lana prestatzen ari zara. Aurreratu al dezakezu lanaren izena?*

Buru-belarri ari naiz, denborarekin larri antzean. Oraindik ez dut bukatu. Izenari dagokionez ezin dizut ezer garbirik esan, oraindik erabaki gabea baitaukat. Izenburu laburrak, zehatzak, ahal dela hitz bakarrekoeak gustatzen zaizkit... Ez dakit... Giltzarri gisa hitz bat hautatu beharko banu *enkargua* izango litzateke. Geroxeago erabaki beharko dudan zerbait da.

*Eskerrik asko Luis. Niessengo Aretoan izango gaituzu.*




---

# Joxe Mari Arbelaiz Michelena

---

Mikel Bagüés Erriondo



---

Nació en Errenteria el 5 de septiembre de 1944 en el seno de una familia de grandes charcuteros, hijo de Serafín y de Juli, junto con otros seis hermanos, y nos dejó demasiado pronto el 10 de octubre de 2016.

---

Joxe Mari Arbelaiz Michelena.

Se casó con M<sup>a</sup> Carmen Gallego Zamora el 28 de julio de 1969, y tuvieron como descendencia a sus hijos Olatz, Beñat, Ainara y Aloña y a sus nietos Amets y Argia, a la que por desgracia no llegó a conocer.

En casa, de niño, Joxe Mari se acostumbró a cantar, era costumbre en la familia el disfrutar todos juntos con el canto y adquirió desde pequeño el hábito y el gusto por la música. Con 9 o 10 años junto a su hermano Joxan y otros monaguillos se presentaron al concurso

de villancicos del pueblo, quedando muy bien clasificados.

Los tres años que cursó en el Seminario Diocesano le sirvieron para estudiar solfeo y afianzarse en el canto. Al abandonarlo, se incorpora al Coro Parroquial.

Le encantaba el fútbol, fue un gran aficionado. Jugó en el C.D. Rentería en los años 1964 y 1965. Una constante en su vida fue la de no perder el contacto con

quienes compartía afición, mantuvo la amistad con sus compañeros de fútbol hasta el final compartiendo cenas con ellos anualmente. Lo mismo ocurría con sus compañeros del seminario, con los que se veía anualmente. Otra cena famosa era la que organizaba con compañeros y parejas de la Coral Andra Mari el 23-F en Anixeta.

Su vida laboral la comenzó en la cooperativa Guria pasando de allí a la banca, en la entidad que hoy se denomina Kutxa, en la que trabajó en varias sucursales hasta su jubilación, y en las que dejó su impronta e innumerables recuerdos entre sus clientes.

A finales del año 1964 comienza a cantar en el Stella Maris de Donostia bajo la dirección de M<sup>a</sup> Ángeles Usoz. Compaginó con su pertenencia a la Coral Santa Cecilia con sus inseparables Patxi y José Manuel Mitxelena, dirigida por Iñaki Goñi Galarraga.

A raíz de las insinuaciones que le hicieron amigos, cantores veteranos y compañeros de otros coros, un grupo de errenteriarra que pertenecían al Coro Parroquial y que además cantaban en la Coral Santa Cecilia de San Sebastián, decidieron crear bajo la dirección de Iñaki Goñi Galarraga (director de Santa Cecilia), el ochote Karnaba, que se presentó el día 14 de Febrero de 1965, en el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián, a la fase eliminatoria del III Concurso Vasco-Navarro de Ochotes. En palabras que José Manuel Mitxelena Iñarra, cantor y compañero de fatigas en mil y un viajes y conciertos, escribió en la revista *Oarso* de 1990: "Más de uno se preguntará por qué lo bautizamos con el nombre de Karnaba. Pues bien, escogimos ese nombre a sugerencia de Antontxu Sáinz, miembro del ochote, porque considerábamos que reflejaba bien al conjunto y sus aficiones. El jilguero es un pájaro que anida en nuestro país, que sin ser aparatoso es cantarín, sencillo, colorista. Goza con el cantar y en el cantar. El canto le brota desde dentro. Nosotros experimen-

---

Joxe Mari Arbelaz, barítono del ochote Karnaba con los miembros que originariamente lo conformaron.



tábamos algo parecido al cantar y nos sentíamos reflejados en nuestro ser de cantores en este nombre que era bonito y a la vez musical, dos cualidades que esperábamos adornaran y caracterizaran nuestra manera de cantar.”

Los miembros que originariamente conformaron el ochote fueron: Iñaki Goñi y Patxi Mitxelena como tenores primeros, Antontxu Sáinz y Jose Manuel Mitxelena como tenores segundos, Joxe Mari Arbelaiz y Sabin Echeveste como barítonos y Joaquín Arruabarrena y Juanito Busselo como bajos, todos ellos bajo la dirección de Iñaki Goñi. Cantaban en Santa Cecilia y después de ensayar en Donosti, venían a Errenteria y se iban a ensayar a los locales de la Adoración Nocturna donde cantaban de 10 a 11:30 de la noche. Finalizado el ensayo iban a casa, no sin antes pasar por el Somera para engrasar la garganta.

El repertorio del ochote Karnaba fue amplio y variado, con preferente atención a la música vasca, pero sin olvidar la universal. El número de interpretaciones en los 19 años que duró la actividad plena del ochote fue de 435, interpretando 75 obras distintas.

El año 1968 se incorpora a la recién creada Coral Andra Mari, donde a lo largo del resto de su vida participa no solo cantando sino siendo uno de sus pilares, dedicándole innumerables esfuerzos y tiempo. Ese mismo año participa con la Coral en el Certamen de Habaneras y Polifonía de Torreveja.

Al año siguiente la Coral decide volver a Torreveja; es el año en que se han casado y vuelven de viaje de novios en esas fechas por lo que todo el coro va a recogerlos al aeropuerto de Alicante donde se les realiza una recepción especial con txistularis y cantos. En el aeropuerto todo el mundo preguntaba ¿Quiénes vienen? Eran Joxe Mari y M<sup>a</sup> Carmen.

---

Patxi Mitxelena, Boni Iparragirre, Aitor Iriondo y Joxe Mari Arbelaiz preparados para la representación de la ópera Don Giovanni de Mozart en 1989.







Joxe Mari Arbelaz como solista en Musikaste 1982.

A lo largo de los años en la Coral Andra Mari fue, como hemos dicho, uno de sus pilares. Desde el punto de vista del canto era quien afianzaba su cuerda, a todos los sitios era el último en llegar, a su casa dice M<sup>a</sup> Carmen que también, por lo que en más de un ensayo al ver José Luis Ansorena que Joxe Mari aun no había llegado, decía: los bajos sentaros hasta que llegue. Pero aún llegando el último, dice con cariño M<sup>a</sup> Carmen, cumplía en casa y, añadimos nosotros, también en el coro.

En el plano organizativo, también se implicó en el coro. Fue vicepresidente los años 1969 y 1970, volvió a serlo los años 1979 y 1980, de nuevo los años 1989 y 1990, cerrando e iniciando cada decenio. Continuó siéndolo los años 1991, 1992, 1993 y 1994. Volvió

a serlo los años 2001 y 2002, esta vez coincidiendo conmigo en la presidencia. Tuve la enorme suerte de contar con su presencia junto a mí en la directiva, su conocimiento del coro, su empatía, su ascendiente y liderazgo dentro de sus compañeras y compañeros me fueron de gran ayuda a lo largo de los años, claro que hubo discusiones entre ambos, pero fueron muchas más las avenencias y pervive en mí un recuerdo de Joxe Mari agradable y muy positivo. A él se debe mi permanencia en los dos periodos en los que me incorporé a la directiva, fue quien me propuso y convenció para que lo hiciera.

No había celebración, jolgorio o fiesta en las que Joxe Mari no se encargara de animar y arrastrar a sus compañeros al canto, incitando y siendo el primero en par-

ticipar, dar el tono y dirigir mil y una canciones. En palabras de Patxi Mitxelena era el director de las juergas de la Coral Andra Mari.

A lo largo de los casi cincuenta años que cantó en la Coral fueron múltiples las obras de muy diversos compositores, interpretadas por ésta. La palma se la llevan los conciertos de Música Coral de Compositores Vascos de los que se interpretaron 384 obras de 99 compositores, siendo el más interpretado Aita Donostia con 63 obras. A continuación Música Coral Universal con 136 obras de 88 compositores, siendo el compositor con más obras diferentes interpretadas Juan S. Bach con 12 obras. Viene detrás la Música Sinfónico Coral de Compositores Vascos con 50 obras de 30 compositores, siendo el primero Tomas Aragüés Bernard con 6 obras. La Música Sinfónico Coral Universal con 46 obras de 27 compositores, es la siguiente con G.F. Haendel con 5 obras. La Música Escénica con 32 obras de 21 compositores viene a continuación y para terminar, la Música de Cine con 3 obras de 3 compositores.

A lo largo de este tiempo cantaron con 340 solistas, fueron dirigidos por 99 directores, interpretaron con 39 orquestas diferentes y con otras 11 bandas y otros diferentes grupos de música.

Como hemos podido ver, Joxe Mari participó en muchas Óperas y Zarzuelas, pero a pesar de ser una persona que disfrutaba cantando y le encantaba interpretar, no le gustaba participar en ellas. ¿Por qué? La explicación es muy sencilla, los Directores de Escena le obligaban a quitarse las gafas y sin ellas no veía y lo pasaba muy mal.

La intensa afición de Joxe Mari Arbelaiz por el canto se trasluce en su colaboración en los conciertos del Orfeón Donostiarra. Su primer concierto con el Orfeón fue el 12 de marzo de 1976 en el Palacio de Congresos de París, cantando el *Requiem* de Berlioz. Aunque participó en otros muchos conciertos, es a partir de 2005 cuando figura oficialmente como cantor en listas, al disponer de más tiempo gracias a su jubilación laboral. Se contabiliza desde entonces su colaboración en 197 conciertos, algunos celebrados en importantes festivales de París, Toulouse, Montpellier, Orange, Milán, Wiesbaden o Frankfurt. Fue su último concierto

con el Orfeón el celebrado el 7 de octubre de 2016 con la interpretación de *Carmina Burana* de Carl Orff, en el Kursaal de Donostia.

Participó en cuanta actividad se organizaba en Errenteria en la que tuviera presencia el canto, año tras año se contaba con él para las coplas de Santa Águeda, no se perdía el Olentzero organizado por Ereintza, allí estaba en las coplas de *Urte Zar*. Durante muchos años cantó como miembro del coro Pakezaleak en el Concurso Provincial de Villancicos organizado por Ereintza, ganando el primer premio los años 1972, 1984, 1996, 2001 y 2002.

Se conservan una veintena larga de grabaciones en las que Joxe Mari participaba en calidad de solista. La más antigua data de 1971, en el primer disco grabado por la Coral Andra Mari. Buena parte de las grabaciones son tomadas en directo de los conciertos de Musikaste, en las que Joxe Mari participaba tanto en la recuperación de obras antiguas (Juan Francés de Iribarren, Joaquín Tadeo de Murguia, Miguel Irizar, o Blas de Laserna) como en obras contemporáneas (Gotzon Aulestia). Participó en el ciclo de conciertos "Eresbil-Eresiak" mostrando la evolución de la canción en Euskal Herria. Participó igualmente en actos diversos, como el pregón del Kilometroak 2006. Y nos han quedado grabaciones de varios de los papeles del teatro lírico que interpretó en títulos como Oleskari Zarra, de José de Olaizola o Black el payaso, de Pablo Sorozábal.

Joxe Mari era un hombre risueño, sociable, un animal social, que se implicaba en lo que hacía intentando siempre aportar alegría allá donde estaba con su carácter dicharachero. Si tuviera que quedarme con una imagen de Joxe Mari sería la suya dirigiendo y cantando, disfrutando y haciendo disfrutar en muchas sobremesas con la interpretación de *El Menú*.

Mila esker Joxe Mari.

# Andra Mari Abesbatzaren 50. urteurrena

## Jose Mari Arbelaitz, in memoriam

Si hubiera que poner calificativo al año de celebración del 50 aniversario de Andra Mari Abesbatza, este sería, sin duda, intenso.

Andra Mari Abesbatza



2016-V-26. Julen Mendoza Erreterriako alkatea eta José Luis Ansorena.

No hay palabra que exprese mejor el aluvión de sentimientos que han albergado los componentes de esta agrupación durante este año cargado de celebraciones, homenajes, reencuentros y, lamentablemente, de despedidas también.

Urte honetan asko izan dira gugana hurbildu direnak urteurrena gurekin ospatzeko. Omenaldiak jaso ditugu, opariak ere bai, guztiak noiz edo noiz erakunde honen kide izan diren guztientzat. Propio aipatzekoa da Tomas Aragüés musikagileak Andra Mariri eskaini dion *Mors, resurrectio et vita* obra, 2016ko abuztuko.

*Eskaintza hau du: Coincidiendo con la celebración de 50 años de existencia de la CORAL ANDRA MARI de Erreterria, tengo el placer de dedicar esta obra a tan excelente y entrañable agrupación coral. Tomás Aragüés Bernard.*

El primer homenaje llegó en el mes de febrero de la mano de Ereintza Elkarte, que, fiel a la tradición, dedicó a Andra Mari los bersos escritos por Julian Albigur en las Coplas de Sta. Ageda como prólogo a las celebraciones del cincuentenario.





2016-VII-21. Txupinazoa.

Apirilean, berriz, Andra Mari aritu zen beste batzuen omenez: apirilaren 20an kontzertua eman genuen Iztietako San Jose langilearen parrokiak 50 urte betetzen zituela-eta antolatu zituzten ekitaldien artean, Joxan Pascual organista zen eta, Andoni Sierrak zuzendu zuen.

Así, en mayo, con Musikaste 2016, comenzaba oficialmente el año de conmemoración del aniversario con tres proyectos; por un lado, "Abesbatza eskolan" hizo que 300 niños y niñas de varios centros escolares de Errenteria, y el coro de niños de Errenteria Musikal cantaran juntos el 26 de mayo bajo la batuta de Joxan Pascual Puy en la plaza Xabier Olaskoaga; por otro lado, Andra Mari participó en la Jornada de apertura el domingo 22 de mayo, junto al organista Oscar Candendo en la Parroquia Nuestra Señora de la Asunción interpretando obras de Vicente Goikoetxea (compositor homenajeado en esta edición de Musikaste) bajo la dirección de Andoni Sierra, y, como tercer proyecto, el estreno en el Concierto de Clausura de la obra "Bailea", de Gabriel Loidi junto a la Orquesta Sinfónica de Euskadi, dirigidos por Unai Urretxo. En esta jornada de clausura se vivió uno de los emocionantes momentos que nos ha tocado vivir durante el año, cuando Julen Mendoza, alcalde de Errenteria, felicitó a los componentes de la Coral y reclamó la presencia en el escenario de José Luis Ansorena, fundador de Andra Mari y Musikaste, a quien impuso la txapela de honor.

Maiatza bukatzeaz zela, oso berri pozgarria iritsi zitzaigun: maiatzaren 31ko udalbatzaren osoko bilkuran aho batez erabaki zuten Andra Mari omentzea eta 2016ko madalenetako txupinazoa botatzeko ohorea opa izan ziguten. Pedro M. Iburguren (Andra Mariko lehenengo presidentea), Javier Olascoaga (egungo presidentea) eta Jose Luis Ansorena (abesbatzaren sortzailea) elkarrekin aritu ziren herriko festak abiarazteko suzuria pizten. Jaietan Errenteriako udalak adierazi zigun estimuaz gain, Jai Toki elkartearen Furius taldeak eta Telleri Aldeko ikasle ohien danborradak ere adierazi ziguten berea. 2016ko Madalenak Andra Marirentzat ahaztezinak izan ziren. Jende guztiari eskerrak emateko uztailaren 22an, Maria magdalenaren eguneko Meza Nagusian kantatu genuen, kantua baita guk eskerrak emateko erabiltzen dugun bitartekoa.

Acabadas las madalenas, el coro se preparaba para un importante reto: interpretar la 9ª Sinfonía de L. van Beethoven, junto a la Orquesta Sinfónica de la Radio de Frankfurt y los solistas Ilse Eerens (soprano), Marie-Claude Chappuis (contralto), Robin Tritschler (tenor) y Thomas E. Bauer (barítono), dirigidos todos por Philippe Herreweghe. La cita era el 27 de agosto en el Auditorio Kursaal, y los nervios previos a la actuación se transformaron en emoción cuando al finalizar la obra, orquesta y público entonaron el "Zorionak zuri" felicitando a Andra Mari por su 50 aniversario.

Baina Andra Marik ez du atsedunik, eta udako eginbideak bukatzean udazken eta negukoak prestatu behar dira, Santa Zeziliako eta Gabonetako kontzertuak bereziki, eta programatutako gainerakoak. Atlantikaldia prestatu genuen, Kantu Jirarekin egindako ekitaldi berezia eta, batik bat, Santa Zeziliako kontzertu bereziak: Errenteriako bandarekin egitekoa eta gure bazkideei eskainitakoa 50. urteurrena dela eta.

Desde el inicio de las celebraciones en la mente de todos estaba la necesidad de ofrecer un concierto especial para socios que mostrara nuestro agradecimiento a aquellas personas que durante años han colaborado desinteresadamente con nuestra entidad formando parte de nuestra gran familia. Entre las distintas opciones, se optó por ofrecer la Misa de Réquiem en re menor K.626, de W. A Mozart obra de todos conocida, y con la que además Andra Mari tiene una especial

vinculación afectiva, ya que en el primer concierto sinfónico coral ofrecido por la coral en 1971 se interpretaron fragmentos de esta obra, por lo que el proyecto se abordó con especial ilusión.

Baina patuak bazeukan zoritxarreko ustekabe ikaragarri bat guretzat: urriaren 10ean ezustean hil zitzaigun Joxe Mari Arbelaitz Mitxelena, Andra Mariren euskarrietako bat, sorreraz geroztik. Ez da erraza azaltzen hutsune horren eragina, artean Joxe Manuel Mitxelena-ren galera, 2015eko maiatzean zendutakoa, geureganatu gabea genuela. Urriaren 11n abestu genion bere azken meza, Donostiako Orfeoia-rekin batera haiekin ere kantatzen baitzuen. Fatimaren eliza lepo zegoen, joandako lagunari agur egiteko.

Pero, a pesar de todo, la vida sigue y Andra Mari tenía que continuar su camino. El 5 de noviembre recibió el homenaje ofrecido por la Diputación de Gipuzkoa de la mano del Diputado de Cultura Denis Itxaso. En este acto, el coro cantó en la Capilla de San Ignacio dentro del edificio de la Diputación; este es un escenario raramente utilizado. Pocos días después, el 17

de noviembre, se inauguró en la Casa Xenpelar una exposición fotográfica que recorría la historia en imágenes de esta entidad y que fue visitada por más de 500 personas.

Santa Zezilia ospatzeko bi kontzertu eman genituen eta, gorago esan bezala, biek ala biek zeukaten go-goan Andra Mariren hasiera. Azaroaren 25ean, Errenteriako Bandarekin, Carlos Rodríguez Albisturrek zuzenduta, bi erakundeok estreinako aldiz (1971ko azaroaren 25ean) Santa Zezilian aritu zireneko programa errepikatu zen. Bitxikeria gisa, aipatzekoa da izan zirela bi kantari, Patxi Mitxelena eta Isabel Mendiluce, aipatutako bi kontzertuetan aritu zirenak.

Bigarren kontzerturako, bazkideei eskainitakorako, Mozarten Requiema programatuta zegoen; halabeharrik batu zituen musika eta Andra Mariko kideok galdutako lagunagatik sentitzen genuen samina. Fatimaren elizan eman genuen kontzertua Miren Urbietta-Vegak (sopranoa), Lucia Gómezek (mezzoa), Ariel Hernándezek (tenorra), Jesús García Aréjolak (baxua), Conductus Ensemble 1813 orkestrak eta Andra Mari

2016-VIII-27. Kursaal auditorioa.







2016-XI-5. Capilla de San Ignacio. (Diputación de Gipuzkoa).

Abesbatzak Andoni Sierraren zuzendaritzapean. 600 ikus-entzule baino gehiago bertaratu zen eta haien txaloaldiak 10 minutu baino gehiago iraun zuenez, Cum Sanctis, Requiemaren azken atala, berriro kantatu genuen propina gisa.

En Navidad y, al igual que en Sta. Cecilia, se interpretaron dos conciertos de carácter bien distinto. El 17 de diciembre, se celebró en la Residencia de ancianos Sagrado Corazón el concierto *a capella* junto a la pianista Amaia Zipitria, dirigido por Joxan Pascual Puy; y el 21 del mismo mes, en el Auditorio Kursaal el tradicional concierto organizado por el Diario Vasco, junto a la Orquesta de Euskadi, dirigidos por Juanjo Ocón. El día 25, el coro actuó en la misa de Navidad celebrada en la Parroquia de Fátima y se festejaba también el cincuentenario de esta parroquia.

2017 se presenta también lleno de actividad; patrocinado por la Diputación de Gipuzkoa y Kutxa Fundazioa, el proyecto "Eskualdez eskualde" ha llevado a la coral a interpretar el Réquiem en re menor Op. 48 de Gabriel Fauré en las localidades de Eibar, Irún y Tolosa los días 11, 18 y 25 de marzo respectivamente, junto a la organista Alize Mendizabal, la soprano Lucia Gómez y el bajo Jesús García Aréjula. La dirección de estos conciertos ha correspondido a Andoni Sierra.

Musikaste 2017 hautatu dugu urte berezi hau amaitzeko. Ospakizuna amaitzeko Errenteriako bandarekin kontzertua eman dugu korukide eta korukide ohiek Musikasten, eta oroitzapen-liburu bat ere aurkeztu dugu. Horiek dira, oraingoz, 50 urte hasitako erakundearen oroigarriak, baina aurrerantzean askoz gehiago izango dira, jada 75. urteurrena ospatzeko bidea urratzen ari gara eta.



# Santa Martako tren geltokia

Gotzon Plaza Jaio



XXXVI "Errenteria Hiria Ipuin Lehiaketa"ren euskara modalitatearen irabazlea. Ereintza Elkarteak antolatua, Errenteriako Udalaren babesarekin.

Ilustrazioa: Iñaki Legorburu

Tomás Celedonio Salvideak txaleko urdineko poltsikotik kate finez lotuta zeukan erloju doratua aztertu zuen. Ordu eta hogeit hamar minutuko atzeraldia. Pentsa ezina, hamabi urte zeramatzan Santa Marta Cluiquéko geltokian lanean, lehen hiru urteetan telegrafia ofizial bezala eta geroztik geltoki-buru eta inoiz ez zuen halakorik ikusi. Amesgaizto eroenean ere asmatuko ez zukeen gertaera.

Tren geltokiko burua zela adierazten zuen kapelu gorri biseraaduna urduri mugitzen zen gora eta behera nasa bakarreko geltokian. Eraikin zahartu hartara hurbildu zen pauso urduriak atzean utziz. Berarekin geltokiko lanak atontzeko zegoen menpeko ofizialari zuzendu zitzaion, Mario Renato Pazzoni italiarren semea. Tomás Celedonio ez zen fidatzen bere ofizialaz, jakin bazekin geltoki-buruko postuaren atzetik

zebilela-eta. Leialtasuna falta zitzaion. Baina kontuz Mario Renato, Tomás Celedoniok bazuen urteetako lana ongi konplitua eta kapitaleko nagusien estimazio ondo irabazia.

– *Ba al dago berririk?* – zakarki galdetu zion Tomás Celedoniok.

– *Ez. Ez dugu telegramarik jaso. Ez dakit zer gerta dakioken.*

– *Zu ez zaude pentsatzeko, neu naiz geltokiko ardura-duna. Adi egon telegrafoari!*

Nagusiairen bortizkeria irensten eta murtxikatzen zuela, Mario Renatoren muzinak eta marmarka zerizkion hitzak entzun gabe, Tomás Celedonio kezkatu-rik zegoen. Asteartero eta bat-batean hutsik egin gabe, geltokiko erloju handiak hamaikak eta bost markatzen zuenean San Rafaeletik etorritako trenak geldiunea egiten zuen Santa Martako geltokian. Bere geltokian. Domingo Vasquez makinistak eta Diego Torres eta Salomón Nasquar fogoneroek asteroko agurrak luzatzen zizkieten Tomás Celedoniori.

Geltokia panpa zabalean galdurik zegoen. Inurri bat lur geruzan. Ur tanta itsasoan. Eta itsaso barean bezala, ez zegoen inolako oztoporik horizontean begirada ahazteko. Ez zegoen mendixarik, ezta muino apalenaren izena izan zitekeen inolako lur garairik. Zuhaitzak ere, han-hemenka sakabanaturik, lurzoruaren kontra zapalduak izan balira bezala; itzalak iltzatuak zeuden lurrari, lur marroi edo beltzari, nonahi behatuz sastrakak eta belar horizkatuak baino ez ziren.

Euriteen sasoi motza pasatuz agorrarena heldu berria zen eta egun batetik bestera itsaso berdea gariaren koloreko ur masa bihurtu zen. Zeruek altuago zeudela ziruditen, hain urdina baitzen sabaia. Gorantz begiratu, begiek urrutiko horizontea arakatzeko zuteneko nekadura bera izaten zuten, biak egon bazeuden, baina inolaz ere bertaratzeko aukerarik ezta ausardiarik gabe. Agian, ez ziren imajinazioan baino existitzen hutsunez osaturik zeuden irudiak. Itsasoaren hondoan edo izar edo planeten arteko espazioetan norbait balego, ez litzateke tren geltoki pobre hartan baino bakartiago sentituko.

Geltokia eskasa zen, etxola pobretzat pasa zitekeen. Kilometroak aurretik kilometroak atzetik, trenbideen marra zuzenek zeharkatzen zuten infinituan pausatutako geltokia. Edo infinitua bi zati infinitutan banatzen zuen puntu xumea.

Trenbidea ekialdetik mendebaldera zetorrela esan zitekeen, soilik mapetan marra zuzen erraldoia mar- gotzen zuen eta. Agian, trenetan ziharduten langileek salbu, inortxok ez zuen marra osoa errekorrituko inoiz. Domingo Vasquez eta Diego Torres –biak galegoak– eta Salomón Nasquar –turkoa, merkatarisiriarren sendikoa– aingeru mezulariak bezala ari ziren munduaren infinituko punta batetik bestera bi- daia amaigabean.

Beraiei esker, Tomás Celedoniok bazekien munduak zentzua zuela; bazeudela beste paisaia batzuk, mendiak eta basamortuak, haran maldatsuak korronte handi eta jauzi handiko ibaiekin; bazekizkien kapitan jasotako berriak ere. Asteartereko trenari esker, munduak oraindik biraka zebilela ziurta zezakeen geltokiko buruak. Horrez gain, beharrezko zituzten arropak edota elikagaiak ekartzen zizkieten, batez ere goizero hain preziatua hartzen zuen kafe beltza. Salomon turkoak ekartzen zion familiako merkatariek hartzen zuten bera.

– *Kalitate onenetariko berorrentzat, jauna.* Har beza paketetxo hau ene estimazioarekin, jauna.

– *Eskertzen dizut, Salomon. Zutaz gogoratuko naiz goizeko kafearen usaina dastatzen dudanean.*

Beste trenetako langileek gehienez buru-agurra egiten zioten nasan zutik mantentzen zen geltoki- ofizialari eta erregelamenduak adierazten zuen hamabost minutu igaro ondoren, beste buru-agur batez partitzen ziren hitzik, berririk, poztasun eta tristeziarik konpartitu gabe. Tomás Celedoniok, begirada tristatuta, ezagutzen zituen presaka ari ziren tren-langileon pentsamenduak:

–*Zorioneko tokitik alde egiten dugun zortea, alafedea! Ez nintzateke hemen egongo ezta hil geroztik ere. Infernuri- rik badago, halakoxea izan behar du. Fogoneroak! bota ikatza eta goazen azkar!*

Bulegoa, tiket saltokia, itxarongela eta telegrafoaren gela denak batera batzen ziren lau paretan artean. Buztina eta zura erabili zuten paretak eraikitzeko, zoruan lur zapalduaren gainean oholak jarriz. Teila-tuak, behin teila gorritz hornitua, zuloak eta zuloak konpontzeko premiak zituen. Buztinezko paretak, kanpoaldetik kareztatuak izan ziren eta agorraldie-tako beroetatik toki freskoa mantentzen zuten borrokaldean, nahiz eta hemen ere denboraren kalteak begi bistakoak izan.

Egurrezko nasa zuen geltokiak, lehen luzeagoa, baina orain hogeit bat metrotara murriztua zena. Eta hogeit metro horiek soberakoak eta larregi ziren. Astero sei tren baino ez ziren pasatzen eta denek egiten zuten geldiuena Santa Martan eta hori derrigorrezkoa zutelako, erregelamenduak markaturik zuelako inon existitzen ez zen parada galdu hartan gelditu beharreko agindua.

Benetan berezia zen norbait igotzen baldin bazen bidaia infinituari ekiteko; eta are bitxiagoa norbaitek trenetik jaisteko ausardia izaten bazuen. Tomás Celedoniok ez zuen zehazki gogoratzen noiz izan zen azken aldia, zeinetan bidaiari bat Santa Martara etorri zen. Beharbada, urte bat lehenago edo akaso bi izango ziren: igandeko trajedun gaztea larruzko maleta esku batean, bestean medikuek erabiltzen duten maletin beltza eta bizkarrean motxila batetik ateratzen ziren kartoizko tutuekin kargaturik, jaitsi ondoren zuzendu zitzaion eta ea non zegoen Santa Martako alkate jauna galdetu zion, Nazioko Gobernuaren ministeriotik zetorrela, topografoa zela eta inguru haietako mapa berriak sortu behar zituela, jasotako manatuak konpliz. Tomás Celedoniok, ahal zuen hobekien, ez zela inolako alkaterik azaldu zion, baina landa eremu zabal, handi, ia gizakiz hutsik zegoen hartan pertsonarik aberatsena Ramiro Argüelles zela eta beregana zuzendu zuen gaztea. Handik lau hilabetetara, Tomás Celedoniok berriz ikusi zuen ministerioko gaztea, baina oraingoan ez zirudien hain gaztea. Egia esan, ero etxetik ihesitako espiritua ematen zuen presaka igaro zen lehen trenera igo zenean maleta gabe, mediku maletinik gabe eta soilik bizkarrean zuen motxila, jabego bakar moduan. "Bakardadea", pentsatu zuen Tomás Celedoniok, "itoegin da bakardadeaz, gizagaixoa".

Santa Marta Cluiqué ez zen existitzen. Tren geltokitik aparte, ez zegoen ezer. Handik bost kilometrotara panpa iparraldeko norabidea hartuz eta lurrezko bidari jarraituz, toki haietan zegoen herri itxura zuten etxe sakabanatu batzuk zeuden. Ez ziren guztira hogeit etxe baino gehiago zutik zirautenak eta haietako bat Tomás Celedonioren zen. Bere menpeko ofiziala, Mario Renato italiarra, hiru urte lehenago etorri zen herrira familiarekin, emaztearekin eta bi alaba gaztetxoekin, eta Tomás Celedonioren agindupean jarri behar zelako eskutitz ofiziala erakutsi zion. Bost urtetarako postua zuela Santa Martan azaldu zion Mario Renatok, gero hiriburura aldatzeko asmoa eta tren konpainian kargu oparoagoa lortuko zuela aurpegiratu zion nagusiari. Amaren neba zuen osaba kargudun agintaria zela eta beronen eskutik tren konpainiako bulego moderno eta eroso, soldata ederra eta etxe berria zituela zain.

Tomás Celedoniok ez zuen atsegin menpeko ofiziala ezta erakusten zituen harropuzkeriak, handikerietan amesten beti geltoki-buruari behin eta berriro azalduz hiriburuan izango zuen etorkizun distiratsua. Lehen hilabetea igaro baino ez eta Tomás Celedoniok bidea moztu beharrean ikusi zuen bere burua:

*–Mario Renato Pazzoni jauna, ez zait batere axola hiriburuan izango duzun bizitza. Ez zait inporta ere familiarikideak lagunduko dizun ala ez goi mailako postura heltzen. Bost axola zure etorkizuna eta zure soldata. Hemen zauden bitartean neu nauzu nagusi (zure eskutitz ofizialean argi eta garbi azaltzen den legez) eta lanari ekitea izango da zure helburu bakarra. Ulertu duzu Pazzoni jauna?*

Ez, Tomás Celedoniok ez zuen atsegin eta italiarra ere gauza bera sinatzeko prest zegoen; eta nahiz eta hain toki apartatuan, toki abandonatuan, toki ez jakin hartako eremuan bakoitzaren etxebizitzak apenas bostehun metro izan, bakoitza bere kasa joan-etortzen zen lanera, tren geltokira. Zera pentsa zitekeen; hain toki bakartian izanik harreman ona izango zutela gizaki zibilizatuek duten bezalakoa, baina hain urruti zegoen zibilizazioa! Panpa erdian itxurek ez zuten baliorik eta ez zegoen ezer disimulatzerik. Gizon biek bizitza paraleloak zituzten inoiz elkartuko ez diren trenbideko burdinbideak bezala.



Tomás Celedoniok etxean zuen mando beltzarana erabiltzen zuen zalditzat lanera ailegatzeko eta Mario Renatok batzuetan oinez betetzen zituen bost kilometro haiek, beste batzuetan tartana zahar batean, zaharragoa zen astotxo batek tiratzen zuena erabiliz. Zain, itxaroten nori edo zeri jakin gabe egun osoan. Astelehenean, hamarrak hogeit gutxiagoko tren; asteartean, hamaikak eta bostekoa; asteazkenean, hamabiak eta erdietakoa; ostegunean, tren bat hiruretan eta bigarrena sei eta erdietan; eta ostiraletan, bederatzi eta laurdenetakoa. Sei instant hauek salbu, ezereza, urrutiko horizonteak urrutiago mugitzen ziren, bihotzaren estutasuna, isiltasuna, mesfidantzaren usain mikatza gizon bien artean. Isilik. Gorrotoa isila izaten baita.

Beste garai batzuetan –jadanik ahaztuak eta galduak, Panpako haize amaigabeak ezabaturik zituelako sasoi haietako lorratzak– abeltzainek Mendozako gobernadoreari eskatu, exijitu, eskupeko diruak eman zizkieten tren lur zabal haietatik pasa zedin. Eta geltokiak ezagutu zituen gloria egunak astero ehunka abere-buru trenetan sartzen zirenean kapitaleko hiltegiak helmuga. Trenak eramaten zituen animaliak eta trukean zilarrezko txanponak ugaritu ziren Santa Martan; zetazko jantziak eta parasolak haziendetako emakumeentzat; Pariseko lurrin modan zeuden abere kiratsa uxatzeko; trenak champagne botilak eta zigarroak ekartzen zituen eta baita bost piano Europatik bidaliak ere. Siestaren orduetan, beroari itxiak ziren leihoen ostean, aberatsen alabek pianoaren musikaz betetzen zuten denbora saiakera amaigabeetan.

Urrezko garai haietan Santa Marta Cluiqué herriak mila biztanle izango zituen. Larunbatero merkatal azoka ospatzen zen elizaren aurreko zelaian. Ezin zitekeen ziurtatu nola, ezta nondik etorriak ziren, baina merkataritza turko zaratatsuak inguruko haziendetako produktu salerosketan aritzen ziren goiz osoan. Haziendetako abeltzainak herrixkara hurbiltzen ziren, beraien ganaduak trenetan sartu ondoren irabazitako sosak xahutzera. Garai haietan, Tomás Celedoniok bi urte baino ez zituen bete lanpostuan. Garai haietan emaztea zuen geltokiko buruak eta semetxo jaio berria. Garai haiek ezabatuak izan zirenean, merkataritza turkoak desagertu ziren haziendetako abeltzainekin batera tren hartu eta basamortu

hartatik ahalik eta urrunen abiatuz eta Tomás Celedonioren emazte eta semea ere aldra haiekin batera joan ziren.

Gautxoan garaiak bereak eginak zituen: animalia abandonatuek zaintzaile gabe harrapakin basatien atzaparretan amaitu zuten edo gosez nahiz egarriz beren hezurak sastraken artean zurikatzen ziren, aintzako egunak nola pasatu ziren lekuko.

Hori guzti hori Tomás Celedonioren buruan biraka ari zen begiak txikiagotuz horizontean galtzen ziren trenbideak arakatzen zituen tartean. Ez zen ezer ageri.

Zer egin behar zuen geltokiko buruak halako unetaz? Bat-batean, Mario Renatok hainbeste itxaron zuen aukerari aurre egin beharrean ikusi zuen bere burua. Telegrama igorri San Rafaeleko nagusiei hondamendi haren berri emateko? Ez zen batere ohikoa Santa Martatik telegramarik bidaltzea; egia esan, jasotzea ere ez zen eguneroko gauza, baina noizbehinka Nazio edo Probintzia Hiriburutik heltzen ziren araudiaren aldaketen berri emateko. Baita Nazioko edota Probintziako Agintari nagusiak aldatzen zirenean. Presidente edo Gobernadore berrien izenak urrezko hizkiz grabatuak izan ziren bezala, Tomás Celedoniok bulegoko ezkerreko paretan horretarako bereziki prestaturik zuen ohol landu batetan itsasten zituen. Besterik ez.

Inozotzat hartuko ote zuten beldurrez pentsatzeak burua ideia eroz bete zion: urteetako lan zintzoa, lan konplutua, urteetan lortutako izena, dena kolokan zegoen urrats desbideratu bakar bat emanez gero.

Ramiro Argüelles abeltzain aberatsa otu zitzaion aukera bakarra, aberastasunak jakituria eskutik zekarrelakoan. Aholku eskatu behar zion, zer egin behar zuen, zein bide hartu. Burua kolokan ikusten zuen, hari fin batek banatzen zituela arrakastaren eta porrotaren eremuak.

Arrakasta, ohiko profesionaltasunez ekitea eta izu guztiak bazterturik izatean zetzan: ohiko geltoki burua, irmo mantentzen zena Salomon turkoak eta Diego Torres galegoak altzairuzko makina barnetik kapelu beltzatuak eskuetan olesak eta adioak bere

postuan zutik jasotzen zituena, banderatxo gorria kapelu gorrira eramanez erantzun gisa. Porrota... Hobe ez pentsa porrotak ekarriko zizkion ondorioetan: halakoetan beti izaten da ikerketaren bat, ikerketak erruduna darama atxikirik eta errudunak bere izena izango zuen ziurrenik. Gainera Mario Renatok ere hitz bi baino gehiago esango zituen (faltsuak, jakina) eta ez nagusitzat zuen erruduna errutik libratzeko, baizik eta lepoko soka gehiago estutzeko.

Bihotza lauoinka eroan, Tomás Celedoniok begiak erlojura eta erlojutik urrutira bideratzen zituen. Bere mundua mila zatitan hausteko korridorean zegoen, infinituko luzera zuen korridorea. Toki hark, geltokiak, Santa Marta Cluiqué izandako herriak, apenas zeharkatuak ziren trenbideek ez zuten inolako zentzurik astearteroko trenak ez bazuen geldialdia egiten egurrezko nasaren parean. Dena izango zen abandonua eta amesgaiztoa, panpako zabalera neurri gabeko espazioetan.

Trena urrutitik igarri zuen. Ikusi ez, baina igarri bai. Santa Martako geltokiraino apenas senti zitekeen dardarka motela ailegatzen zen. Seguruenik, Tomás Celedonio bezalako gizakiek baino ezin izango zuten nabaritu, zainetan eta odolean oihartzuna duten trenaren *traka-traka-traka, tatum-tatum-tatum* eta burdinazko gurpilen kirrinkak.

la ordu erdi pasa zen oraindik astearteko hamaikak eta bosteko trena Santa Martara ailegatu baino lehenago. Bi ordu eta hamabi minutuko atzeraldia. Tomás Celedonio, ezer gertatu ez balitz bezala, geltoki buruarena konplutuz banderatxo gorria eskuan hartuta zutik itxaron zuen Domingo Vasquez makinistak lurrun hodeien artetik burdinazko gurpil karrankariak gelditu zituen artean. Izerdi hotzak bustitzen zion bizkarra eta ahurretan izerdiak banderatxoa irrizarazten zion.

– Bai... zera, humm... ba al dago berririk Vasquez makinista jauna?

– Nobedaderik? Kial ezta, ez zegok gauza berririk munduan. Betiko erokeria.

– Beno nagusi, – hasi zen Domingo Torres – agian atzeratu egin gara, baina...

– Egia. Turko! kontaiok geltoki-buru jaunari zer izan den – moztu makinistak.

– Hara, jauna... eee... zera... Salim nire lehengusua berandu etorri dela azken negozioetatik. Beraz, itxoiten egon natzai berorri hileroko kafe paketetxoa lortu nahian. Hor datza gure atzeraldiaren arrazoia, berorrek barka nazala jauna.

Tomás Celedoniok bizkarreko pisu astuna libratu zuela sentitu zuen. Arnasa hartuz buru zeinuz eskerak eman zizkion turkoari eta kolorea bere masailetara itzultzen zenean tren langileak gonbidatu zituen tragoxka batera, ohi bezala. Ohiko zeremoniak aurrera ekiten zuenean trenaren alboan, Tomás Celedonio ez zen ohartu telegrafoa martxan zela, ezohizko gertaera hartako berria gobernadorearen bulegora eta tren konpainiako buruetara zuzendurik.





---

# Sabin Etxabeguren gogoan

## Senide, Hibaika arraun-taldekide, kuadrillako eta gainerako adiskideen izenean

Zuzendaritzako kide, delegatu, sukaldari, gidari, zaintzaile, aita...  
eta, batez ere, lagun.

---

Amaia Etxabeguren Aranzabal eta Agustin Arrieta Urtizberea

---

### Hibaika

Hibaikako familiaren parte bihurtu zinen eta azken zortzi urte hauetan zure lana ezinbestekoa izan da guretzat. Neguan arratsaldero klubean sarturik, bateletan gaztetxoekin lanean, zenbat disfrutatzen zenuen. Eta udaran, zer esan. Hasieran urduritasunak gainditu egiten zintuen, baina bukaerarako telebistako

kameraren lagun eta guzti bihurtu zinen; eta zu txoratura, kaletik jendeak ezagutzen zintuenean. Zenbat urduritasun, zenbat poz, zenbat tristura eta zenbat borroka. Beti korrika alde batetik bestera: ura erosi, gauzak konpondu, udalarekin hitz egin... Furgoneta gidatzen ere, atzean 12 metroko traineru-trailerra zenuela, nolako izerdi eta *malaostia* eta, oraindik ere, ze tortila goxoa prestatzen zenuen estropada bukatzen genuenerako.



la bihotzekoak jotzeko estropadak eginez eskertzen genizun dena, nahiz eta batzuetan segundoak kontratan erortzen ziren. Hala ere, dena aurka egonda ere, beti irribarrearekin itxoiten gintuzun. Hibaika hori baita: borrokan eta lanean jarraitu! Gutxi duzunean hori baita bide bakarra, erori eta altxa, etengabe, eta zuk hori oso ondo islatzen zenuen: erori eta altxa.

Ikusezina den hainbeste lan egin zenuen guregatik... eta ez zaigu eskerrak ematea besterik gelditzen, egunero zuk egindako lanak fruituak eman ditzan jarraituko dugu borrokan.

---

## Ibaia

Zorra kitatu behar da, bukaera injustua izan da, pentsatu du Eguzkiak. Eta traineru beltzaren ibilbidea argizatzea erabaki du. Horregatik, berandu gabe, *Aiako Harrietako* zokotik atera, eta herriaren erdian kokatu da.

Mutu dagoen *Papeleran* hasi da dena. Haren isiltasuna entzuten da, aspaldiko greba egunetan bezala. *Santa Klara plazako* etxeko bizilagunek traineruaren ibilbideari begiratzten diote, eta, gero 5. solairurantz. Bosgarren solairutik ibaira, ibaitik bosgarren solairura. Traineru beltzak arraunketa solemnean jarraitzen du. Zumardian, jendea bildu da tabernetako atarietan, zigarroak eta edalontziak eskuetan. Hitzezko zurrumurrua ezerezean geratu da. Bakarren batek altxa du edalontzia ibaiari begira, "agur" esanez, eta besteek

ere, baiezko keinua eginez, edalontziak goratu dituzte, "agur". *Casas Nuevas* eskuin aldean geratu da, *zumardi* txikia ezkerrean. Zenbat aldiz zeharkatu da batetik besterako zubia? Zenbat aldiz zeharkatu duzu? *Koldo Mitxelena* eskolako umeak eta langileak tropelean joan dira ibairantz eta, traineruaren mugimendu pisuak harri bihurtu balitu bezala, estatuak moduan geratu dira. Arraunketaren erritmoak bertso triste batena dirudi. Errepidearen azpitik, Iztieta barna sartu da.

*Ondartxora*, helmugara iritsi da trainerua, eta arraunak Eguzkirantz altxa dituzte.

Paseoan dabilen batek arraunlariei galdetu die, "zer, gaur arraunak gora eta gora, gaur irabazi duzue?" Trainerutik trumoi ahots bakarra sortu da, "ez, gaur benetan galdu dugu".

Eguzkiak ezkutalekura joatea erabaki du, iluntasunaren txanda da.



# AlOn Arretxe

Bernar Lemos Taberna

Ion Arretxe fue toda su vida un "villano". Lo fue desde el día en que nació en la muy Noble y Leal (seguro que al oír esto se estará riendo) Villa de Errenteria.



Ion fue un "villano", pero lo fue como lo somos muchos y muchas. Pero Ion Arretxe también fue otras muchas cosas: un aventurero, un romántico... y también un auténtico "paquete" para los deportes, incluidas las txapas, el dólar, las canicas...

Ion Arretxe dio sus primeros pasos e hizo sus primeras creaciones en la calle Parke de su Orereta natal;

entre las casas de la cope, la afamada *Guarre*, que tan bien describiera en su "Parole Parole", y el tan cercano Orotarik.

¿Quién no recuerda a Ion en las escaleras de Orotarik tocando con la guitarra sus inolvidables creaciones musicales o a Silvio Rodríguez, entre otros? Es más, algunos conocimos a Silvio Rodríguez gracias a Ion.

Pero también fueron los primeros años del caballo –y aquí volvemos a mencionar “Parole parole”– ese mismo caballo que Galindo, al que tuvo la desgracia de conocer, usó para descabalar de toda reivindicación y lucha a un importante número de jóvenes como Raúl, Ritxar, Ángel... y tantos y tantos con los que jugábamos cuando andábamos en pantalones cortos y llenos de barro hasta las cachas. ¡Maldita heroína!

Ion siempre, en todos sus escritos y colaboraciones, tenía presente el pueblo y el barrio que le vieron nacer. Estaba más que orgulloso de ellos y de sus gentes. Probablemente ambos, su barrio y su pueblo, forjaron su carácter. Y cómo no, en esos paisajes estaba la *Guarre*...

Pues sí Ion, la *Guarre* ya no es la *Guarre* que conocimos, probablemente esa añoranza nos retrotraerá a unos tiempos que seguramente fueron... diferentes. Tiempos que ya no volverán y que quedarán para siempre en tu “Parole Parole”.

Tampoco estás tú físicamente entre nosotros, pero siempre te recordaremos cuando pasemos por ese lugar que tú describiste como la *Guarre*.

Si bien Ion nunca abandonó del todo su villa natal, sí que es cierto que su último domicilio fue Madrid. Capital, Villa y Corte. En la que Ion Arretxe, en esa “coherencia” suya para continuar siendo fiel a sí mismo, siguió siendo un “villano”, un antihéroe como los del Bergamín que tanto admirara. Un espíritu “villano” que mantuvo siempre vivo y activo, y que nunca fue cortesano.

Efectivamente, en esa dicotomía héroe/villano que la literatura tanto ha descrito, él siempre eligió y estuvo en el bando de los “villanos”, de los Nadie que describiera Eduardo Galeano, pero “situado” siempre frente a la villanía de los poderosos.

Nunca sabremos qué diría Ion al oír estas palabras, pero se me ocurre que si tuviera ocasión de decirnos algo seguro que nos hubiera contestado con un breve e “irónico”: “Villanos y villanas del mundo, ¡Uníos! Y con su peculiar sentido del humor nos animaría a acabar de una vez con la Villanía.

Eskerrik asko Ion Arretxe. ¡Hasta siempre! Aio Ion Arretxe!





# Lau Haizetara Euskaltzaleon Topaguneak 25 urte

Bazen behin badia berezi baten muturrean bizi zen herri bat. Itsas portu eta ontziola garrantzitsuak zituen, garaiko testigantzetan goraiatuak zirenak.

Lau Haizetara euskaltzaleon topagunea

Esaten dutenez, herri horretan egin ziren inguruko erresumek erabili zituzten galeoi sonatueta asko. Baina, itsas maila herri gune horretatik aldenarazi zuten, eta herri horrek ahaztu egin zuen behinola itsasoarekin zuen harreman estua.

Bazen behin industria-sare indartsua zuen herria. Askotako ziren herri horretan zeuden lantegiak: handiak, indartsuak eta mota askotakoak. Hainbestera, non inguruko herrietako jende andana etorri baitzen herri horretara lan egitera eta bizitzera, eta euren bizipenen arrastoa herri horri aportatzera. Hainbestera, non ospe handia hartu baitzuen inguruetan. Pentsa, izan zen herri horri Manchester txikia deitzen zionik. Baina joan zitzaion industriaren aroa herri horri; eta, dirudienez, herri horrek ahaztu egin zuen industriak bere historian ezarritako aztarna.

Bazen behin euskaraz bizi zen herri bat. Portua izanda, tratua egiteko eta merkataritzarako gune ezin egoikiagoa zen; eta, bada, portuetan txoko askotako jendea elkartu ohi da, jatorri askotakoak, mintzaira

askotakoak. Herri horrek abegitsu hartzen zituen horiek guztiak. Abegitsu hartu zituen, halaber, industria-loraldia ezagutu zuenean etorri zirenak, beren lurretan sortu ziren faktoretan lan-esku falta itzela zegoela eta. Baina, nonbait, herri horretara etorritakoak hain abegitsu hartzen zituen herri horrek ahaztu egin zuen behinola euskaraz bizi zen herri bat zela, eta erdaldun ospea hartu zuen.



lauhaizetara

Hori guztia eta gehiago da gure herria: Orereta-Errenteria. Erdaldun ospea du, bai, ez dugu ukatuko, baina ezin dugu ukatu herri honek ekarpen ezin baliotsuagoak egin dizkiola euskararen emariari.

Hain zuzen ere, herri honetan lagundu genuen XIX. mendean euskal kulturaren harribitxi handienetako bat eraberritzen eta modernizatzen: bertsoari. Eta bertsoen historiako harribitxi handienetako bik lotura estua zeukaten eta oraindik ere badaukate gure herriarekin.

Hain zuzen ere, herri honetan sortu dugu euskarak eman duen ikertzailerik eta jakintsurik handienetako

bat, eta euskarak berak mundu garaikidean hain beharrezkoak zituen eta dituen estandarrak sortzen lagundu.

Hain zuzen ere, herri honetan idatzi ditugu gure haurrek eta gazteek euskaraz gehien irakurtzen dituzten ipuin eta liburuetakoko batzuk. Eta, gainera, ipuin eta liburu horiek, euskaraz sortuak, euskaratik munduko beste hamaika hizkuntzatarara eramateko gai izan gara.

Ikusiko zenutenez, emaitza notableak eman dizkio herri honek euskarari, baina euskararen historiak eman dituen notable horiez gain, herritar anonimoagok ere egin ditugu gure ekarpentxoak, eta euskararen emaria elikatu dugu.

Ikastolak sortu ditugu; gau-eskolak ere bai; korrika egin dugu; eman diegu gure herrian merezi zuten lekua Olentzerori eta Mari Domingiri; txosnak muntatu; saretu egin gara; hitzarmenak sinatu; egunkariak sortzen lagundu; aldizkariak sortu ditugu; ostiral kulturalak egin; bertsoan aritu gara; bertsolarietara entzun diegu; euskaraz erosi egin dugu, eta euskaraz erostera animatu; telebistak sortzen lagundu dugu; gaztainak erre ditugu; bertsozaleku egin gara, eta egin zaituztegu; jolastu egin gara eta euskaraz jolasten ikasi dugu; apellidoak abizendu egin ditugu; erabilera areagotzeko programak diseinatu eta gauzatu ditugu; bilguneak sortu ditugu; bertsoak saritu ditugu; begiraleak formatu ditugu; eskolatik kalera atera gara; mingainak astindu egin ditugu (eta lagunak egin); jaia egin dugu (eta dantza, eta parranda...); txistek kontatu dizkiogu elkarri (eta, batzuetan, barre ere egin dugu); herriko horma hitsak koloreztatu egin ditugu; irakurri egin dugu, eta gutako batzuk idaztera ere animatu dira; bazkariak egin ditugu (eta afariak, eta merendolak, eta barrikoteak, eta gosariak, eta hamaiketakoak...); hitanoz hitz egiten ikasi dugu (eta gutako gutxi batzuk animatu gara); eskolak eman ditugu (eta jaso); mozorrotu egin gara; arropa saldu dugu (eta pegatinak, eta boletoak, eta... tira, sal daitekeen guztia saldu dugu); gure herriaren iparra ezin dugula galdu jakin dugu, eta hara joan gara; Erriberara joan gara eta nafar helgoaldeko uzta Errigorara ekarri dugu; kirola egin dugu; kirol-estadioak betetzen lagundu dugu; eztabaidatu egin dugu (eta hausnartu,

eta berriz ere eztabaidatu); batzuetan, haserretu ere egin gara, baina, gehienetan, adiskidetu egin gara berriz ere...

Gauza horien guztien artean, 1992ko abenduan, txoro-kuadrilla bat elkartu egin zen. Euskaldunon Egunkaria sortzen laguntzen aritu eta gero, Arrasate Euskaldundu Dezagun moduko elkarteen adibidea ekarri zuten gurera, eta euskararen aldeko dinamika bateratu nahi izan zuten: Lau Haizetara sortu zuten. Eta 25 urte beteko ditu elkarteak aurten.

25 urteko historia luzea izan du Lau Haizetarak, eta hasierako asmoari heltzen dio oraindik: euskararen aldeko eta gure hizkuntzaren normalizazio soziala bilatzen duten dinamikak bateratzea. Noski, dinamika horiek indartsuago eta eraginkorrago egin nahi ditugu.

Gauza askotxo egin ditugu herri honetako euskaltzaleok, euskararen emaria indartsuagoa izan dakigun. Ekimen horien artean, 2013ko udazkenean abiatu genuen bat ekarri nahi dizuegu gogora: Topagunearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, parte-hartze prozesu bati ekin genion, Lau Haizetararen orainaz eta geroaz hausnartzeko.

1992ko haiek bezala, beste 30 txoro inguru elkartu ginen, saio trinko eta luze batzuetan, baina, era berean, emankorrak. Prozesu horrek hainbat ondorio utzi zituen gurean. Lau Haizetararen lehentasunetako bat izan beharko zuen koordinazio-gune bat sortzea. Zertarako? Norbanakoak aktibatzeke, herri bizitzan eragiteke eta norbanakoak eta eragileak saretzeko.

Koordinazio-gune hori nork osatuko luke? Bada, herritarrek, euskalgintzako eragileek eta eragile euskaltzaleek. Eta hauek izango lirateke gunearen funtzioak: sarea koordinatzea, egutegiak eta programazioak bateratzea, ekintza bateratuak eramatea aurrera, formazioa eskaintzea, eta ikasturtez ikasturteko helburuak zehaztea.

Bada, hasiak gara zeregin horretan, hemen bildu garen erakunde, ekimen eta elkarte guztiak, hamaika garenak: Aiko-Maiko, Kuadrillategi, Irrien Lagunak, Bertso Eskola, Olentzero eta Mari Domingi, Kantujira, euskaltegiak, Mintzalaguna, Euskalgunea, hitzar-

mengintza-atala... Gainera, hasiak gara harremanak saretzen euskararen normalizazioari ekarpena egin diezaioketen herriko beste elkarteekin ere: ikastetxeak, azken urteotan gurera etorritako migranteen elkarteak, kirol-elkarteak...

Hori guztia egiten ari gara, uste dugulako momentu berezia bizi dugula eta momentu horrek horrelako apustuak eskatzen dituela. Izan ere, herri honek duen erdaldun-famaren gaintetik, asko gara euskaldunak: 14.000tik gora. Gainera, urte luzeen ondoren, lehenengo aldia da euskal hiztunok gehiengoa garela herri honetan eta zor zaigun posizioa hartu nahi dugu. Asko garelako eta askoz gehiago izan nahi dugulako.

Herri bat gara, kasik, gure herriaren baitan, eta ziur gaude etorkizuna geure eskutik etorriko dela. Baina, kontuz, etorkizunera begiratzeaz gain, konturatu be-

harra daukagu dagoeneko oraina bagarela. Hortaz, herriari eragiten dizkioten eztabaida eta erabakietan ahots propioz hartu nahi dugu parte.

14.000 euskaldun horien ahotsa izan nahi dugu, herri honetako egoera soziolinguistikoa baldintza justua-goetara ekarri nahi dugulako eta ekarri behar dugulako Herri honetako euskaldunon ahotsa eta aterpea izan nahi dugu, nor bagarelako, ikaragarritzko sarea osa dezakegulako euskararen normalizazioa xede berezitzat daukagun elkarte eta norbanakook.

Sinetsita gaude elkar hartuta askoz ere gehiago egin dezakegula, gaur egun egiten dugunetik abiatuta. Eta sinetsita gaude gure aspirazio guztiak bete ditzakegula. Anbiziosoak gara, apustu anbiziosoei heldu nahi diegulako.





Anbiziosoak gara, badakigulako gaur egun indartsuak bagarela. Gutxi izango dira, herri honetan, Lau Haizetararen eta bere egoitza berriaren bueltan dabiltzan egitasmo eta herritar kopurua baino handiagoa mobilizatzeko gai izango direnak. Gure bitartez, ehunka eta are milaka herritarrengana iristeko gaitasuna daukagu. Hortaz, aintzat hartu beharreko solaskidea gara.

Herri bat sortzera goaz eta herri bat sortzen ari gara: euskalgintzatik herrigintzarako saltoa eman nahi dugu, euskararen herria izango den Orereta-Errenteria eraikitzen lagundu nahi dugu. Konbentzituta gaude gaur egungo Orereta-Errenteriak gure beharra duela, gu indartsuago eta eraginkorrago izan gaitezen behar duela, etorkizuneko herria marrazteko.

Ez dugu artikulu hau bukatu nahi aurten piztu eta bizitu dugun esperientzia zoragarria aipatu gabe: Aste BatZUK ekimena. 19. Korrikak dei egin zigunetik euskaldunoi ahalduntzera, geure boterearen jabe egitera, Lutxo Egiak eta Egia auzokoek urratu zuten bideari herri batzuk jarraitu gatzaizkio (Agurain, Astigarraga, Hernani, Arrigorriaga, Lasarte-Oria, gu geroni...). Batzuk izan gara, eta egon ziur askoz ere gehiago izango garela etorkizunean.

Esperientzia zoragarria izan da, lortu dugulako astebetez 600 euskararen eroale aktibatzea, euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu eta azalerazi duten 600 zoro zoragarri. Ziur gaude arrastoa utziko duela gure herrian, 600 horien hizkuntza-portaeretan arrastoa utziko baitu aurrerantzean ere, seguruenik; baina baita aurrerantzean ere errepikatzeko eta sakontzeko moduko ekimena iruditu zaigulako guztioi (eta halaxe egingo dugulako, noski).

Iparra adierazten digute horrelako ekimenek euskararen normalizazio sozialean ari garenoi, herritarrak aktibatzeke zeregin horretan. Instituzioekiko autonomiaz diharduten ekimenak dira, plazarazten errazak, inklusiboak, ikusgarriak... Orain arteko ekimenei eutsiko diegu, noski, non eta beren bidea akitzen ez duten bitartean; baina etorkizunean heltzeko moduko lan-esparru berri bat ireki digute, baita beste 25 urtez aritzeko bada ere!

# Un artículo de Antton

Una mañana de noviembre del año pasado, hasta la cama en la que yo pasaba las vacías horas de la convalecencia de una dura intervención médica, llegó una triste noticia: Antton Obeso nos había dejado.

Esteban Los Santos

El estado en el que entonces me encontraba no fue obstáculo para que acudieran a mi mente recuerdos relacionados con Antton. El más antiguo resultó ser el de su presencia en el libro-club, aquellas reuniones que se celebraban en nuestro pueblo hace más de cincuenta años entre personas que habíamos leído la misma obra literaria y participábamos en conversaciones que ayudaban a conocer mejor al escritor y lo que había escrito. Luego estaban sus cuentos, sus artículos en distintos medios, entre ellos en esta revista *Oarso*, su participación en el Comité de Redacción de esta publicación, en donde coincidimos a lo largo de no pocos años, el premio obtenido con "Me llaman Adolf", etc. Y me di cuenta de que todos ellos estaban relacionados con la palabra escrita.

También hizo acto de presencia en el escenario mental el recuerdo de un artículo que como otros publicó en un periódico donostiarra. Recordaba haberlo guardado. Pedí que me acercaran unas carpetas que el paso de los años ha ido llenando y me puse a buscarlo: pasó por mis manos un intento de poema de ortopédicas rimas que escribí en tiempos de juventud, había también recortes de prensa diaria y revistas, los esbozos de algunos cuentos que no llegué a desarrollar, fotografías, cartas de tiempos en los que todavía se escribían. El artículo de Antton que buscaba no se hizo esperar mucho. El color amarillento que la página del periódico había tomado con el paso de los años apareció en aquel heterogéneo almacén de recuerdos y supe que la fecha de publicación de "El escribir como terapia", título del artículo, había sido el 8 de enero de 1972, hacía cuarenta y cuatro años. Tenía una vaga idea de su contenido, pero, a pesar del tiempo transcurrido, recordaba desde la primera lectura una cita de Kafka que Antton había incluido en el texto: *Un escritor*



1994. Comité de redacción *Oarso*. El primero a la izquierda, Antton Obeso.



Antton Obeso. Foto J.M. Lacunza.

*que no escribe es un monstruo que está desafiando a la locura.* En su trabajo, Antton desgranaba una serie de reflexiones sobre la dedicación a escribir.

Y con el recuerdo de Antton me volví a mi convalecencia, a mis dolores y mis analgésicos con la certeza de que iba a ser más difícil que de costumbre que el sueño viniera pronto a acompañarme.

---

# A la memoria de Antton Obeso

## Miembro del Comité de Redacción de la revista *Oarso*

Es de obligado cumplimiento recordar, aquí y ahora, a nuestro compañero Antton Obeso fallecido el pasado 2 de noviembre.

Juan Miguel Lacunza

Su primera colaboración podemos leerla en 1963, con su trabajo "Pepe" como ganador del Concurso de cuentos organizado por Ereintza en 1962; en 1964 nuevamente su cuento "La piedras no tienen la culpa", ganador en el concurso de cuentos renteriano en 1963, está presente en la revista. Es en el año 1965 cuando *Oarso* publica dos colaboraciones de Antton: "El cine en Rentería" y "Mi amigo Hemingway y los vascos". Dificultades económicas impidieron que *Oarso* se editara en los años siguientes.

Nuevamente, cuando en 1971 el alcalde D. Ramón Múgica propone a Boni Otegui reeditar *Oarso*, éste se rodea de unos renterianos entusiastas de la revista entre los que están además de Antton, Jaime Cobrerros y Esteban Los Santos.

Por fallecimiento de Boni Otegui, director de la revista, el grupo de colaboradores decide constituirse en Comité de Redacción, que es como figura en la edición de 1985. Dentro del Comité Antton continúa con sus colaboraciones firmadas con su propio nombre y también con las iniciales A. O.; además se ocupa de mantener las relaciones con el grupo de donostiarros que colaboran con *Oarso*, entre ellos Bixente Barandiaran, Santiago Aizarna, Ezequiel Seminario, Raúl Guerra Garrido, etc.

Su presencia en los jurados del Concurso de Cuentos Villa de Errenteria permite que cada año los cuentos ganadores figuren entre las colaboraciones de *Oarso*.



Parte del Comité de redacción *Oarso* 2010.

No quisiera terminar esta pequeña memoria sin hacer referencia al buen ambiente de trabajo dentro del Comité, lo que no significa que no tuviéramos nuestras discrepancias, fundamentalmente cuando se trataba de la marcha de la revista y de su futuro. Discrepancias que no afectaban al respeto mutuo entre los colaboradores.

Queda en nuestro recuerdo los innumerables trabajos realizados por Antton, necesarios para presentar a los lectores de *Oarso* un trabajo bien hecho.

Descansa en paz Antton.



---

# Erdiko kaletik

Badakit gizakiaren patua bizitzan murgiltzea dela, eta ustezko errealitate honi begiratzea baino ez zaigula geratzen.

---

Juan Ramon Makuso



Gure bizitza abiapuntu bat da, eta muga horretatik bere baitan dagoen mugaren beste aldea ikusten dugula: heriotza. Hau esanda, hemen aipatu nahi nuke Pio Barojak *Santi Andia*ren *kezka* liburuan lehenengo kapituluaren hasieran esaten duena. Berak dio garaiko bizimoduaren nondik norakoengatik ia gehiengo bat bihurtzen duela interes gabeko jendea, iluna. Ia inori ez zaiola gertatzen ezer ez kontatzeko modukoa. Gizakiaren gehiengoak igeri egiten dugula arrunkearen ozeanoan. Gizartea, ideiak, guztion asmoak, bizitza berdintzen joaten da.

Noski, Pio Barojaren ideia hauek, narratzailearen ahotan jarrita, irakurri eta gero, eserlekuan iltzatuta geratzera eraman nau. Eta apaltasunari heldu diot; jarraitu dut Pio Barojaren irakurketa egiten eta berak dioen bezala, lerro horien jarraipenean, bere existentzian, une zail batzuk igaro ditu, eta horiek gogoratzek bultzatu du idaztera.

Huntza landare apala da; paretak eta beste euskarriak behar ditu garatzeko, bere ibilbidea egiteko. Ni, gizaki bezala, bidea egiten ari naiz, egunero goizeko

argiarekin batera. Hau ez da erraza, are gehiago, gure gizarte honetan ez da batere erraza. Giza existentziaren baitan dago, gure izaeran dago, aurrean daukagun horri begiratzea eta eustea. Ariketa honetatik kanpo geratzen baldin bagara, gizakia, arinkerian, bizitza arruntan, jautziko da. Nik ere une zailetik idazten dut, hemen aurkezten ari naizen poesia azken urte hauetan igarotako une zailetan sortutakoa da, baina, hala ere, ene sentimenduak pozten dira, une zailak igarota, gizakiak badituelako bere bizitzan beste begirada horiek. Liburuaren azken poemaren bertsoan hori islatu nahi dut. Gainera poesiak badu hau. Ez dut sinesten esaten denean, poesia agortua dagoela, agian hori esaten duena agortua dago. Gizakiaren ahalmena hor dago, giza baldintza hori baita, beti egon behar dugu gure espiritua lantzen argitzen.

Gogoratzen dut nire haurtzaroan, Erreterian, saiatzen ginela trolebusa hartzeko orduan, bi pisukoa izatea. Goiko solairu horretatik, nire begirada, hala iruditzen zitzaidan, argiagoa zen. Eta gogoratzen dut Donostiarako bidean, Mirakruz gainera heltzen ginenean, nola ezkerreko aldean, etxe baten paretan, huntzak paretetako bidea egiten zuela, bere leihoak eta alboan zegoen begia, inguratuz. Hori niretzat liluragarria zen. Nire ibilbidean hori saiatzen naiz egiten, begiratu eta hedatu nire sorkuntza, hezur berrian nahiko nuke egotea. Erronka moduko bat dut, kanpoko zaratak ez dut nahi agortzea nire routerraren wifia. Ume haren begirada gosetia, huntzak duen ibiltzeko nahia, ez dut agortzea nahi, hori agortuko da hezurak agortzen direnean. Gizakiaren begirada ez da itzaletan geratu behar, itzalak nire begirada itzali egiten baitu. Gertatzen da oso zaila dela argiari begiratzen egote hori; itsasontziek, gure Pasaiako badian, praktikoaren laguntza behar izaten dute, eta hau menpekotasunaren isla da. Makinen arteko erlazioan hori ez da kaltegarria. Gizakiaren arteko erlazioan, gure eguneko ibilbidean, huntzak bezala, bidea egin behar dugu, gure bidea beti aukeratu, jakinda ez dagoela beste bihar bat. Goizak irekitzen dizkio begiak gauari.

Orainean kokatua nago. Bestela ezinezkoa zait ni izatea. Eta orainak badu bere presentzia erreala. Nik orain, une eterno honetatik, leiho zabal bat dut nire aurrean. Ispilu bat. Eta azken finean, geltoki bat. Geltokia infinitua da, bizitzak baldin badu oraina, hori

heriotza da. Ez dut zabaldu nahi inongo nihilismorik, ez eta pentsamendu ezkor baten zertzeladak. Nire buruarekin solasean ibiltzen naiz; denbora bihurtzen zait obsesio, denbora Parmenidesen zentzuan: izatetik abiatzen naiz; izate hau, ni, erreal bakarra delarik. Instantea da izatearen erreinua, iragana ez da eta etorkizuna ere ez, instantearen erreinutik begiratura behintzat. Dena den, egunerokoan, eta ezin hobeto une honetan, paradoxa ikaragarri batekin bizitzera ohitu gara, edo behintzat gizakiak eta bere historiak hori erakusten du: geroari lehentasuna ematen diogu, benetakoa ordezkatzuz. Gizakia hilkorra da, baina badirudi, geroari begiratura, nolabaiteko jainkotiar hilezkortasun batekin amets egiten dugula, eta Calderonek zioen moduan, "ametsak, ametsak dira". Borgesek hau oso ederki erakutsi zigun esan zenean *gizakiak bakarrik dakiela bere heriotzaz*, hau da, bere orainean badaki hil egin behar duela. Eta hau guztiz gizatiarra da. Eta hau ederra da, nolabait geroa ukatzen duelako. Unea eterno bihurtzen duelako. Irakurlea nire hitzak hartzen ari da. Ustez nire zorionerako. Inuzenteak gu, zoriona, egotekotan, eskuartean daukaguna baino ez da. Eta hau, une hau da. Gizakia bestelako uste eta asmoetan sartzen denean, jainkotu egiten da, eta gu, zerbait baldin bagara, gizakiak gara. Gustuko izan, ala ez. Eta pentsatzen jarrita, geure buruarekin zintzo izanik, ez zaigu gustatzen. Bestela gure bizitza bestelakoa izango zen.

Gizakiaren benetako independentzia bera eta bere errealitatearekin bat egiten duenean gauzatzen da. Eta horretarako, eta hau nabarmena da, gizakiok tresna ezin hobea daukagu, lengoia, giza lengoia. Eta honekin batera poesiaren erreinua. Hitzen bila gabiltzanean errealitatearen isla gauzatzeko, poesia eraikitzen dugu. Norberarena, bere sentimenduen. Eta orduan sentimenduak aldentzen zaizkigu, kanpora joaten dira, ate joka ibili gabe, askatasun osoz. Askatasuna delako gizakiaren beste patu bat. Aukeran datzana. Ni hemen nago aukeratu dudalako. Ez aukeratzea, aukera delako.

Ez da erraza esaten ari naizen guztia. Gizakiaren ibilbidean, bidearen zati bat egina nago, orainak mailu bat du bere altzoan, eta begiratzen du askotan ikusezina dena, baina bide horrek badu erakusteko asko. Beharbada hau nostalgia, iragana, oroimena da. Eta hau da niretzat une honetan, nire orainetik dara-

madan gogoeta. Batzuetan astuna, ikusten dudalako orainean ez dudala lortzen arrastoak erakusten duena. Gizakia txikia geratzen da oroimena aldarrikatzen dugunean. Une honetan, berriro oroimenera joko dut. Oroimena niretzat, galdera bat dela esaten dut. Oroimenak ez du bat egiten nire orainarekin, baina ahalgintzen naiz, joan den horretatik, ez-dena, orainean gauzatzen, oraineko bizipenetan taxutzen. Ez dakit.

Eta biziki bizitzen ari naizen bizipena Errenteriako kaleetan gertatzen da. Ez dakit zuentzat, baina niretzat, kaleak hutsik daude. Eta hau paradoxa modukoa da. Mende honen hasieratik esan daiteke, gizakiak, us-tez, kalea irabazi duela. Oinezkoentzat gero eta gehiago pentsatuak daude kaleak, baina hara non, eta kalem gizon-emakumerik ez dago. Pixkanaka desagertzen joan da jendearen presentzia gure herriko kaleetatik. Kaleak biluzik daude. Herrira etortzen naiz, eta bizipen hau gero eta nabarmenagoa da. He-

rriko plazan jendea ez dut bistaratzen. Bakardadearen lainoa hezurretan sartzen zait. Ez dut identifikatzen, beharbada ene ustetan, iraganean bizitutakoa. Eta honek, batzuetan, goibeltzen nau. Iruditzen zait, bizipoza zegoela, edo bizitza soilik, bazegoela. Fabrikak, dendak, honen isla ziren. Ez da nostalgia. Zuzmardian nago. Eserita. Eta apunte hauek, ene buruan argitzen saiatzen ari naiz.

Beharbada gogoeta hauek aurrerantzean landu beharreko uneak dira, lehen aipatu dudan une infinitu eta eternoak indarra ematen didalako. Heriotzaraino. Heriotza, nire bizitzaren oraina. Bera gabe ene burua ez baitut ulertzen. Gure bizitzaren dohaina delako. Apolo eta Dionisos bezala. Bizitzaren ikuspegi tragikoa biak gordetzen dutelako; horiek biak gabe, bizitzaren mahaia hankamotz geratzen da. Eta Dionisos omenduz, mahaian, ardoak bizitzari gorazarre egiten dio.





---

# Jantziaren Zentroa. Ametsa bete da

Jantziaren Zentroa



Iraultza Dantza taldeak hamabost urte luze eman ditu jatorrizko jantzien bilduma herritarren eskura jartzeko proiektua aurrera atera nahian lanean. Azkenean, Errenteriako Udalarekin adostutako hitzarmenari esker, 2017. urte honetako apirilaren lehenean, Kapitain-etxean kokatutako Jantziaren Zentroak bere atek zabaldu zituen.



Errenteriako eraikin zaharrenetakoa den XVII. mendeko eraikinak Iraultza Dantza taldearen ondarea gordeko du aurrerantzean.

Kapitain-etxeko erakusketa prestatzeko lanak luzeak izan dira, hiru hilabete eman ditugu Iraultza Dantza taldeko kideek, negu osoa, boluntario gisa, gure denbora librean guztia prestatzen.

Urteetan, eskuratutako jantzi horiek guztiak jendaurrean aurkezteko lana handia izan da. Artisau lana,

jantziak sortu zituzten jostunen pareko aritu gara, orduak eta orduak, arropa tentuz, mimoz, ukitzen. Lehenengo, apurtutakoa eskuz josi, ondoren markatu, lisatze horizontala, gero, aurrez jantziaren neurrira osatutako manikian lotu, argazkia atera, eta jada bere kokalekuan azken lisatze bertikala. Lan hori guztia —nolabait esatearren, sukaldeko lana— bisitariei erakusteko bideoan ikusteko aukera dute herritarrek Kapitain-etxeak duen ikus-entzunezkoen areto txikian.





Uneotan, 30 jantzi daude ikusgai. Bi solairuetan banatuta. Lehenean, **Herri Jantziak** izenekoan, Euskal Herriko jantziak daude ikusgai, "baserritar jantzi" bezala ezagutzen dugunaren oinarri. Bigarreanean, janzkeraren historiaren errepasoa egiten da 1770. urtean hasi eta 1920. urte bitarte.

Jantziaren Zentroa proiektu bizia izatea da Iraultza Dantza taldearen asmoa. Eta hori lortzeko lehenik eta behin, erakusketa bera, bi solairuetan ikusgai dauden jantzi guztiak sei hilero aldatuko ditugu. Kontuan izan

behar da uneotan ikusgai dagoen ondarea Iraultza Dantza taldeak duen bildumaren ehuneko 20a besterik ez dela.

Iraultza Dantza taldekook, Errenteriako taldea izaki, gure bildumak herrian geratu behar zuela beti izan dugu argi. Errenteriarak gara, eta horretaz harro gaude. Jantziaren Zentroan jantziez gain, gure herriaren historiari eta ondareari lekua eman diogu. Herri Jantzien aretoaren sarreran, zaindari berezi bi topatuko ditugu; Xanti eta Maialen. Errenteriako lehen erraldoiak dira, buruak 1919. urtekoak dira, Udalak Madalen jaietarako erositakoak, eta gorputzak eta arropak 1984. urtekoak dira.

Areto barruan, bitrina handi batean, jada desagertuta dauden Errenteriako fabriketan egindako objektuak daude; Laneran, Esmalterian, Liho fabrikan (Fabrika handian), Olibeten...

Hori guztia dago ikusgai, baina Jantziaren Zentroak jantzi eta objektuen erakusketa baino gehiago izan nahi du. Herritarren jakin-mina ase nahi dugu eta horretarako bisita gidatuak antolatu ditugu. Hileko lehen igandeetan euskaraz, eta bigarreanean







gaztelaniaz egingo ditugu. Interesa duen edonork, bai bakarka, bai taldean, Errenteriako turismo bulegora deituta, 943 49 45 21, erreserba egin dezake.

Etxeko txikienak ere gogoan ditugu, udazkenetik aurrera ikastetxeentzako bisita gidatuak eskainiko ditugu. Gure arbasoen janzkeraren atzean arrazoi ugari daude: klima, garai historikoa, moda, erlijioa... horiek guztiak islatzen dituzte jantziek.

Jantziaren Zentroko erakusketak ikusi, bisita gidatuekin ikasi eta gure arbasoen azalean sartzeko aukera duzue. Joko modura bi esperientzia proposatzen dizkizuegu gainera. Bata, XVIII. mendeko egurrezko armairu barruan topatuko dituzuen kortsea, armazoiak eta gonak janztea; bestea, XVI eta XVIII. mendeetako emakumeen tokian jarri eta argazkia ateratzea.

Gurera etorri nahi duen edonork Kapitain-etxeko ateak zabalik izango ditu larunbatetan goiz eta arratsaldean, eta igande eta jai egunetan goizez.

Zure arbasoen arroparik baduzu, eta gure zaintzapean utzi nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan helbide honetara idatzita: [jantziarenzentroa@errenteria.eus](mailto:jantziarenzentroa@errenteria.eus)

Zatoz gure ametsaren partaide izatera!



# Errenteria 1966-2016

## Comida de las-os nacidas-os en el año 1966.

### 1966 urtean jaiotakoen bazkaria

El sábado 22 de octubre de 2016 celebraron su reunión las (eran clara mayoría) y los nacidos en 1966.



Argazkiak: "Pelukas" Ramos





Las 215 personas que tomaron parte gozaron en un ambiente inmejorable del siguiente programa:

**A partir de las 12:00** fueron quedando en el patio del colegio Koldo Mitxelena para ir poco a poco juntándose, siendo agasajados con un pequeño *lunch*.

**A continuación, a las 13:30** sacaron la foto oficial de la celebración en las escaleras de la parroquia de Nuestra Señora de la Asunción en la Herriko plaza.

**A las 13:45** cogieron los autobuses para desplazarse hasta la sidrería Egiluze.

**A las 14:30** dio comienzo a la comida y seguidamente hubo música y baile hasta las 20h.

**A partir de esa hora** los autobuses fueron llevando a la gente de vuelta al pueblo para que quienes quisieran continuaran la fiesta... algunos y algunas hasta altas horas de la noche...





















Desde esta noticia queremos dar las gracias al Comité Organizador de la fiesta por su implicación y por el resultado obtenido: Ana, Andoni, Cristina, Donato, Esther, Jesus, Jon, Karmele, Manu, Mikel, Violeta y Xabier.







Galletas OLIBET Rentería. - 8. - Eñaut



"Olibet" gailera fabrikaren instalazioak, tren-geltokiaren ondoan, erakusten dituen posta-txartela. EUA A080F134.

---

# Galleteroak: izengoitiak eta ezizenak!

Itziar Gomez Sarasola

Askotan gertatzen da herri batean esatea norbaiten izen-abizenak eta inork gutxik jakitea nori buruz ari garen, baina esan *Sugegorria* edo *Kaxkurrio* eta orduan bai, orduan konturatzea noren inguruan ari garen.




Izengoitiak oso erabiliak izan ohi dira Euskal Herri osoan. Zehatzak dira, goitzenaren beraren esanahiak ere horretan laguntzen du. Gehienetan goitzenak etortzen dira bizilekutik, familiaratik, lanbidetik eta askotan naturatik.

Akordatzen naiz nola gure aitona denei jartzen zien goitizena, haren hizkerak etengabeko umorea eta ironia erakusten zituen. Artista zen edozeini goitizena jartzen. Bat izango zen *azaburua*, bestea *oilo zaharra*, hurrena buru *txikia*, bazuen bertso sena edozein pertsona birbataitzeko. Euskarak beti izan du berezkoa hitz jokoak. Aspalditik erabili izan ditugu goitzenak; nork ez ditu entzun? Herritarren artean deitzeko, herri batekoak beste herrikoei buruz aritzeko. Herri bakoitzak izan ohi du bere ezizena.

Errenteriarrak, adibidez, *galleteroak* gara. Zergatik? Errenteriako industria garrantzitsuenetako bat *Olibet* gailera fabrika zelako, hortik dator *galleteroak* ezizena.

Errenteriako bista jenerala Altamiratik, *Olibet* gailera fabrika ikusten da. 1960. EUA A039F026.



Bai, Euskal Herriko herri askok du bere ezizena eta askotan animalia izena. Hona Gipuzkoako hainbat herriren goitzenak:

Abaltzisketan .....Txahalburuk  
 Albizturren.....Kunplituak  
 Alegin.....Txintxarrik  
 Alkizan.....Oiloak  
 Altzagan .....Zakurrak  
 Altzon .....Tipulek  
 Amezketan.....Elbik



*Olibet* gailera kartel iragarkia. EUA A081F066.

Andoainen .....	Hontzak	Idiazabalen .....	Axerik
Anoetan .....	Kukuak	Ikaztegieta .....	Madriltxikik
Asteasun .....	Tranpazuloak	Itsasondon .....	Ijitek
Ataunen .....	Otsoak	Hondarribin .....	Bikingoak
Azkoitin .....	Xakelak/Igelak	Lazkaon .....	Antzarrak
Azpeitin .....	Zapoak	Leaburun .....	Txalburuak
Baztanen .....	Astoak	Legazpin .....	Ilintxak
Beasainen .....	Bareak	Legorretan .....	Pikuk
Bedaion .....	Makilek	Lezon .....	Trapujaliak
Beizaman .....	Makilak	Mutrikun .....	Lapazorrixak
Bergaran .....	Mokoloak	Olaberrian .....	Dotorek
Deban .....	Tarinak	Oñatin .....	Txantxiuak
Donostian .....	Koxkeroak	Ordizin .....	Azak
	(San Bizentekoak)	Orendainen .....	Eltxoak
	Joxemaritarrak	Orion .....	Ijituak
	(Santa Mariakoak)	Ormaiztegin .....	Harrikalarik
	Ñoñostiarrak (erdikoak)	Seguran .....	Zopajalek
Eibarren .....	Xapu harritsuak	Tolosan .....	Zuriak
Errezilen .....	Akerrak	Zaldibin .....	Arkakusok
Ezkio-Itxason .....	Otamotzek	Zarautzen .....	Haizeak
Gabirin .....	Makilarik	Zegaman .....	Beleak
Gaintzan .....	Zapok	Zerainen .....	Saguak
Getarin .....	Lapajaleak	Zumarragan .....	Otamotzak



Luzea da zerrenda, bai, lehen denek zekiten herri bakoitzaren izengoitia, baina ohitura hau ere galtzen ari da. Hitz egiteko garaian umorea eta sena itzaltzen ez ote doazen. Asko aipatzen zaigu zeinen garrantzitsua den sormena, ideia onak behar ditugula, gure estilo propioa. Eta gero eskolak eta hedabideek euskara jakin bat bultzatzen dute eta horrek euskara nolabait leuntzea dakar. Ondorioz, gero eta berdintsuago hitz egiten dugu denok. Gertatuak gertatu, ez ditzagun gorde gure aurrekoen hitzak kutxan giltzapetuta, eta eman diezaiegun bide gure mingainean *laineza, ez-kailu, kankailu* eta antzekoei.

Olibet gaileta iragarkia. EUA A081F035.





---

# Malen, Grezian

## Gure gazteak lankidetzan Eskualdeko gazte asko ibiltzen da lankidetzan programetan

---

Malen Garmendia Gomez  
Itziar Gomez Sarasola



*Malen, zu sanjuandarra zara jaiotzez, orain Irunen bizi zara eta erreteriarak dituzu ama eta aitona-amonak. Nongoa sentitzen zara?*

Inongoa eta leku guztietakoa. Pasai Donibane oso maitea dut, hangoak ditut aita eta aitaren familia. Lagunak irundarrak eta zu eta zure familia Erreteriarakoa. Hala ere mundutarra sentitzen naiz, non jaiotzen garen eta non bizi garen kasualitateak direla pentsatzen dut.

*Greziar egin dituzu hiru hilabete, errefuxiatu kanpamendu batean. Zerk bultzatu zintuen Greziara joatera?*

Beti nahi izan dut lagundu. Karrera bukatzean bane-kien horrelako zerbait egin nahi nuela. Hasi nintzen Gobernu kanpoko erakunde (ong) desberdinak begiratzen munduan zehar. Hedabideetan ere berriak ikusi eta entzuten nituen etengabe, aztertzen hasi eta azkenean iritsi zen ordua. Beharra zuten pertsona horiei laguntzera joan behar nuela erabaki nuen. Eta zergatik Greziara? Ba aukera egokia zela uste nuelako, laguntzeko ez da urrun joan behar.

*Norekin joan zinen?*

Bakarrik. Ohituta nago bakarrik ibiltzen. 16 urterekin Estatu Batuetan izan nintzen High School batean ikasten, adin horretan etxetik kanpo urtebete egin duzunean asko heltzen zara, erabakiak zuk zeuk bakarrik hartzen ikasten duzu eta horrek askeago egin nau. Erasmus ere Suedian egin nuen. Badakit etxetik kanpo moldatzen. Beraz, lasai joan nintzen Greziara. Zu agian ez zeunden hain lasai, ezta?

*Bueno, beti daukazu kezka. Ez nuen ezagutzen zu zindoa-zen proiektu hori. Harreman guztiak Internetez egin zenu-tuen eta horrek beti ematen du erreparo pixka bat. Esan egia, izan zenuen arazoren bat bakarrik joateagatik?*

Ez, benetan, ondo moldatu naiz. Egia esan, gustatzen zait bakarrik ibiltzea. Horixe da edozein lekutan murgiltzeko aukerarik onena.

Argi dago, bai, neska ausarta zara eta horrek inbidia ematen dit. Nik gaztetan horrelako aukeraren bat izango banu, ez dakit bakarrik joateko gai izango ote nintzatekeen.



Ez naiz beldurtia horrelako gauzetarako. Ez dut uste ausarta naizenik ere, pertsona normala naiz. Baina ez naiz kikiltzen, hori zuen meritua ere bada, beti bultzatu izan nauzue esperientzia berriak bizitzera.

*Greziar zein proiektutan parte hartu zenuen?*

Project ELEA. Bikote batek sortu zuen, bat alemana da eta bestea Ziprekoa, Paula eta Andreas. Lesbosen ibili ziren laguntzen egunero txalupa piloa iristen zen garaian. Han ikusi zuten kanpamenduak hobeto antolatuko behar zirela, errefuxiatuek bizitza duin bat merezi zutela. Eskerak egin zituzten kanpamendu desberdinetan beren proiektua martxan jartzeko eta azkenean baiezkoa lortu zuten Atenaseko ELEONAS kanpamenduan.

*Zein zen zure lana errefuxiatuen kanpamenduan?*

Ekintza desberdinak daude proiektuaren barruan. Iritsi nintzenean oinarritzko ekintzetan parte hartzen nuen; janari eta arropa banaketan. Greziako ministerioak



furgoneta bat bidaltzen du egunero kanpamendura eta guk hango errefuxiatuei banatzen genien.

### *Nolako izaten da janaria?*

Gehien bat arroza eta pasta. Tarteka lentejak, garbantzoak eta babarrunak. Haragia egun berezietan, normalki igandetan. Arrainik ez. Haurdun zeudenei eta diabetikoei menu berezia ekartzen zitzaaien. Haur txikientzat esne banaketa *Milk distribution* egoten zen; esne hautsa, jaioberritatik 2 urtera arte. Beste hurrek ez zuten esnerik. Askotan etortzen zitzaizkigun amak esne eske eta guk ezin eman. Une latzak pasatzen dira batzuetan.

### *Zuk Haur Hezkuntza ikasi duzu eta hori balio izan zaizu han?*

Jakina. Berehala ikusten duzu han haur asko daudela. Ni iritsi nintzenean Astrid, kataluniar bat arduratzen zen haurren hezkuntzaz. Ni harekin lanean hasi nintzen, astebetera Astrid Katalunyarara itzuli zen eta

orduan neu jarri ninduten arduradun. Lan interesgarria izan da. Han ez dago eskola araturik, gurasoek ez dute haurrak inora bidaltzeko beharrik ikusten. Baina egunean zehar haurrak gerturatzen ziren eta harreman politak egin nituen, bai hurrekin eta baita haien familiekin ere. Bestalde, emakumeekin ere lan egiten genuen *Woman self expression* izeneko taldean. Hemen gauza desberdinei buruz hitz egiten genuen, emakumeak lasai egoteko aukera zuten, giro goxoa sortzen zenean gai desberdinei buruz hitz egiten genuen. Egia esan, ikuspuntua ez da hain desberdina, haiek ere gizartearen parte izan nahi dute, emakumea izatea beste era batera bizi dute.

### *Zenbat jende zegoen zuen kanpamenduan?*

2500 pertsona inguru. Bolondres talde desberdinak geunden, ez ELEAkoak bakarrik, Acnur eta beste erakunderen bat ere bazegoen.

### *Nolako harremana zenuen errefuxiatuekin?*

Harreman estua. Egia esan, ni iritsi nintzenerako ohituta zeuden bolondresekin harremana izaten. Hala ere kanpamendua handia da eta denetarik dago, batzuek lehen egunetik hurbiltzen dira ikusten dutenean benetako kezka duzula beraiengan. Beste batzuei kostatzen zaie hurbiltzea. Kontziente dira zu denboraldi baterako zoazela eta gogorra egiten zaie denboraldi jakin baterako harremanak egitea.

### *Ondo hartu zintuzten?*

Oso ondo sentitu nintzen. Jakiten dutenean denbora luzerako zoazela poza hartzen dute eta konfiantza tratua lortzen duzu.

### *Zein hizkuntzatan moldatzen zineten?*

Ingelesa erabiltzen genuen. Bueno, saiatzen dira, azken batean jakin beharra tokatu zaie. Batzuek besteek baino hobeto hitz egiten dute noski. Keinu hizkuntzak ere balio du, ondo elkar ulertzen genuen. Bolondresak ere interesatzen gara beren hizkuntzarekin, oinarritzko hitzak ikasten dituzu eta horrek estutu egiten du harremana.

### *Nolakoa da haien benetako egoera?*

Egoera desberdinak dituzte, nazionalitatearen arabera. Eta nazionalitate askotako jendea dago. Nik uste 50 herrialdeetakoak egongo direla. Nik ezagutu nituen Siriakoak, Afganistanekoak, Pakistanekoak, Palestinakoak, Iranekoak, Irak, Gambia, Sierra Leona, Senegal, Costa de Marfil...

### *Zerk mindu zaitu bereziki han?*

Ez dakit esaten, zu hara iristen zara eta haiekin zaude denbora konpartitzen, ahal duzun guztia haiekin partekatzen. Agian *ong* handien lan egiteko erak sumindu nau. Ez dut ulertzen beraien funtzionamendua. Nola hartzen dituzten erabakiak beraien duten diru guztia gastatzeko. Kudeaketa egokia egiten ote duten zailantza sartzen zaizu. Errefuxiatuenganako hurbiltasun eta komunikazio eskasa ote duten.



### *Greziar gobernuak laguntzen die errefuxiatuei?*

Alde batetik bai. Krisi hau beraiengan hartzea tokatu zaie eta beharrei erantzuten diete, ez dakit ahal duten guztian, baina egiten ari dira, beste herrialde askok baino gehiago dudarik gabe.

### *Ikusten diozu irteerarik errefuxiatuen egoerari?*

Bai noski. Baina ez dago dena ez gobernuen esku, ezta jendearen esku ere, denon esku dago. Nik uste esparru guztietan lan egin behar dela, baita hemen ere. Errefuxiatuak normaltasunez onartzeko, haien egoera jakinarazi behar da bai eskoletan, bai jendarteko arlo guztietan, oso garrantzitsua da. Kontzientziatu egin behar dugu zergatik datozen, guk bezalako pertsona bezala ikusi behar ditugu, normalak dira. Baina bestalde, ezin da itxaron kontzientzia hori gu guztion artean zabaldu arte. Oraintxe bertan, familia piloa dago hor zain. Gobernuen hautua izan behar du hurbiltzea, ikustea zein den egoera eta hona ekartzea.





### *Baztertuak sentitzen dira?*

Ez dute beren egoera oso ondo ulertzen. Denetik dago, baina gehienek dakiten bakarra da euren herria gerran dagoela eta handik ihes egin dutela. Iristean lasaiago daude, arriskutik kanpo, baina denbora pasa eta egoera ez dela aldatzen ikustean ezin egona sortzen zaie. Konturatzen dira beren egoerak ez duela aurrera egiten, seme-alabei bizitza on bat eskaini nahi diete, baina hortxe ezer egin gabe daudela jabetzen direnean oso gaizki pasatzen dute. Baztertuta sentitzen dira. Ezin dute ulertu; zergatik ez du nire egoerak aurrera egiten? Zer gertatzen da? Nik zer erru daukat? Kanpamenduetan depresio, antsietatea eta buru osasun arazoak izaten dira.

### *Hiru hilabete egin dituzu han, desberdin itzuli zara?*

Jakina. Haien egoera lehenengo eskutik ezagutzen duzunean kontzienteago zara. Nik uste asko irabazi dudala pertsonalki eta nire burua profesionalki ikusteko ere balio izan zait. Badakit egoera zail bat nola

kudeatu eta horrek konfiantza ematen dit etorkizunari begira.

### *Itzultzeko asmoa daukazu?*

Nahi nuke, bai.

### *Baduzu harremanik hango jendearekin?*

Bai. Whatsap eta Facebook bidez batez ere. Saiatzen dira ingelesez hitz egiten, badago jendea gaztelera pixka bat dakiena. Badut haien berri, bai.

### *Nongoak zineten boluntarioak?*

Leku askotakoak. Espainiako nahiko boluntario etortzen zen eta euskaldunak ere asko. Proporzioan euskaldun asko. Poza hartzen nuen euskaldunen bat etortzen zenean.

*Lankidetzan ibiltzeak zer ematen dizu pertsona gisa?*

Zure bizitza desberdin baloratzen duzu. Munduko errealitate desberdinak ezagutzen dituzu eta konturatzeko zara denak berdina gaita, leku desberdinetan jaio gaita, hori dugu alde bakarra. Ez gara ez hobeak, ez okerragoak. Non jaiotzen garen kasualitate hutsa da.

*Baduzu beste lankidetzaren bat egiteko asmorik?*

Bai, uda honetan Perura noa Eusko Jaurlaritzaren beka batekin.

*Sekula joan ez garenak konturatzeko gara errefuxiatuen egoeraz?*

Esperientziak entzunda ideia bat hartzen da, bai, baina joan eta haiekin bizitu arte ez dakizu zer sentitzen den. Bestalde, nik uste kanpamendu batera joatea ez dela laguntzera joatea, gu ez gara salbatzaileak. Haiekin elkarrekin lan egitera goaz, erakutsi behar zaie bade-la benetan beraietaz kezkatzen den jendea, munduak badakiela existitzen direla.

*Perun zer egitera zoaz?*

Beste lankidetzeta mota bat. Ez dakit zehazki zertan, eskola batera noa. Gehien bat bertakoengandik ikastera eta beste bizitzeko era bat ezagutzera.

*Ilusioz, ezta?*

Bai noski. Beti. Jende berria, leku berriak, kultura berriak ezagutzeko beti da interesgarria eta aberasgarria.

Muxu zaparrada, Malen. Eta laster arte.



# Eresbil 2016

Jon Bagüés

## Eresbil presentó en noviembre su Guía de fondos y colecciones documentales

En noviembre de 2016 se presentó la Guía de Fondos y colecciones documentales de Eresbil en Madrid, en el marco del Congreso de la Sociedad Española de

Musicología. Se trata de una página web especialmente dedicada a mostrar los 170 fondos de archivo de que disponemos. La información de cada fondo contiene una breve descripción del productor del fondo, varias imágenes de documentos destacados del mismo, además de una ficha descriptiva y el inventario del fondo.

Presentación de la Guía online de fondos y colecciones documentales de Eresbil

+34 943 000000 | bulgoa@eresbil.com | Euskara | Español  
 AURKEZPENA | GIDA ALFABETIKOA | FUNTS MOTAK | SAILKAPEN TEMATIKOA

**FUNTSEN GIDA ETA DOKUMENTU-BILDUMAK**  
**ERESBIL**  
**ERESBIL**- Musikaren Euskal Artxiboa-k 1974tik aurrera euskal musikarekin eta musikariekin erlazionatutako dokumentuen funtsak eta bildumak jasotzen hasi zen. XIX. mendetik hasi (V. Zubiaurre) eta gaur egun arteko musikarien (F. Escudero) funts pertsonalak; interpreteen funtsak (N. Zabaleta); Musika erakundeen funtsak (coro Maitea); familia funtsak (Mugartegui) edo soinu bildumak (Ybarra Familiaren biribilkiak) aurki ditzakegu. 2016ko datarekin, musika dokumentazio mosaiko aberatsa osatzen duten euskarri, idazkera, mota eta genero ezberdinetako ehun eta hirurogeita hamar funts daude.

**SASKI NASKI**  
 Dantza-ikuskizuna

Legezko abisua | Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa | Euskadiko Artxibo Historikoaren laguntzarekin | VRTXIBO



## Guía de grupos musicales de Errenteria (1960-2016)

A comienzos del año 2016 Eresbil organizó el ciclo "Euskal Rock @ Film" de cine musical. Fueron tres las sesiones, con la proyección de los films *Kampsa, 20 años de sueños y escombros*, *Emarock*, y *Vinyland*. Con ocasión de las proyecciones se presentó la Guía online de grupos musicales de Errenteria y comarca. Contiene los grupos que desarrollaron su actividad entre los años 1960 y la actualidad, con un total de 48 solistas, grupos y bandas. Puede consultarse la guía a través de la presentación de la página web de Eresbil ([www.eresbil.com](http://www.eresbil.com)) o en la dirección <https://www.joo-mag.com/magazine/errenteriako-musika-taldeak/0813648001423213493?preview>.

## Eresbil colaboró con la Capitalidad Cultural en el proyecto Coralea

En un año destacado por la capitalidad cultural europea de Donostia, Eresbil ayudó en la puesta en marcha de varios proyectos. Se inauguraba así en febrero en la sala Ganbara del Koldo Mitxelena de Donostia una exposición dedicada a la danza tradicional, con el nombre de "Soka". Eresbil colaboró con esta exposición aportando materiales.

Además de los dos programas producidos por Musikaste, de los que damos cuenta en el artículo respectivo, la principal colaboración de Eresbil con la capitalidad se materializó con el proyecto Coralea, que produjo una hermosa exposición sobre el proyecto



Cartel del ciclo de cine musical Euskal Rock & Film, 2016.

Eresoinka, en la que colaboramos como asesores, aportando materiales, así como en la ayuda en la producción del espectáculo que con el título de "Eresoinkaren itzalak" se estrenó en el Théâtre Quincaou de Anglet de la mano de Dantzaz Konpainia y Kea Ahotsa Taldea con coreografía de Martin Inthamoussu. Fue un hermoso espectáculo que lamentablemente no pudo verse en Hegoalde.

---

### Nuevos ingresos de fondos documentales y una digitalización especial

En marzo de 2016 llegaron desde Madrid nuevos materiales del fondo M<sup>a</sup> Luisa Ozaita, principalmente discos de 33 rpm, y por otra parte, nuevos materiales del fondo Juan José Aguirreche, cantante, y de su hijo Sebas Agirretxe relacionados con sus actividades como gestor cultural. En junio de 2016 ingresaron nuevos materiales tanto de Jose Ignazio Ansorena, como de su padre Iñaki Ansorena, procedentes de Donostia. Y a finales de año ingresó el fondo de la bailarina y profesora de danza Idoia Lecumberri, integrante del Ballet del Conservatorio de San Sebastián, así como una colección de cintas de bobina pertenecientes al director de cine y teatro Aitor de Goiricelaya, juntamente con una copia de la documentación digitalizada.

Una novedad interesante del 2016 fue la localización en San Sebastián del álbum de programas, fotografías y recortes del proyecto músico-coreográfico Saski-Naski en su primera etapa donostiarra, que se inició en 1928 concluyendo sus actividades en 1932. Una vez digitalizado, puede consultarse el mismo en el archivo.

---

### Se consolida el proyecto de recuperación de vídeos de danza tradicional

Eresbil continuó gestionando y coordinando a lo largo del año 2016 los trabajos de recogida, digitalización, traqueado y catalogación de vídeos analógicos relacionados con la danza tradicional. Ya pueden consultarse en el archivo más de 600 cintas de vídeos

relacionadas con manifestaciones, festivales y actuaciones de danza tradicional en el País Vasco, pudiendo acceder asimismo a las fichas de las mismas a través de internet.

---

### Colaboración en la página web dedicada a Mikel Laboa

Además de las habituales colaboraciones con instituciones (Musikene, Orquesta Sinfónica de Euskadi, Dantzaz) y asociaciones (Musikagileak o Euskal Dantzarien Biltzarra), el pasado año 2016 se colaboró con la Cátedra Mikel Laboa, en especial con los contenidos de la página web dedicada al destacado creador contemporáneo. Una vez finalizada la página, está ya consultable en la dirección:

<http://www.ehu.eus/mikellaboa/home>


El pasado año 2016 se colaboró también con la Asociación arteliburu21 en dos actividades. En enero se celebró en el Koldo Mitxelena Kulturunea una mesa redonda con el tema "Introducción a los archivos y bibliotecas musicales"; y en noviembre se colaboró cediendo impresos musicales para la exposición de partituras "Música en tinta" celebrada en la biblioteca del mismo centro.



Programa de presentación del espectáculo Saski-Naski (1928)

## Contenidos documentales de Eresbil

En el cuadro adjunto indicamos los documentos que han ingresado en el archivo durante el año 2016, tanto por compra como por cesión en depósito o donación. En la columna de la derecha se indican las cifras totales de los documentos que a 31 de diciembre de 2016 están inventariados en las bases de datos informatizadas y son accesibles en Eresbil. Los números no reflejan en realidad el volumen de todos los documentos que están en Eresbil. La documentación de carácter personal que recogemos de compositores e intérpretes, que rebasa en la actualidad la cantidad de los 24.581 dossiers se describen en fichas que engloban en realidad más de un documento.



Cuarteto de Delphin Alard (1915-1888)  
adquirido por Eresbil.

<b>Partituras / partiturak</b>	<b>673</b>	<b>89.655</b>
Manuscritos/ Eskuizkribuak	41	17.992
Impresos/ Inprimakiak	398	54.203
Multicopias/ Multikopiak	88	15.894
Microformas/ Mikroformak	-	51
Ficheros / Fitxeroak	146	1.515
<b>Biblioteca / liburutegia</b>	<b>422</b>	<b>19.008</b>
Libros/ Liburuak	400	17.680
Revistas/ Aldizkariak	10	845
Microformas / Mikroformak	-	458
Ficheros / Fitxeroak	12	25
<b>Documentación / dokumentazioa</b>	<b>1.421</b>	<b>25.876</b>
Doc. personal-histórica / Dok. pertsonal-historikoa	1.150	6.838
Cartas/ Gutunak	-	2.717
Programas / Programak	27	3.654
Carteles / Kartelak	4	349
Fotografías / Argazkiak	212	10.739
Grabados, iconografía / Grabatuak, ikonografia	28	299
Otros / Beste batzuk	-	1.280
<b>Seccion audiovisual / ikus entzunezkoen saila</b>	<b>954</b>	<b>109.945</b>
<b>Seccion audiovisual / ikus entzunezkoen saila</b>	<b>1.421</b>	<b>25.876</b>
Cilindros de cera / Argizarizko zilindroak	-	551
Discos/ Diskoak 78 rpm	17	3.621
Discos/ Diskoak 45 rpm	42	50.829
Discos / Diskoak 33 rpm	211	29.867
Rollos de pianola / pianola-biribilkiak	27	1.002
Carretes de cinta/ Zinta-txirrikak	13	496
Casetes/ Kaseteak	33	4.516
Discos compacto/ Disko trinkoak	570	16.424
Minidisc/ Minidisc-ak	-	16
DAT/ DATAK	-	210
CD-ROM/ CD-ROMak	1	227
Vídeos/ Bideoak	-	1.201
Laser-disc	24	5
DVD/ DVDak	5	765
Ficheros / Fitxeroak	5	
Materiales mixtos / Nahasiriko dokumentoak	6	162
Grabados, iconografía / Grabatuak, ikonografia	28	299
Otros / Beste batzuk	-	1.280
<b>TOTAL / GUZTIRA</b>	<b>3.470</b>	<b>244.484</b>





Abenduaren 1etik Urtarrilaren 7a arte  
Del 1 de Diciembre al 7 de Enero

Presentación de la exposición sobre ediciones musicales vascas en Koldo Mitxelena Kulturunea

## La página web de Eresbil al día

Las visitas a la página web de Eresbil llegaron en el año 2016 a la cantidad de 492.300, un 88,05 % más que el año anterior.

Los usuarios procedían de más de 49 países diferentes con cuatro áreas geográficas destacadas: Estados Unidos, con un 19,28% de visitantes, Reino Unido con un 17,81%, España con un 13,05% e Italia con un 9,56%. Las páginas temáticas que tuvieron más visitantes fueron las de Sarriegui (9.781), Usandizaga (4.877), Guridi (4.336) y Arana-Martija (3.284), así como la página dedicada a las discográficas vascas (5.273).

La página pone asimismo a disposición de los usuarios de la red el contenido de sus cuatro bases de datos:

---

Partituras de compositores vascos:  
33.245

---

Vaciado de artículos (Bibliografía Musical Vasca):  
10.137

---

Directorio de instituciones musicales y de danza de Euskal Herria:  
2.228

---

Catálogo de partituras, libros y discos:  
67.236

---

El pasado año 2016 se pasó de atender 833 peticiones personalizadas (en 2015) a 924, lo que significa un aumento del 11%. Sigue aumentando el número de los usuarios que utilizan el correo electrónico como medio de solicitud de los servicios de Eresbil, seguido por la consulta telefónica. De manera que un 43% de usuarios tramitaron sus pedidos por correo electrónico, un 27% de usuarios por consulta telefónica, un 24% fueron usuarios presenciales, un 4% de usuarios que se comunica a través del correo postal y un 2% a través de la página web.

Se mantuvieron asimismo durante el año 2016 las visitas en grupos a la sede de Eresbil. Además de las habituales visitas de los nuevos alumnos de Musikene, nos visitaron los alumnos del Curso de Dirección Coral organizado por la Federación de Coros de Euskalerrria, dos integrantes del proyecto Sasaki-Naski de Argentina, los Directores de Archivos y Museos del Gobierno de Navarra o los alumnos del Master en Estudios Orquestales organizado por Musikene en colaboración con la Orquesta Sinfónica de Euskadi.

Como de costumbre, concluimos este informe del año 2016 de Eresbil con la cordial invitación a todos cuantos deseen conocer más de Eresbil a visitarnos en: [www.eresbil.com](http://www.eresbil.com)

---

# Mikel Carcedo Mitxelena gogoan

---

Julian Albistur Aranburu



---

Mikel Carcedo Mitxelena



---

1999. Mikel herriarteko bertso-saioan entzule



---

1999. Mikel gai-jartzaile Txantxangorri Sarian

---

Martxoaren 26an, udaberriaren hasierako igandean, Koldo Mitxelena hizkuntzalari handiaren omenez eraikitako eskulturaren inaugurazio egunean, berri txar bat jaso genuen: Mikel Carcedo herritarrak utzi gintuen, ustekabean.

Mikel bertsozalea zen, gaztetan Xenpelar Bertso Eskolako ikasle izana. Geroago beste arlo asko jorratu zituen bizitzan. Bertsolaritzatik eta euskalgintzatik elkar ezagutu genuen. Berarekin harreman estuagoa izan zutenek sakonago idatziko dute bere bizitzari buruz aldizkari honetan. Nire aldetik, bertso-sorta hau eskaini nahi diot, esker onez.

## Doinua: "Ikusten duzu goizean"

1

Pozaren iraupen motza  
entzunez berri mingotsa,  
bizitza baita zorrotza.  
Kulturgintzako jardunarekin  
Carcedoren heriotza:  
egun berean hilotza;  
minberaturik bihotza,  
eten zitzaigun ahotsa.

3

Udaberria hasita  
heriok egin bisita:  
hogeita seian zen zita.  
Azken bidaia, hemen emazte  
eta semea utzita  
minez bihotzak hautsita,  
lagunak etsi-etsita,  
ezin zuten sinetsi-ta.

5

Sendoa zen zutabea,  
harrokeririk gabea,  
gizarte mailan trebea.  
Berdintasuna, aniztasuna...  
aldarrikatzen fedea,  
murgiltzen zen partaidea:  
beti urratuz bidea  
osatu ibilbidea.

7

Txapelaren inguruan  
ideiak garbi buruan,  
beti modu seguruan.  
Etokinekin eredugarri  
gizarteratze-gudian,  
fin ezagutu genduan  
amesten zuen moduan:  
askatasunez munduan.

2

Igandez ospakizuna,  
eguerdian zen jarduna,  
bertan jende ezaguna:  
eskultura bat jarriz omendu  
zen Mitxelena kuttuna.  
Gero ilundu eguna,  
joan zelako laguna:  
Mikel gizon txapelduna!

4

Maitatzen zuen herria,  
bihotzeko aberria,  
baita ere baserria:  
landa berdeak, zuhaitz, loreak  
apainduz udaberria...  
Natura gustagarria:  
mendi, harkaitz nahiz harria,  
dena baita ongarrria.

6

Zinegotzi politikan,  
ideiak jarriz praktikan  
dirurik gabe patrikan.  
Mundu hobe bat amesten zuen  
beste gauzen gainetikan,  
saltzen ez dena botikan  
hark zeraman genetikan.  
Nota bikaina etikan.

8

Pertsona eskuzabala,  
jatorra eta leiala,  
zintzoa bezain apala.  
Tratuan oso gizon samurra,  
ikur balore-eskala;  
enbor oneko ezpala,  
ez denez izan makala,  
saria jaso dezala.



1997. Mikel Jexux Mari Irazuri saria ematen



1997. Mikel Nikolas Zendoari saria ematen

9

Mantentzen zuena hitza,  
maitatuz bertsolaritza,  
euskara zein kulturgintza.  
Agurtu gabe azkar joan da  
nahiz zirudien haritza,  
utzirik mila ekintza,  
ulertezinik gabiltza.  
Zein gogorra den bizitza!



# Lampedusako gutuna

2016ko abuztuan Mikelazulon antolaturiko Harresirik Gabeko Lurraldeak ekimeneko 14 lagun joan ginen Lampedusara.

Lampedusa, guretzat, sinbolo bat zen. Europako lotsaizunaren sinboloa.

Melillako harresia, Calaisko Kontzentrazio Eremua, Mediterraneo kanposantua, azken urteetako errefuxiatuen egoera, Europan barrena barreiatuak dauden CIES-ak (etorkinen gartzelak)... horren guztiaren sinbolotzat hartzen genuen Lampedusa.

Mikelazulo Kultur Elkartea

2013ko urriaren 3an, Europako eta Italiako armada eta gobernuen utzikieriaz Lampedusako kostaldetik ehun bat metrora barku-patera bat hondoratu zen eta 300 bat etorkin itota hil ziren. Katastrofe horien guztien sinboloa zen guretzat Lampedusa. Gertutik nahi genuen ikusi, sentitu, informazioa jaso. Gogoeta eginez protesta ahotsa altxatu nahi genuen.

## O. Sarrera

Azken mendeetan "mendebaldeko" esperientzia eta esperientzia horren pentsamendua arrazakeriaz kargatua dago. Herentzia hori gure gaineko zama dugu eta aski sakon barneratua, naturalizatua. Arrazakeria biologikoa (beltzen eta indioen esklabotza), arrazakeria kulturala (mendebaldeko zibilizazioaren —erlijioa barne— imposaketa triskantza bihurtua), arrazakeria soziala (lan alokatuaren esklabotza eta patriarkatuaren gerra). Arrazakeria ez da gorputziaz gabeko pentsamendu soila, hizkuntzan txertatua, eremu eta egitura juridiko-politiko, ekonomiko, kulturaletan txertatua baizik.



Azken hamarkadetan migrazio mugimendu erraldoiak izan dira mundu osoan. Landa lurretako milioika pertsonak, behartuta, hurbildu dira beraien lurraldeetako hiriburuetara, miseriazko auzoz altxatu diren megapoliak osatuz. Milioika pertsonak utzi dute bere lurraldea eta beste lurralde batera emigratu dute. Afrika barnean, Txinan, Hegoamerikan bertan pertsonen mugimendu behartuak izan dira nagusiak. Parte bat, "mendebalde aberatsera" mugitu da. Harresiak nonahi: Estatu Batuetan, Palestinan, Mediterraneoan, Europa barnean.


Jendetza mugimendu erraldoi honen zuzeneko erantzule dira "hirugarren mundua" deituriko horretan inposatu diren "doikuntza estruktural" deiturikoak (FMI eta BM-ren politikaren ondorioak), gerra-sustatzaileak, aldaketa klimatikoaren ondorioak. Energiaren, arma-mentuaren, elikaduraren, farmaziaren, kulturaren multinazionalen kapital-akumulazioaren izenean erein da miseria, gerra eta ondorioz probokatu da migrazioaren fenomeno itzela. Kapital akumulazioaren krisiak eztanda egin du 2008. urtean. Munduko bizitza duinaren krisia aspaldikoa da.

Egindako esperientziatik abiatuta, hiru atal nagusitan antolatu dugu gure gogoeta:

I.- Ikusezintasunaren politika; II.- Manipulazioaren adarrak; III.- Hiru begirada.

## I. Ikusezintasunaren politika

Lampedusara iritsi ginenean, abuztua baitzen, hiri turistiko bat aurkitu genuen. Tragediaren ageriko arrastorik ez. 6.000 biztanle dituen Lampedusa, udan 40.000 izatera heltzen da. Barkuak, barkuetan kanta eta festa turistikoak, plaia-kala zoragarrietan eguzkitan, Roma kale nagusia turismoaren espektakuluaren erdigunea.





Ez genuen etorkinik ikusten, ez paterak iristen. Lehengo egun arratsean, Askavusa taldeko lagunekin gina, ikusi genuen kalaz kala barkutan egun pasa egin ondoren itzultzen ari ziren turisten kanta-dantza Lampedusako kaian sartzen eta, aldi berean, etorkin ilara luze bat, poliziez inguratuak, barku handi batean sartzen... Siziliako CIES batera eramanak.

Esplikazioaren bat behar genuen eta Askavusakoek eman ziguten. Katastrofea ikusezina bihurtzeko ahalgin kontziente bat egiten dute Europako gobernu guztiek Europako Batasunaren gidaritzapean. Ezin da guztiz ikusezinen egin, baina ahal delarik ahal den ikusezinen bihurtu. Nola?

Hiru neurri nagusi.


- Mediterraneoan aurkitzen duten ontzi pateretako jende etorkina jaso; gauez, ia inork ez ikusteko moduan Lampedusara ekarri; eta gauez autobusetan harrera zentroa deitzen duten kartzelan giltzapetu. Harrera zentro delakoan badute eskubidea, juridikoki ez baitira presoak, handik ateratzeko, baina atea itxita dute, ez dadila beraien presentzia herrian nabarmendu. Harrera zentroa uharteko lurralde lehorrak eta populatu gabean, hirigunetik urrun eraikia dago. Kontakturik egon ez dadin. Harrera zentroan egun batzuk egon beharko lukete, baina asko hilabeteak egoten dira. Zer nolako baldintzak? Bisitan joan nahi genuen, baina Barne Ministerioko baimena behar zen. Bertan lanean ari direnek isiltasun ituna sinatu beharra daukate, bertako egoera inolaz ere ez emateko konpromisoa hartuz.



teko konpromisoa hartuz. Gure egonaldiaren azken gauean, ikusi genuen nola iristen zen barku bat, etorkinez betea, itsasoan jasoak. Eguerdirako barkuan zeuden, baina barkua gaua iritsi arte ez zen portura hurbildu. Gauez, jendeak ikusi ez zezan, autobusetan sartu eta eraman zituzten harrera zentrora.

- Europako frontierak eta Mediterraneo osoa militarizatu. Harresiak Melillan, Europako ekialdean, eta mugako puntu batzuetan kontzentrazio eremuak (Idomenea, Lesbos, Chios, Calais). Pasaran direnak, baldintza tamalgarrietan, baina handik irteteko esperantza bakarra, atzean utzi duten infernura bueltatzea da. Baina oroz gain, salbamenduaren eta humanismoaren izenean eratzten den militarizazio guztiarekin, 2016. urtean 5.000-tik gora izan dira Mediterraneoko uretan itoak.





- Mediterraneoko estatu mugakideekin (Turkia, Libia, Aljeria, Tunizia, Maroko), migrazioa kontrolatzeko helburuarekin, Europatik urrun kontzentrazio eremuak eraiki dezaten milioika euroko akordioak egin.

Ikusezintasunaren sarea zabala da, eta, hala ere, ezinbestez ikusi egiten dena manipulazio-aitzakia bihurtzen da.

## II. Manipulazioaren adarrak

- **Migrazioaren fenomeno nola azaldu:** Nonbait sortzen den zerbait da eta Europak ez du inongo erantzukizunik. Pobrezian eta gerran bizi diren

herrialdeetako jendea Europara nahi omen du, eta Europak erreakzionatu egiten du, bere bizimoldea eta nortasuna eta segurtasuna defendatuz.

Baina pobrezia hori eta gerra horiek eta aldaketa klimatikoa... nork eragin du? Nork babestu ditu diktadurak, nork Israelgo estatu arrazista terrorista? Nork produzitzen ditu eta saltzen ditu gerra horietan erabiltzen diren armak? Nork egiten du negozioa gerra horiekin eta Europako fronteren militarizazioarekin? Nork du ISISen existentziaren erantzukizun politiko militar ekonomikoa? Nork erosten ditu milioika lur-hektarea miseriara kondenatuz milioika eta milioika pertsona? Nork inposatu ditu azken 30 urteetan "doikuntza estrukturalak"

huts egindako estatuak biderkatuz Afrika osoan? Ez al dira multinazionalak eta mendebaldeko estatuak? Hau da lehen manipulazio itzela, globala. Segurtasun eta gupida hipokrita eta gezurtiaren argudioak erabiltzea Europako erantzukizun politiko militar ekonomikoak ezkutatzuz. Komunikabideak gerra honetan arma erasokorrek dira, gehienetan.

- **Migrazioa negozio bihurtu:**

Ikusmira zentratzen da batez ere ontzi-pateren mafiak egiten duen negozioan. Hori da bat. Sentimenduak zuzen ukitzen duena. Areago doa, ordea, arazoa. Sentitzen ez dena bestea da: negozioerik borobilena, legez eta dekretuz elikatzen dena.

Europako segurtasuneko eta ekoizpen militarreko enpresa pribatu gutxi batzuen milaka milioi euroren negozio borobila da migrazioaren aurkako politika europarra. Harresiak, itsasontziak, hegazkinak, sistema elektronikoko sofistikatuak, radarrak. Lampedusa zeharo militarizatua dago.

Azkenik, migranteen fluxu kontrolatua lan-indar erreserba bezala erabiltzen dute enpresariak langileen arteko kompetentzia areagotzeko, soldatak jaisteko. Eta gobernuek migranteak erabiltzen dituzte austerizidioaren egitasmoaren lehen frogak egiteko. Langabezia eta osasungintzako murrizketak lehenik etorkinekin eta gupidarik gabe frogatu ziren.

- **Migrazioaren gain hipokresiaren espektakulua eraiki:**

5.000tik gora hildako Mediterraneoan 2016ean. 30.000 azken bi hamarkadetan. Katastrofe handiak gertatzen direnean agintariak deitoratzen dute gertatutakoa. Baina hildakoen kopuruak garbi salatzen du Europako instituzioen miseria kriminala. Beraien politikak dira erantzule. Eta migrazioari aurre egiteko politikak areagotzen ditu ondorioak. Emigrazioa oztopatzeko gastatu den diruarekin milaka bizitza salbatuak egongo liriateke. Salbamendua ziurtatzeko aldarrikapenak zurikeria hutsa dira. Ez giza eskubiderik, ez bizitzeko eskubiderik. Bizitzak bitara balioztatzen dira.

### III.- Hiru begirada

#### 1. Begirada arrazista. Islamofobiarik ez!

Europa gotorleku bihurtu nahi dutenen jarrera da. Etorkinek "kutsatzen" omen dute Europako lurra, historia, balio kulturalak, identitatea, hitz batez zibilizazioa. Gainera ezdeus miserableak dira, asozialak, biolentoak, terroristak, ez-fidagarriak, susmagarriak, uholde arriskutsua dira. Migrazioaren esplikazioa munduko beste lurraldeetako atzerapena da. Atzerapena, berriz, inzibilizazioaren ondorioa. Gu, mendelbaldarrak, gara zibilizatuak.

Jarrera honetarako mendeetako konkista-kolonizazioak eta II munduko gerra ondorengo estatu berriei mendebaldeko "zibilizazioak" inposatu dien politika ekonomikoa, lurren pribatizazioak, gerrak, elikatutako diktadurak eta estatu porrotak ...ez omen dute zer ikustekorik migrazioarekin.

Arrisku eta mehatxu gisa definitu ondoren migrazio behartua nolabait kontrolatu beharrekoa da. Europako Lotsaren zuzentaraua eta Gobernuen migraziolegeak dira arrazismo instituzionalaren agerpen nabarmenak. Batera datoz harresien eraikitzea, mugak militarizatzea, eta komunikabide nagusien akulturizazio masiboa: mendebaldeko harrokeria, ignorantzia probokatua eta beldurraren inokulazioa, bertako esplotatuak eta etorkin esklabizatuak elkarren kontra jartzeko ahalegin kriminala. Tragikoa da ikustea bizitzaren balioa balantza trukatu baten arabera neurtzen dela. Europan egindako atentatu bati ematen zaio munduko oihartzun. "Denok gara, nonbait, Charlie". Eta gertatu



denari buruz ematen den informazioa, neurri handi batean intoxikazioa baizik ez da. Baina 30.000 pertsona anonimo Mediterraneoan asasinatuak ez da segundo bateko notizia izatera bihurtzen.

Jarrera honen muturreko aurpegia da eskuin-muturreko islamofobia. Edozein emantzipazio ahaleginen aurkako minbizia.

## 2. Begirada errukior autozuritzailea

Migrazio fenomenoaren ondorio lazgarri batzuen (hain zuzen, mendebaldeko mugetan eta lurretan ikusten ditugun irudien) eraginpean, deseroso, ukitua sentitzen dugu barnea. Egoeraren gehiegikeriak arintzeko laguntza indibiduala sustatzen da. Gure bizimodua kolokan jartzen ez duen laguntza da. Aitzitik, egiturazko erro sendoez eta egitura horren sostenguaz axolatzen ez da. Pobreak laguntzeko nolabait prest dago, baina pobreen produkzioa ez du ikusten. Are gutxiago, ez du loturarik ikusten du gure bizimoduaren eta sistemaren antolakuntzaren artean. Horrela, bide batez, baieztatzen dugu ez garela kondenatuen saldokoak.

Laguntza humanitarioaren izenean antolatu diren hainbat ONG (ez denak, noski) sarraskiaren eragileek finantzatuak daude. Sistemaren euskarri kultural nagusiek (komunikabideak, telebistak, kultur monopolioak) sistema bera zuritzen dute "laguntza humanitarioaren" aitzakian. Sintomak arintzen dira eta gaixotasuna sendotu.

Bestalde, jarrera honek ez ditu agerian jartzen gure inkoherentzia eta atxikia dugun arrazakeria zantzua. Erraza da diru piska bat ematea eta lagundut pentsatzea. Baina, agian, gero nire herrian edo auzoan eraiki nahi den meskitaren kontra sinadura eman dezaket. Edo, katastrofe hauek sustatzen dituzten politikoei botoa ematen diegu. Edota, sinpleago, erabiliko ditugu amorruez "putos negros" edo "putos moros" esamoldeak. Edo, pisua alokatzerakoan begiratuko diogu lehenik beltza den edo arabiar itxura duen.


## 3. Begirada eraldatzailea

Migrazioarekin dagoen arazoa Europako Batasuna eta osatzen duten gobernuak dira. Arazoa sufritzen dutenak etorkinak dira. Eta biktimak erasotzailertzat hartuak dira ofizialki.

Etorkinak deiturikoak, pertsonak dira bizitza duin baten alde ahalegin itzelak egiten ari direnak. Ez dira etorkinak, etorkin egoeran daude. Eta etorkinak dira estatu-nazioek sailkapen-diferentzia hori sustatu dutelako.

Etorkin dagoenaren egoera erabateko menpekotasuna da. Emantzipazio orokorretarako ahalmen izugarria.

"Etorkinekin" batera, mundu berri bat. Etorkinen kontra, hondamendia.





---

# Antonio Prior Castellanos, niño de la guerra

---

Agrupación Republicana Pikoketa



Nació en Donostia, en el barrio de Egia, el 10 de diciembre de 1925, en el seno de una familia de siete hermanos, una chica y seis chicos. De sus primeros años, primero con la Dictadura de Primo de Rivera y después durante la República, apenas recuerda nada salvo que fue a la escuela de Egia cuyo edificio se conserva hoy.

---

Rosario García y Antonio Prior.

Su padre era ingeniero técnico en Tabacalera y como tal le tocó evacuar la maquinaria a Bilbao antes de la entrada de las tropas fascistas en San Sebastián por lo que toda la familia tuvo que desplazarse a la capital vizcaína. Antonio vivió la angustia de ver cómo, poco a poco, iba cayendo el territorio vasco en manos de los golpistas y cómo cada vez eran más frecuentes los bombardeos de la capital y alrededores.

Junio de 1937. Revista Punto y Hora, de julio de 1986. *La ofensiva fascista sobre Bizkaia iniciada en marzo -ocupación de los macizos de Sollube y Bizkargi, bombardeos de Durango y Gernika- tocaba a su ataque final tras la rotura del Cinturón de Hierro que rodeaba la capital vizcaína. Para ello, entre el 28 de mayo y el 5 de junio, las tropas nacionales acrecentarían los combates en torno al asedio de Peña Lema y de Bilbao a través de todos los puntos:*

*Santo Domingo, Artxanda, Pagasarri, Malmasin... Entre las fechas del 11 de junio al 19, fecha de entrada de los franquistas en Bilbo, se culminaría la vasta operación planificada por los sublevados. Fue en junio, cuando en medio de los bombardeos sobre Bilbo y su margen izquierda de la ría, miles de niños se disponían a ser evacuados en barcos al extranjero. Unos partirían con destino al Estado francés, a Inglaterra, y Suiza, mientras que otros serían acogidos en la Unión Soviética”.*

Su familia tiene que tomar una dura decisión: evacuar a varios de sus hijos al extranjero. Antonio, junto a dos de sus hermanos, embarcan en el buque “La Habana”, junto a otros miles de niños y niñas con destino a la Unión Soviética (todos ellos entre 4 y 16 años). Iban acompañados de monitores y maestros, al amparo de la Cruz Roja Internacional. Recuerda la escala que hicieron en el puerto de Burdeos con un gran recibimiento, que se convirtió en apoteósico al llegar a San Petersburgo (Leningrado) el 17 de junio de 1937.

En la Unión Soviética permanecerá desde junio de 1937 hasta 1956, casi 20 años de exilio, en lo que para Antonio será su casa. Según recuerda, eran unos 3.000 niños que fueron acogidos en las llamadas “Casas infantiles para niños españoles, situadas en diversas repúblicas soviéticas, al objeto de no perder sus raíces y costumbres. Antonio vivió en las afueras de Moscú, según él, una de las dos ciudades más bonitas del mundo, junto a San Sebastián, hasta 1941, cuando la URSS entró en guerra contra el nazismo, lo que allí se llamó la Gran Guerra Patria.

Nada más llegar, los pusieron a estudiar, los primeros cinco años lo hicieron en castellano y posteriormente en ruso. De 1941 a 1945 vivió en los Urales, estudiando en la Escuela Superior Profesional donde obtuvo el título de mecánico-electricista. Durante la guerra compaginó los estudios con la práctica en la fábrica de tractores donde trabajaba que en ese periodo se reconvirtió fabricando tanques de combate. Durante una visita a la fábrica conoció a Stalin y Molotov.

Al finalizar la guerra, en 1945 retornó a Moscú, según comenta, por orden expresa de Stalin que pretendía evitar que aquellos niños de la guerra, ya jóvenes, perdieran su lengua. En 1954 se casó con Luisa García con la que tuvo su primer hijo. El segundo ya nacería en

Donostia. Luisa, que en estos momentos se encuentra hospitalizada, era asturiana. A su padre lo mataron con 28 años quedando su madre muy joven con tres hijas pequeñas por lo que tuvo que enviar a dos de ellas a la URSS. A los dos meses de salir del puerto de Gijón, murió su madre. Allí se hizo delineante.

La vuelta a San Sebastián se produjo en 1956, primero a Egia donde vivía su familia, para desplazarse a Errenteria ya en 1959 donde ha vivido hasta hoy. Conserva un amargo recuerdo del reencuentro con la familia, que él lo define como “frío”. Casi 20 son muchos años y la sensación de pérdida del cariño, palpable.

Como profesional que era, enseguida encontró trabajo en la empresa Jesús Romero y Hnos., situada frente al Kursal, donde permanecerá por espacio de 27 años, hasta su jubilación.

En la URSS no llegó a militar en el Partido Comunista ya que al marchar se encontraba en la fase de “candidato”. Sin embargo, ya en 1959 se integra en el P.C. de Euskadi, siendo detenido en 1962 por el célebre Melitón Manzanos en una caída que afectó a 27 militantes que fueron a la cárcel, donde permaneció por espacio de un año, siendo defendido por Enrique Múgica.

A fecha de hoy sigue participando activamente en la lucha por la República que Antonio no pudo disfrutar.



# Aizate: una escuela especial

El tiempo pasa inexorablemente y, sin apenas darnos cuenta, el ayer va quedando cada vez más lejos. Hay, sin embargo, algunos aldabonazos que tocan en nuestro interior y nos obligan a girar la cabeza para mirar al pasado. Esta mirada es una mezcla de nostalgia, de pena... acompañada de una sensación de realismo, que ayuda a recomponer una unidad de vida casi olvidada.

Juan María Leonet Zabala

En 2016 nos dejó una persona que hizo felices a muchos niños y niñas de los caseríos más alejados de Errenteria en un área limitada por Aldura y Estrataburu. Se trata de Josefa Etxeberria Sarasti, que regentó una singular escuela ubicada en Aizate, cerca de los caseríos Belaztegi, Txoritokieta, Suanza y Fraile o Errekalde y Egieder. Creo que es de justicia recordar

a las sacrificadas personas que, diariamente, asistían después de largas caminatas para ofrecer la cultura básica, para muchos la definitiva. Otros llegaron a la Universidad, o regentaron empresas, o fueron profesores, religiosos y religiosas, incluso abadesas... Mis recuerdos de esta escuela son tan vivos, que me impulsan con fuerza a su publicación.





Foto familiar.  
Josefa es la segunda por la izquierda de pie

Uno de los pilares de esta escuela fue Josefa Etxeberria Sarasti. Nació en el barrio Alzibar, Oiartzun, el 1 de mayo de 1922, hija de Patxi y Mikela. Aquí vivió en Villa Zamora. Patxi era de Añabitarate. Josepa y algún hermano suyo fueron con los abuelos Nikolas Sarasti y Tomasa Isasti al caserío Belaztegi. Nikolas tenía un carácter cerrado, muy aferrado a las ideas tradicionalistas de la época. Cuando llegó la electricidad, creyó que era obra del demonio y no permitió que en sus terrenos se instalara un solo poste de conducción eléctrica. En Belaztegi no hubo electricidad hasta la muerte de Nikolas. El dueño de Belaztegi compró Aizate y los terrenos adyacentes. Años más tarde vendieron las propiedades de Belaztegi, incluido Aizate, a Valeriano Beratarbide, dueño de Altamugarri Goiko y de Kukularre, y a su esposa Antonia Leonet, de Epixkar. Los nuevos dueños pusieron a la venta parte de los terrenos y construyeron un nuevo edificio muy cerca de Aizate. Actualmente, fallecidos los padres, vive en él Teresa Beratarbide Leonet. Así se produce el gran contraste. Antonia, convertida en dueña de una escuela, cuando de niña guardaba las ovejas de su tío en Baringarate, y lloraba al no poder

acompañar a los grupos de niños y niñas que corrían alegres a Aizate.

La familia dejó Alzibar y se instalaron en el bar La Fonda, situado en la plaza mayor de Oiartzun. Era conocido popularmente como *Amurraya*, pues Patxi tenía muchas pecas, que asemejaban a la trucha. Era éste el lugar de encuentro de los baserritarras los domingos, donde tomaban café antes de la misa mayor y los porroncitos típicos después de la función religiosa. *Amurraya* fue ampliando sus servicios hasta convertirse en un interesante restaurante. Josepa tiene estos hermanos: Julián, Encarnación, Juanita, José, Teresa, Áurea, Miren, José, Vittorio y Primi. Una hermosa familia. Julián, Encarnación, José y Vittorio fallecieron. Juanita, Teresa y Primi emigraron y tienen su residencia en Caracas.

Se casó en 1950 con Segundo Elícegui, oriundo del caserío Aranbide, de Oiartzun. La ceremonia tuvo lugar en la iglesia del Santo Cristo de Lezo. Fijaron su residencia en Errenteria, en la calle Martín Etxeberria y, desde 1978, en Corsario Ikutza. Tuvo cuatro hijos



Josefa en el día de la boda



Josefa al cumplir 92 años

(Agustín, Juan Miguel, José Ángel y Juan José), y tres hijas (María Benita, María Milagros y María Aranzazu). Sus vidas se reparten entre San Sebastián, Vitoria y Hendaya, mientras Juan José reside en Barcelona.

Josepa se hizo cargo de la escuela de Aizate en torno a 1944, tomando el relevo a Tomasa Isasti, de Belaztegi, su abuela. Al contraer matrimonio ocuparon su puesto sus hermanas Encarnación, Áurea y Miren hasta 1972, en que la nueva Ley de Enseñanza General Básica llevó al cierre de Aizate. Incluso también regentó esta escuela una sobrina suya, María Lourdes, hija de Encarnación, dando así esta familia vida a

esta institución durante un siglo. Josefa falleció el 3 de diciembre de 2016. Su carácter y virtudes se pueden deducir del resumen que hago de la escuela de Aizate.

El edificio escolar de Aizate es muy rústico, sólidos muros con pocas y estrechas aperturas al exterior a modo de saeteras, tejado a dos aguas, una sola planta y sótano. Así era nuestra escuela. Posiblemente en otros tiempos fuera la vivienda de un modesto baserritarra. A su vera, subiendo en suave pendiente prados y manzanales circundados por seto de espinos y zarzales. Casi rozando sus muros discurre el camino vecinal. Enfrente un espeso arbolado compuesto principalmente de acacias. Su nombre, *Aizate*, literalmente quiere decir "*puerta del aire*", o quizá también "*robledal*", por la posible caída de la "t" ante la "z" (aitzarte).

La entrada se hacía por un lateral, directamente a la planta primera, mientras el portón del sótano en el lado opuesto estaba a nivel del suelo, guardando un sensible desnivel entre una zona y otra. Subiendo unos pocos escalones de madera, entramos en la sala-aula, que abarcaba todo el espacio del edificio. Recibía luz por un ventanal al norte, donde se situaba la mesa de la profesora. Ofrecía una hermosa vista a las verdes praderas. En el lateral oeste, otro ventanal daba al camino y a su lado colgaba una pizarra grande. Ocupaban la sala tres hileras de pupitres de cuatro plazas a cada lado de un pasillo central. A la derecha se situaban los niños y a la izquierda las niñas. Al fondo, separado de la sala como tal, un pequeño cuarto, donde una mesita de madera provista de un hueco central, hacía las veces de retrete. Este rudimentario dispositivo recibía el aire y la luz a través de un estrecho ventanuco.

¿En qué momento se convirtió *Aizate* en escuela? Posiblemente remonta sus inicios al gobierno de Primo de Rivera. La población diseminada tenía serias dificultades para asistir a la escuela en los centros urbanos. A finales del siglo XIX el índice de analfabetismo superaba el 40% en Gipuzkoa. En 1930 se celebra el descenso de este índice al 15%, lo que da fe de la funcionalidad de estas *escuelillas*. Se trataba de una escuela unitaria con una estructuración peculiar. Su actividad no fue interrumpida ni por la instauración de la II República ni por la implantación de la dictadura franquista. Así ya en el otoño de 1936, después de




---

Aizate

---



tres meses de interrupción por la actividad bélica en la zona, *Aizate* volvió a abrir sus puertas.

En la primera etapa la escuela de *Aizate* fue regentada por Tomasa Isasti. Se habían presentado dos a una oferta municipal y le adjudicaron el puesto a ella. No tenía ninguna titulación académica pero era instruida y de gran rectitud. No en vano se había escolarizado durante algún tiempo en un colegio de religiosas. Aplicaba una estricta disciplina en todo momento, incluso en los recreos. Era una mujer de mucho carácter. Con su largo vestido negro hasta el tobillo, en contraste con un pelo blanco recogido en moño, cuerpo delgado, cabeza erguida, cara rugosa y semblante serio. Prohibía los juegos de contacto entre niños y niñas, como ocurría con el "alamus". En este juego se formaban parejas que tenían que ir unidas de la mano y aquí estaba el peligroso contacto, que trataba de evitar nuestra *maistra* Tomasa para salvaguardar nuestra moral. Pero era un juego muy divertido. Corríamos y corríamos, armando mucha algarabía, y soltándonos de vez cuando, retando al tocador. Tomasa siempre tenía encima de la mesa el arma, una *makilla*, que usaba con alguna frecuencia con los dísculos. Félix, el cojo, hijo de "Dios", así se apodaba el padre, sufría sus efectos, hasta que un día entró en la escuela y arrebató a Tomasa el arma y la hizo desaparecer. Pero descubierta la autoría, le dejó sin muletas hasta que devolviera la *makilla* a su sitio.

Yo nací en Epixkar y comencé a ir a esta escuela en 1944. No podré olvidar mi primer día de clase. Me prepararon a conciencia para el evento. El aseo general, ropa limpia y un pelo rígido de restos del jabón mal aclarado. Al verme entre tanta gente sentí mucha vergüenza y no sabía dónde mirar ni dónde ponerme. Mi hermana Poloni me llevaba de la mano y me protegía. No tardé en adaptarme y hacer buenos amigos, como Salvador, el hijo de "Dios", de Baringarate, Jose-txo, de Fraile... Ya entonces Tomasa era mayor, la conocíamos como la "*maestra vieja*", (*maistra zaarra*). En vascuence el calificativo de *zaarra* otorga a la vejez un sentido más natural y afectivo, mientras que *vieja* parece añadir un matiz negativo, como de algo inservible y desechable.

Josefa, Joxepa para nosotros, era joven y muy guapa. En contraste con Tomasa presentaba un aspecto agradable, siempre sonriente, amable, virtuosa en paciencia, tolerancia y bondad. No necesitaba ninguna *makilla*, bastaba su presencia dulce y amable. Se desplazaba diariamente hasta *Aizate*, unos 4 o 5 kilómetros de distancia. Bajaba hasta *Makutso*, atravesaba *Iturriotz* y en *Estrataburu* recogía el primer niño, bajaba al molino de *Chalaca*, donde aumentaba la comitiva. Después de una ascensión bastante pendiente, llegaba a *Suanza*, rodeada ya de un buen número de niños de otros caseríos, como *Bonaseis* (*Buenos Aires*), *Portugal*, *Bordatxo*... Rodeada de este nutrido grupo de escolares recorría el largo camino enseñándoles



los tipos de plantas, recogiendo fresitas silvestres, y así aparecía entre la arboleda que rodea los prados de Aizate. Hubo niños retenidos en los trabajos de los caseríos, que sintieron envidia al no poder compartir este agradable paseo. A los que la esperábamos en la escuela, su presencia era un motivo de alegría. La tardanza nos preocupaba, temiendo la suplencia de Tomasa por su rigor.

El material de consumo, muy escaso, lo proporcionaba el Ayuntamiento de Erreterria. Nuestra principal herramienta era un pizarrín de unos 25x25 cm, encuadrado en madera, y un pizarrillo para marcar sobre él. No usamos cuadernos ni lápices. Después de cada uso con un trapillo se borraba y ya estaba listo. De vez en cuando le pasábamos un trapo húmedo y quedaba su superficie nítida y reluciente. El pizarrillo debía ser algo más blando que la piedra del pizarrín, para evitar que dejara fijas las marcas. *Pagetaerria*, cerca de *Baringárate*, era una zona pizarrosa y por la erosión del camino quedaban enormes placas al aire, de los que se podían desprender fácilmente buenos trozos para fabricar nuestros pizarrillos. También en su proximidad abundaban plantas de saúco, buena materia prima para construir canutos. En la actualidad tienen facilitada la labor con el bolígrafo.

Asistíamos unos veinte chicos y chicas provenientes de Epixkar, Susperregi, Idoia, los tres Artamugarri, Baringarate, Xenpelar, Trabaleku, Txoritokieta, Chalaka, Buenosaires, Portugal, Bordatxo, Estrataburu, Fraile (Iturralde), Listorreta..., pertenecientes a los términos de Oiartzun y Erreterria.

Joxepa iniciaba la jornada escolar con una breve oración. Seguía la lectura, cada uno en su nivel. Aquí cada uno aprendía según su capacidad, dedicación y suerte. No hace falta recordar que nadie sabíamos castellano, siendo nuestro idioma familiar el vascuence. Parece increíble, pero todos los libros, que no eran muchos, estaban en castellano y solamente en castellano.

Se utilizaba como lectura *La buena Juanita*, *Frases*, y *Para mi hijo*. Después de la lectura, *Cuentas*: sumas, restas, multiplicación y división, problemas. No daba tiempo para más. Lo mismo que aprendimos a leer y a escribir con relativa rapidez, las cuentas se nos complicaban bastante, sobre todo en la resolución de

problemas, que estaban propuestos en castellano. Tomábamos nota de los números, los únicos elementos conocidos, y aplicábamos la suma de las cifras que aparecían, y la maestra: - "¡mal!". Aplicábamos la resta, y "¡mal!" A ver si es la multiplicación, y "¡mal, mal, mal!". Y así hasta que acertábamos con la operación que convenía al caso.

No podía faltar el recreo. ¡Después de tanto esfuerzo...! Un merecido esparcimiento en la explanada frente a la escuela. El uso había convertido un espacio de calva entre numerosas acacias. Aquí no tenía la hierba permiso para crecer. Ya expliqué el juego de "alamus". Cuando podíamos, practicábamos el fútbol, aunque de forma singular. Los hermanos de *Listorreta*, dos chicos rubios y robustos, aportaban una pequeña pelota maciza y dictaban las reglas de juego: dividían los jugadores en dos equipos, sólo debían ser jugadores de campo los dos hermanos, uno por bando, y los demás en la portería.

La tercera sesión, la *doctrina cristiana*, la más importante. Según la edad, la maestra tomaba la lección correspondiente. La base era el catecismo y servía al mismo tiempo como preparación a la comunión. La doctrina se completaba con el rezo del rosario. A las niñas les era permitido realizar al mismo tiempo labores de costura o calceta, pues era propio de mujeres. Algún chico también se aplicaba a la calceta, cosa que nos producía sorpresa e hilaridad. Las varillas para estas labores eran de confección artesana, aprovechando las varillas de un viejo paraguas, cuando ya *Joxe el Cacharrero* había desistido de su arreglo.

La jornada escolar terminaba con esta canción:

*Aingeru batek Mariari dio:/Graziaz betea.*

*Jaungoikoaren Semear/Emango diozu sortzea.*

*Goiz, arrats eta eguarditan,/Ama, goresten zaitugu.*

*Aingeruaren hitzak berak / Berresaten ditugu.*

# Burdinaren errenteriak

Gure herriari, Errenteriari, izena oikonimo batetik datorkio, etxe eta azpiegitura bati ematen zitzaion izenetik. Eta argi gera bedi, mota guztietako garbizaleentzat, errenteria hori euskal hitz bat dela, eta ez bakarrik gure hiriaren berariazko izen gisa. Bizirik den euskal hitz bat da.

KapitaneneKOa

Argazkiak: Koldo Ordozgoiti

Ez da berdin gertatu gaztelanian, egun "renteria" bat ez baita ezer, arkaismo bat, hitzak zentzua galdua du, ez duzue aurkituko hiztegieta (RAE, María Moliner eta bestelakoetan) eta esanahiaren galera eta ahaztura hau ez da gaurkoa. XIX. menderako, gero ikusiko dugun moduan, oikonimoak bere esan nahia galdua zuen gaztelaniaz; "casa-lonja" edo lonja erabiltzen zen gure hiriari izena eman zion egoitza eta azpiegitura izendatzeko. Aldiz, aipatu moduan, euskaraz "errenteriak" bere esanahia gorde du gaur arte eta bere adiera eta sinonimoa –adua- Euskaltzaindiaren hiztegian zein Elhuyar eta bestelako hiztegieta aurkituko duzue. Euskaltzaindiaren hiztegia errenteri ("a" itsatsiari gabeko forma) ere aurkituko duzue baina ohar batekin; bertan, Euskaltzaindiak "errenteri-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du", errenteria- ren mesedetan.

Eta errenteria izeneko aduana-etxe horietan zer motatako errentak kobratzen ziren? Gurean Gipuzkoa eta Bizkaian izan ziren azpiegitura –eta Errenteriakoan, bereziki- burdinaren ekoizpena eta salmentarekin zer ikusia zuten zergak eta ordain beharrekoak. Orotariko Euskal Hiztegia honako idatzizko erabilera adibidea jaso du errenteria hitzarentzat: *Zeinbat irabazten ezta- bee ikatzkiñak? Zeinbat itzañak ikatzak olara eruatzen, errenterijetatik mia ekarten, burdiñia bera eraosten?*

Errenteriak ezinbestekoak ziren burdinaren ekoizpe- nerako, ikusiko dugu zergatik.

*Euskal-erria aldizkaria, 1897*





Beduako erreteria Euskal-erria aldizkarian, 1897



Beduako erreteria egun

Burdinolek hiru elementu nagusi elkartu behar zituzten: ur emaria -tresneria mugitu ahal izateko indarra sortzeko- burdin mea eta ikatza -burdina ekoizteko-. Azken bi horietatik ikatza zen mugatzaile nagusia. Askoz ere merkeagoa zen minerala garraiatzea ikatza baino. Besteak beste, burdina ekoizteko burdin minerala baino ia lau aldiz egur-ikatz gehiago behar zelako labean. Hori horrela, burdinolak nahiago zuten horniketara prezio onean egur ikatza eskaini zuketean baso-masa handien inguruan kokatzea. Era berean, ur-emariaren indarririk gabe ezin ziren burdinoletako tresneriak mugitu. Bi arrozoi hauek esplikatzen dute, euskal burdinolen kasuan, burdin ekoizpenarena oso sektore atomizatua izatea eta burdinolak lurralde osoan zehar hedatuta egotea.

Erreterietan elkartzen ziren burdinaren ekoizpenerako lehengaia -burdin harria- eta ekoiztu ondorengo burdina. Gipuzkoa eta Bizkaiko burdinolak, tokian tokiko inguruetakoko meategietatik eta Bizkaiko ezkerreko meategietatik hornitzen ziren burdin mineralaz. Somorrostroko burdin harria oso kalitate handikoa zen, ondoren Bessemer sistemako labe garaietan altzairu ekoizpenerako izan zen moduan, ezkerreko burdin harria guztiz egokia zen burdinolen burdina ekoizpen sistemarako eta ia ezinbesteko lehengaia bilakatu zen Gipuzkoa eta Bizkaiko burdinolen ekoizpenerako. Hori horrela, 1599ko azaroaren 24ean Arrasaten egindako bilkuran Gipuzkoako Batzar Nagusiek burdin ekoizpenaren izendapenak onartu zituzten, burdina egin zen tokiaren ezaugarri geografikoaren eta erabilitako

mea-zainaren arabera markatzeko, tokian-tokiko burdina eta altzairua. Honako taldeak osatu zituzten:

- Mendaro, Elgoibar, Eibar, Arroa eta Lastur herrietako burdinolek osaturikoa. Talde horretako burdinari jatorrizko izen berezia eman zitzaion, altzairu kalitate hoberenaren ezaugarri gisa. Burdin hori Muskiz aldeko burdin harriaz egin zen.
- Zestoa, Azpeitia eta Azkoitiko burdinoletan ere Muskizko burdin harriaz egin zuten burdina.
- Aia, Zarautz, Urdaiaga (Usurbil) eta Asteasu burdinolen kasuan, bertako meategietatik ateratako burdin harriaz egin zen burdina.
- Gurean, denetatik gertatzen zen. Erreteriarako eta Oiartzungo burdinola batzuek Muskizko burdin harriaz egin zuten burdina, eta beste batzuek bertakoaz soilik, edo bertakoa Muskizkoarekin nahastuz.
- Irungo eta Hondarribiko burdinola gehienetan bertako burdin harriaz lan egin zen, Leitzaian Berastegiko (Oilokiegi eta Plazaola), Ordiziako, Segurako, Zegamako, Lazkaoko eta Legazpiko bailaretako burdinoletan bezalatsu.
- Aldiz, Somorrostroko mea-zainetik ateratako burdin harriaz hornitzen ziren Leitzaian ibarreko El-duain eta Berastegiko gainontzeko burdinoletan,





Beduako errenterian eta ibai ertzaren panoramika

zein Urumeako ibarrekoak, Lasartekoak, Azelaingoak (Sorabilla-Andoain), Urrillondokoak (Leizotz, Andoain) eta Agaraizkoak (Villabona).

Somorrostroko meategietatik ekarritako burdin harria itsasoz garraiatzen zen Muskiz, Galindo (Barakaldo), Sestao, Portugalete edo Santurtziko errenterietatik irtenda, helmuga izanda ibai edo itsaso portuetan kokatutako Gipuzkoa eta Bizkaiko beste errenteriak eta handik, zegozkien eskubideak pagatu ondoren, itzainak edo mandazainak animalien indarrarekin burdin harria garraiatzen zuten burdinoletaraino.

Egur ikatza burdinolen inguruko mendietan ekoizten zen, eta ez gutxi gainera, kontuan izanda garaian ez zela bestelako ikatzik erabiltzen. Egur ikatzari esker urtzen eta forjatzen zen euskal burdina eta horretarako egurra ebaki eta ikatza erruz egiten zen mendietan. Olagizonek beraiek edo ikazkinek egiten zituzten txondorrak, herrietako baso sailetan ikatza egiteko egurra mozteko eskubidea enkantean erosi ondoren.

Esku lan ugari behar zen burdina ekoizteko, Gipuzkoako burdinaren ekoizpenaren urrezko aroan, XVI. mendean, Gipuzkoako populazioaren %20a burdinaren ekoizpen eta transformaziotik, eta lan horiei lotutako zerbitzu eta lanetatik bizi zen. XV. eta XVI. mendeetan Europako ekoizpen eta manufaktura kontzentrazio handiena

Gipuzkoa eta Bizkaian eman zen. 1689an, eta ez zen hau ekoizpen handieneko unea, mende hasieran %30 handiagoa baitzen, Gipuzkoako ekoizpena 96.000<sup>1</sup> kintal ingurukoa izan zen, horietatik Deba arroko burdinolek 12.000 kintal ekoiztu zituzten, Urola arrokoak 24.000, Oria arrokoak 11.000 kintal, Urumeakoak 34.000 eta Errenteria ingurukoak 15.000 kintal.

Euskal Burdina, kalitate onekoa izan arren, ez zen merkea. Penintsulako eta Europako merkatuetara saltzen zen. XII. mendetik eta XVIII. menderaino bere nagusitasuna gorde zuen, kalitateagatik eta baita Ameriketako merkatu koloniala eta penintsulako probintzietakoa ia monopolio moduan gordetzen zuten arauak zeudelako. XVIII. mendearen azken herenean, basoen gehiegizko ustiaketengatik, ikatzaren prezioek gora egin zuten, burdinaren ekoizpen kostuak asko garestituz. 1782. urteko muga-zergarekin, Espainiako erresumetara atzerriko burdina ekartzea debekatzen zuen aurreko legea hautsi egin zen. Modu horretan euskal burdina ez zen konpetitiboa; egoera hori, areagotu zuten gerrak (Konbentziokoak bereziki) eta inbertsio eskasiak, nahiz Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak berrikuntzak bultzatu nahi izan, eta batzuk gauzatu, hala nola Errenteriako Fanderia. Lehenagoko Errenteriola burdinolaren azpiegiturak baliatuz eraikia, fanderi sistemako laminazioa egiten zuen burdinola hau abiatu eta gutxira frantses armadak Konbentzioko gerran

<sup>1</sup> Kintal (arabieraz: qintār edo ehunen) antzinako masa-unitatea da eta baita sistema metriko hamartarreko pisu unitatea, 100 kg balio dituena.



Albizkua, Altzolako erreterria



Altzolako jauregia

suntsitu zuen, ondoren Fanderia errota moduan bererabili zen. XVIII. mende amaierarantz euskal burdintza tradizionala behin betirako krisialdian sartu zen.

Burdiroletarako bidean inportatutako burdin harrien eskubideak osatzen bazuten erreterietako arrazoietako bat ez zen hau nagusia, ekoiztutako burdina eta deribatuak osatzen baitzuten aduana-etxe hauen negozio nagusia. Bertatik pasa behar zuten eta ordaintzen zituzten burdin ekoiztuari jarritako zergak, albala edo hamarren zaharra bereziki. Erreteriak biltze gaitze eta merkaturatzeko tokiak ziren. Burdin mea gordinaren eta burdina landu edo erdi-landuaren zalmalanak egiteko zein pisatu eta biltzeko instalazioak eta lanabesak bertan egon ohi ziren. Serapio Mugicak Euskal-erria aldizkarian Beduako erreteriarri buruz egindako artikuluan adierazi zuen moduan:

El objeto de estas Renterías ó casas lonjas, era cargar y descargar, pesar y almacenar en ellas el hierro, acero, herraje, clavo, vena y otros artículos que entraban y salían por las mismas. En los pueblos marítimos de esta provincia de Guipúzcoa había varias y **no tenían otro objeto** las de Bedúa, Fuenterrabía, Rentería, San Sebastián, la de Hernani -situada en Osinaga-, Aranzubia en Aya y Alzola en Elgoibar<sup>2</sup>.

Ez ziren hauek Gipuzkoan izan ziren erreterria bakarrik, bai nagusienak; dakigunez izan baitziren baita

Orion, Getarian, Narrondon (Zumaian) eta Deban. Bizkaikoak honakoak ditugu: Ondarroa (Berriatua ondoko Ondarroako auzoari izena ematen dio oraindik), Lekeitio, Gernika (Erreterria, Gernika-Lumoko auzoa dugu egun, XIX. mendean udalerrria izan zen), Bermeo, Armintza, Legarra edo Butroe, Bilbo, Galindo (Barakaldo) Sestao, Portugalete, Santurtzi, Muskiz (San Martin), Balmaseda.

Orain arte aipatutako erreterriak –Balmasedakoa salbu– itsas edo ibai portuetan lekutuak zeuden, baten Gipuzkoan bereziki aipatzea merezi duen lehorreko beste erreterria bat: Tolosakoa. Tolosako hiribilduak gorde izan baitzuen Gipuzkoatik Nafarroara esportatzen ziren eta Nafarroatik inportatzen merkatatzen gaineko monopolioa, eta horren barruan burdinarena. Burdin harriak zein burdin ekoiztuak Tolosan pagatu behar zituzten zerga eskubideak eta handik pasa behar ziren derrigorrez, horrek eragiten zituen ondorioekin; esaterako, Erreteriaren kasuan, Goizueta eta mugakide ditugun herrietara ezin zirela zuzenean bidali edo bertatik jaso gisa honetako merkantziak.

Burdiaren erreterri hauek itsas edo ibaiko portu baten inguruan eraiki ohi ziren eta honako azpiegiturak zituzten: portua eta honen ondoan eraikitako egoitza bat *erreterria* izena hartzen zuena eta eraikinaren ondoan gune zabal bat biltegi moduan erabiltzen zena;

<sup>2</sup> Serapio Múgica, "Rentería o casa-lonja de Bedúa", Euskal-erria, número 596, 30 de enero 1897



Altzola, zubiondoko etxea

errenteriak pisua behar zuten, zergak pisuaren gainean ordaintzen baitziren eta ontzien zamaketarako behar ziren tresneriak. Bi errenteria, aduana etxe, iritsi zaizkigu gurerraino oso osorik, nahiz biak izena galdua izan, nagusienetakoak izan ziren Beduakoa eta Altzolakoa, biak ala biak ibai gaineko portuetan eraikiak, Beduakoa Urola ibaian eta Altzolakoa Deba ibaian, azken hau itsasotik hamaika kilometroetara.

Serapio Mugicak horrela deskribatu zuen Beduako errenteria 1897an, hamahiru urte eskas itxia zeramanen:

De la antigüedad e importancia del edificio que actualmente subsiste da idea exacta el fotografado que del mismo publicamos. En él hay una capilla con licencia para celebrar Misa diaria, concedida por el Papa Clemente XI el 7 de Julio del año 1703. (...) De un lado verá los sólidos muros y espaciosos departamentos de la antigua [rentería] casa-lonja, con su grúa de madera y otros pertrechos necesarios a su antiguo destino y podrá contemplar aquel escabroso camino carretil que por penosa pendiente sube al Ibañarrieta, por donde, á pesar de su mal estado y situación han pasado millones de quintales de vena de hierro de Somorrostro, ya a las primitivas *agorrolas*, que estaban en los altos, ya a las *zearrolas*, *martinetes* y *olachos*, que más tarde se levantaron en las orillas de los ríos, con el objeto de utilizar el agua como fuerza motriz; mineral de hierro

que, en su mayor parte, volvía otra vez por el mismo camino, después de sufrir las consiguientes transformaciones al ser derretido, primero en las fraguas, por el *urtzalle* ó fundidor, y golpeado después, sobre el yunque, con aquellas enormes gavias de nuestras ferrerías, manejadas diestramente por los *yeles* ó tiradores<sup>3</sup>.

Egun Beduako errenteria zutik dirau, jatetxe-erretegi moduan erabilia, portua gorde du eta zamaketarako zabaldegia aparkaleku gisa erabiltzen da. Autopistak eta Zumaia-Oikia errepideak Serapio Mugicak aipatzen zuen zamari bidearen traza desagerrarazi dute.

Handia eta sendoa bada Beduako errenteria, hori bezain sendoa dugu Altzolako errenteria. Gurerraino iritsi da eraikina bera eta burdinaren errenta eta eskubideen inguruan Altzolan osatu zen jauregi, eraikin eta zerbitzu multzoa. Hemen ere errenteriak bere izena galdua du, Albizkua etxea, Altzolako errenteria nagusiena, lonja-etxe moduan ezaguna da. Elgoibarko auzo horretan, XIX. mendean Altzolako bainuetxea altxatu zen eta lehenago burdinarekin lotura zuten errenteria bera eta inguruko jauregiak eta bestelako eraikinak hotelak bilakatu ziren.

## Errenteriako errenteria

Jesús, en más de medio siglo de colaboraciones en *Oarso*, ha tocado todos los palos: la investigación histórica, la broma culta, la denuncia ecologista, la crónica local, las confesiones, los relatos de viajes o visitas, el recuerdo de los que ya no están, etc. A Jesús su maravilloso estilo cervantino le vale tanto para encontrar un Sancho renteriano en una ínsula, como para disertar sobre las moscas. Quien esto escribe tiene que confesar que espera cada año *Oarso* para leer a su tío Jesús con parecida alegría a la del niño que recibía las escasas pero exquisitas frambuesas de su *baratza* de Hernani. Este estupendo cronista de lo minúsculo, irónico investigador de lo imprevisible, siempre ha tenido incondicionales entre los familiares y conocidos, y deja siempre el listón muy alto.

Su hermana Puri, con una vocación de servicio sin igual, ya había participado en todas las revistas locales, y contribuye por vez primera en *Oarso* en el año 62, con “Entrevista a una mujer renteriana”. Primera colaboración femenina tras la guerra, se centra precisamente en la difícil labor de las *etxeoandres*. La vida de Puri sirve de ejemplo de la difícil lucha por la emancipación de muchas mujeres vascas, que desde el esfuerzo y la dedicación tuvieron que enfrentarse a tantos prejuicios. En sus siguientes colaboraciones, “Rentería, un pueblo con los brazos abiertos” y “Rentería abierta al mundo” anticipaba los retos de integración del futuro, a la vez que compartía sus propias aspiraciones.

Marcha a Madrid, donde trabaja en varias publicaciones, e incluso vendiendo huevos por teléfono, para

pagarse sus estudios. En época de exámenes de la tía periodista, dos de los nietos mayores de la Joxepa, Mikel y Ion, acompañaban a la amoña a Donibane para rezar a santa Faustinita, y pedir su intercesión. Era otra época. Su natural inteligencia y capacidad de trabajo le sirvieron para formar parte de la primera promoción universitaria de la profesión. Uno no tendría sitio aquí para hablar del coraje y los valores de Puri, ni de todo lo que le debe personalmente, pero sí de recordar el magnífico retrato que haría otro nieto de la Joxepa, Xabier, tras su pérdida en el 2004.

Puri, inquieta, resuelta y disponible, colaboradora de múltiples revistas, trae a *Oarso* su visión del txoko renteriano desde la capital, con el orgullo por su tierra y su gente trabajadora. Las crónicas de Puri resaltan la labor cultural de tantos renterianos, algunos tristemente desaparecidos, muestran el valor de la Coral Andra Mari, y narran los retos y las dificultades relevantes en cada momento: el clamor por una universidad vasca en el 75, la inquietud por la construcción de la autopista en el 76, la lucha por perpetuar una producción agrícola de autoconsumo de calidad, las dificultades de la inmigración en Beraun tras la crisis de los 70, etc. Sus artículos, tan relevantes entonces, ahora son una magnífica crónica de aquella Rente de los años 70 y 80 en los que todo evolucionó tan rápido.

Por otro lado, esta visión de Erreterria tiene su contracrónica en el entrañable libro que nos dejó Ion Arretxe en *Parole, parole: una infancia en Rentería*, que tanto tiene en común con el libro de recuerdos de Jesús. Cada uno en su época y estilo, los dos están llenos de divertidos hallazgos, confesiones y anécdotas. Ambos bucean la infancia como territorio mágico de descubrimiento.

Hay un momento de la infancia en que Pontika, Agustinas, Alaberga, Olibet, Fandería, Zamalbide o Gaztaño pueden ser universos por descubrir. Los recuerdos, así compartidos, son un poco de todos. Porque, ¿cuántas veces recordaremos los nietos de la Joxepa el cuarto de Morrongilleta (el primero entrando a la izquierda, claro) en el que recibíamos los regalos de reyes y nos servía para los títeres y casa del misterio? Un lugar mágico y teatral, que seguramente ha inspirado más de una vocación en la familia.

Llegan los años 80, difíciles en lo político y en lo familiar. Perdemos al abuelo Gonzalo (entrañablemente recordado por Iontxu aquí en *Oarso*) y a Loli. Mientras, los nietos de la Joxepa van teniendo sus cosas que contar. A veces, es la misma Puri quien se encarga de dar voz en la revista a algunos de los nietos con la mejor intención. Al año siguiente, Puri señala el rayo de esperanza en el agujero de la droga, aciaga entonces, con el reportaje sobre Proyecto Hombre. Lo cierto es que el abismo generacional de aquellos años, así visto desde ahora, parece que era complicado de salvar. Eran años de txapelas y crestas, de misas y manis, de txikitos y papelinas. Esta época de Orereta queda admirablemente reflejada en el reciente libro de Ion Arretxe *Intxaurrondo, la sombra del nogal*, cuyo valor testimonial desgraciadamente ha tapado su enorme valor artístico.

---

### La nueva generación: Gonzalo, Ion, Xabi...

Muchos de los veintiún nietos de la Joxepa comparten su afición por la lectura, pero Gonzalo sin duda era un caso extremo. Si su padre trabajaba en Papelera, él se encargaba de emborrionar papeles desde pequeño. Con 18 años, en el 90, se aventuró por la revista *Oarso* con sus poemas. Estas poesías son la nostalgia en estado puro, nostalgia de la madre perdida, del tiempo compartido con los primos de Rente, de los instantes de felicidad. Algunos recuerdan curiosamente a los primeros poemas del tío Jesús. Pero en otros también se cuelan el surrealismo y la Orereta punk. Luego vendrán otras colaboraciones más académicas, en las que se desliza algún recuerdo renteriano. De tan académicos, alguno de estos textos ha podido servir para estudiar la lengua de Cervantes a los alumnos de Tulle, villa regida por un tal François Hollande. Para Gonzalo, como para Alonso Quijano, sus libros, sus cientos de libros, suponían un refugio frente a esa vida que tantas veces le resultaba ajena. Es al comparecer el absurdo, como en "Las enseñanzas de los clásicos", cuando se reconoce con placer su humor peculiar que seguimos echando en falta desde su temprana pérdida, hace siete años.

Xabier Susperregi, tantas veces cicerone de su primo Gonzalo en sus andanzas por Erreterria, ha colabora-

do con *Oarso* presentando cuentos infantiles, relatos y plasmando los recuerdos de su padre José Manuel. Es autor de estupendas recopilaciones de leyendas, fábulas, adivinanzas, refranes y remedios, entre otras cosas, en la colección Astralamustrika del Ayuntamiento de Oiartzun. Realiza también una impagable labor de recopilación de poemas y narraciones de diversos autores de todo el mundo en la Biblioteca de las Grandes Naciones. Con el entusiasmo y la capacidad de trabajo dignos de Puri, Xabier posee a la vez una vocación de servicio sin parangón y un enorme talento natural para la narración breve. Ha sido él quien nos ha dejado unos excelentes artículos en recuerdo de Gonzalo, Puri y su padre José Manuel.

Ahora nos toca hablar de Ion Arretxe, el otro nieto de Joxepa que desgraciadamente ya no está entre nosotros. Artista total, de creatividad desbordante, espíritu libre, cachondo mental, modesto y accesible, estaba acostumbrado a trabajar en colaboración, en el cómic, en el cine, o en el teatro. Sin embargo, era absolutamente original en todo lo que hacía. Carente de cualquier prejuicio, compaginaba la alta literatura con el estilo de pintada callejera, el cómic con la literatura, el humor bruto con la ternura, su amor por Euskal Herria con su vida artística de Madrid.

Conversador infatigable y atento cazador de anécdotas, cuanto dejó escrito se parece a él mismo: atrevido y divertido, entretenido y entrañable.

Ion empieza a colaborar con su querida revista *Oarso* en el 92 con "Los desayunos de Sancho Panza y alguna merienda de negros", donde un mural de las galletas Olibet de los 30 conservado en Madrid le sirve para una magnífica diversión al más puro estilo Jesús. Ya a partir del año siguiente se despliega el Ion más original, que nos trae sus cómics confesionales, sus anecdotarios, sus delirantes relatos plagados de expunkis, sus estupendos poemas, sus originales reflexiones renterianas sobre María Magdalena o las barracas de las fiestas, su aproximación al último Bergamín que eligió Gipuzkoa, el recuerdo al cura Manolo que lo visitó en Intxaurreondo o su particular homenaje a Alfonso Sastre.

De entre sus muchas facetas (dibujante, escritor, compositor, guionista, actor, autor teatral, director ar-

tístico...), Ion tenía a gala ser colaborador de la revista *Oarso*, donde desarrolló y pulió sus enormes dotes de escritor. Se había empeñado en escribir un artículo sobre los Gutiérrez en esta revista, pero su enfermedad no se lo permitió. Este atropellado artículo quisiera servir como modesto recuerdo de su propósito.

Si han colaborado en *Oarso*, incluso dibujando como Carlos Arretxe, unos cuantos hijos y nietos de la Joxepa (también Carlos Arretxe y Miren Susperregi), confiamos en que también alguno de sus bisnietos o bisnietas se lancen pronto a juntar palabras y decidan compartirlas con todos los que aman Errenteria. Pa-perak, mesedez!



# Zauden lekuan zaudela

Miren Usabiaga Artola

*XXXVI Errenteria Hiria Ipuin Lehiaketa. 2016ko "Joxean Arbelaiz" Saria, herriko ipuin onenari.*



Emakumeak gerra zibilean.

Egunak oskarbi argitu zuen. Hotza zorrotza zen, urtarrilari zegokion legez. Pilarek jakaren lepoa goraino igo zuen bularraren barruraino sartzen zitzaion aire jelatuari aurre egin nahian. Apenas lortu zuen. Berokia "entretienpoko" izaki. Ez zuen besterik. Aurrera egin zuen Jaizkibelerantz; igoera aldapatsu eta malkarra zen. Tupustean kanoi baten burrunbak durundatu zuen. Etena. Burrunbaren oihartzuna inguruko mendietan barrena *saltoka* aritu ostean, lazgarri, errukigabe iritsi zitzaion belarri zein bihotzera. Hotzikara bortitz batek astindu zuen gorputz osoa.

Lokaztutako bidezidor oker eta makurretan 20 minutuko ibilbidearen ostean iritsi zen Jaizkibelgo kuartelera; goiz izan arren, dagoeneko mugimendua sumatzen zen bertan. Zuzen-zuzenean jo zuen aita zegoen etxolara. Atzean utzi zituen biribil moduko plazatxo osatzen zuten oihal-dendak; erdian sutzarraren ke grisa gorako bidean zen, ateratzeko borrokan zegoen eguzki horixka estali nahiko balu bezala.

Suaren arduradunak kuriositatez begiratu zion Pilare-ri; ezagutu bezain laster eskuarekin agurtu eta sutzarrari begira geratu zen so, bere pentsamenduetan murgilduta. Isiltasuna zen nagusi, hainbestearaino, non txinpartak suma zitezkeen oihartzun lehor eta ozena eraginez.

-Aita! -egin zuen oihu etxolako atea zeharkatu orduko.

-Bai! Hemen nagon -erantzun zion ahots batek iluntasunetik. Prest, eta hi?

-Bai aita, goazen! -erantzun zion gogotsu alabak.

...

*Maitea, nirea:*

*Etxetik atera gaituzte aita eta biak arrastaka. Ez digute berokirik jantzeko aukerarik ere eman, beraz, oheko arropak jantzita gaude. Ni kamisoi hutsean nago eta biluzik sentitzen naiz, baina ez da hori nire kezka nagusia.*

*Aita ordu batzuen buruan hamar urte zahartu dela ematen du. Isil-isilik dago eta ez du ezer nahi. Hizketan aritzen natzaio, baina ez dut uste entzuten didanik ere. Jakin badakigu ez dugula etorkizun onik. Errepublikarrak ere sendatu ditugu eta hori ordainaraziko digute, ziur. Momentuz denak elkarrekin gaude: gizonezkoak eta emakumezkoak, baina berehala bananduko gaituztelakoan nago. Egunero bost bat lagun ateratzen dituzte ziegatik eta ez ditugu berriro ikusten. Izuak airean bizi gara guztiok.*

*Ez dakit beste eskutizik idazteko aukera emango didaten, baina edonola ere jakin ezazu nire bihotzean zaramatzadala. Zu zarela bizirik mantentzen nauen itxaropena. Nire argia. Maitea, niria.*

*Pilare.*

...

Guadaluperantz abiatu ziren aita-alabak, lubakiak zeuden lekurantz. Bi lerro osatzen zituzten, guztira 10 kilometro inguru. Bertan bizpahiru hilabete zeramaten soldadu errepublikarrek faxisten erasoei aurre egiten, ahal zuten bezala.

Pilarek aitaren pausoak jarraitzen zituen, deskuidatu gabe, lokaztutako bidean ez trabatzeko, baina bere arreta beste nonbait zegoen. *Non ote dago? Ez du oso urruti egon behar. Herenegun Xantal aldera ekarriko zute-la aurreratu zidan. Ene! Ez ahal zitzaion ezer gertatuko! Ez. Zaude lasai Pilare, bestela aitak jakin eta esango zizun. Horixe bakarrik behar genuen... Medikua izan eta zaurituen berri ez ematea! Aitaren ahots sakon eta kezkatuak atera zuen bere pentsamenduetatik.*

-Gizon hauek apartak ditun, alaba; hotza, gosea, "etxe-minari" aurre eginez hementxe zeuden, borrokan, euren bizitza jokoan jarritz. Baina ez zekinat noiz arte eutsiko dioten.... -hausnartu zuen aitak kezkatuta.

Pilarek ardura handiz barneratu zituen aitaren hitzak. Gizon zentzudun eta argia izanik, urteen poderioz gero eta erraztasun handiagoa zuen etorkizuna aurreikus- teko. Gogoetak errespetua eta aldi berean izua eragin zion Pilareri.

...

*Maitea, niria:*

*Etsita nago, minez. Hiru aste baino gehiago dira aita eramane zutela eta ez dut berriro ikusi. Zer egin ote diote? Gizon ona izan da. Ederki dakizu zuk hori; ongia besterik ez du egin. Zergatik? Zergatik? Erantzunik ez dut... Baina ez da hori kezkatzen nauen gauza bakarra.*

*Inguruan emakume mordoxka ditut. Denei haurrak ostu dizkiete: haur txikiak gehienak. Nora eramaten dituzte? Zergatik ez dizkigute gutxieneko eskubideak errespetatzen? Zer dela-eta eragiten dute halako samina guregan? Ez al da nahikoa preso egotea? Hori gutxi balitz, bitan aterarazi gaituzte Erreneriara paseoan, biluzik, lotsarazteko eta jendearen irainak eta isekak jaso ditzagun. Ez nuen uste gizakiak hainbesteko sufrimendua eragiteko gai zirenik. Noiz arte jasango dugu egoera*

*hau? Ni zure irudiak mantentzen nau bizirik, maitea. Baina gero eta urrutiago zaitut. Gogoan ditut, oso, zure laztanak, muxuak... elkar ikusiko dugun itxaropenez. Beti zurea, Pilare.*

...

Lubakiaren barrena zihoazela aita-alabek soldaduak artatzen zituzten nola edo hala: hemengo zauriak, hango katarroak ... Itsasotik zetorren iparraldeko hai-zeak gupidarik gabe astintzen zuen eta hotza zirrikitu guztietatik sartzen zen. Tupustean Pilareren aurpegia seko aldatu zen. Bost metro aurrerago ikusi zuen. Han zegoen, bai, bera zen. Instintiboki eskuak ilera eraman zituen ile hori kiskurra apaindu-edo egin nahian. Ez zuen beste ezertarako astirik izan.

- *Bon dia*, Gerard -agurtu zuen medikuak aurrean zuen gazte luze beltzarana.

-Baita zuri ere Matias.-erantzun zion gazteak.- Egun on zuri ere, Pilare.-agurtu zuen emakume gaztea ahots dardaratiz.

Pilarek eskua jaso zuen agur moduan eta segidan begirada makurtu zuen. Ziur zegoen agerikoak zirela denentzat lotsak eragindako masail gorriak. Ozta-ozta eutsi zion sakoneko emozio uholdeari. Barruan bihotza momentu batetik bestera aterako zitzaiola ematen zuen; abaila ederrean sumatzen zituen tau-padak. Ez ahal zituen beste inork sumatuko...

-Zer moduz zaudete? -galde egin zion medikuak Bartomeu teniente gazteari.

-Etsaiak bertan ditugu, Matias. Gertuegi. Hogeita hamasei ordu darama artilleria faxistak kanoi-bateriak astintzen eta gurek etsi gabe erantzuten diete. Gizon apartak dira eta bizitza emango dute guztion askatasunaren alde. -jakinarazi zion harro Gerardek.

Pilarek labainkada moduko hotzikara sentitu zuen azken hitzak bereganatu zituenean. Bere buruak ederki aski zekien gerrak berekin zuela heriotza, baina bere izate gazte eta gogotsuak ez zuen onartu nahi. Inolaz ere ez.

-Mendiaren bestaldean, Xantalen, zuen beharrean

daude, Matias. -komunikatu zien tenienteak. Abiatzeko prest al zaudete?

Biek baiezkoa eman zioten buruarekin.

-Ez zarete bakarrik joan joango, Maeztu eta biak izango gaituzue bidelagun.

Beste behin ere Matiasek baiezkoa egin zion buruarekin. Lubakian barrena abiatu ziren laurak. Babeslekuak hiru metroko zabalera zuen; bertan soldaduak, fusil metrailadoreak, Mauserrak eta Berettak ikusten ziren nonahi errepublikanoren eskuetan. Artega eta adi ziruditen, asko isil-isilik zigarreta ahoan zutela. Guztiek ere burua jasotzen zuten komitiba euren ondotik igarotzean. Pilarek usain sarkorra sumatu zuen: odola, lokatza, pixa... *Herioaren usaina*, pentsatu zuen bere baitan. Ordubete geroago iritsi ziren helmugara.

Kanpamendua Jaizkibelgoaren antzekoa zen. Bertan ospitale funtzioa betetzen zuen etxe txiki bat zuten medikuaren arreta behar zuten soldaduak jasotzeko, beraz, harantz zuzendu zituzten pausoak. Aitak egoera behatu zuen.

-Lan asko zagon hemen, Pilare. Jar ezan ura irakiten eta presta ezan material guztia. Nik, bitartean premia larrikoak sailkatuko dizkinat. -agindu zion aitak alabari.

-Nik lagunduko dizut, Pilare. -eskaini zion Gerardek bere burua.

Bi gazteak txabolatik atera eta plaza erdian zegoen sutarantz abiatu ziren. Bertan ura irakiten jarri zuten eta segidan, ondoko oihalezko denda hotz batean materiala prestatzeari ekin zioten. Dena erdi prest zeukatenean soilik eskaini zioten elkarri begirada maitekor eta gartsua.

-Ederra, maitea, niria. -murmurikatu zuen mutilak.

Pilarek ez zion hitzez erantzun. Bere begirada altxa eta irribarrerik goxoena eskaini zion parean zuen gizonari. Eskuak baliatuz aurpegia inguratu zion maitekiro; segidan, denbora alferrik galdu gabe bere ezpaineak ibilbide labur eta desiratua egin zuten. Ez zen muxu hutsa izan. Desioa, maitasuna, irrika... gailendu ziren



elkar ukitze hutsarekin. Tupustean, kanoi hots lehor batek itzuli zituen errealitatera; izan ere, une labur batez gerratik ihes egin izan balute bezala sentitu ziren.

-Goazen lehenbailehen, maitia. -erregutu zion Gerardek Pilareri.

■ ■ ■

*Gerard, maitea, niria:*

*Aita fusilatu dutela jakinarazi zidaten atzo bertan. Bizilagun batek esan zidan. Atta eta beste hamabost: "erregimenaren etsaiak" guztiak. Etsita nago, minez. Tristurak hartu du nire arima eta gorputza. Ez dut aurrera egiteko borondaterik, kemenik; nahiz eta...*

*...haurdun egon, maitea. Bai, halaxe nago, haur baten esperoan, gurea. Elkarren maitasunaren hazia, biok bizi izan genuenaren fruitua, emaitza zoragarria. Baina... zer etorkizun du? Zer egingo digute? Ezkututzen saiatuko naiz, ez daitezen inola ere konturatu. Bestela... batek daki... Ez dugu gauza onik... Non zaude maitea? Non? Behar zaitut...*

*Pilare.*

■ ■ ■

Egun osoa eman zuten aita eta alabak beharrea. Bezperan larri zauritutako soldadu pare bati ebakuntza egin behar izan zioten, eta horrez gain, gero eta gehiago ziren pneumonia, bronkitisa ala tankerako gaixotasunak pairatzen zituztenak. Horiek ere sendatzen ahalegindu ziren. *Etsaien aurka borrokatzeaz gain, eguraldi gordina ere aurka diten gizon hauek; ez ahal diten bakerik hartuko. Ez dun bidezkoa. Borrokan ari ditun gu guztiongatik bizitza jokoan jarrita...*

Zaurituen etxolatik ateratzean gauaren iluntasunak jaso zituen ustekabea.

-Gaur hemen geratu beharko dugu lotan. Oso berandu da jada eta arriskutsua da itzulerako bidea egitea, ezin baitugu inoren segurtasuna ziurtatu. -jakinarazi zien Gerard Bartomeu tenienteak.- Leku bat gorde dizugu, jauna, gure barrakoian eta zuri, Pilare, zaurituen etxolan gelatxo bat prestatu dizugu. Afaria ere prest dugu. Ondo al deritzozue?

-Bai, jakina! -baieztatu zuen medikuak. -Nolanahi ere, ezertan hasi aurretik eskuak eta aurpegia garbitu beharko genituzke.

Tenienteak iturriraino lagundu zien; bertatik ur freskoa atera eta eskaini egin zien aita-alabari. Medikuak arretaz ekin zion garbiketa lanari, betiko legez. Bukatu zuenean, hotzak akabatuta, sua zegoen lekurantz abiatu zen. Pilarek aitaren ohitura berari jarraitu zion kontu handiz Gerard maitekiro begira zuela.

-Zure gogoz nago, maitea. -aitortu zion begiak neskarenean iltzatuta zituela.

-Ni ere bai, Gerard. -Isilunea nagusitu zen.-Zatoz afaldu ostean nire gelatxora. -proposatu zion Pilarek ausart.

-Ziur al zaude? Egunen batean harrapatu egingo gaituzte, ederra -jakinarazi zion soldaduak kezkatuta.

-Harrapatu, diozu? Eta? Zer dugu galtzeko? Ez dugu ezer txarrik egiten, Gerard. Egoera honetan ez dugu une zein aukerarik alferrik galdu behar, maitea. "Carpe diem": bizi momentua. Zoriontsu izateko jaiok gara, merezi dugu... nik... zera... asko, izugarri maite zaitut.

Erabat hunkituta, Gerardek Pilareren esku hotzak bere eskutzarren artean bildu eta laztantzen zituen bitartean, muxu luze eta goxoa baliatuz eman zion, beste behin ere, baieztako isila.

Sutondora zuzendu ziren. Suak epeltasuna eskaintzen zien bertakoei, eta patxaranak ere, laguntzen zuen berotze horretan. Giroa atsegina bazen ere, kezka zen nagusi, eta horregatik, agian, afari arinaren ostean lotarako bidea hartu zuten guztiek.

■ ■ ■

*Gerard maitea:*

*Zortzi hilabete daramagu preso eta egoerak okerrera egin du nabarmen. Seigarren hilabetea konturatu ziren haurdun nengoela, eta harez geroztik mojen komentura ekarri eta aparteko zelda batean naukate, bakar-bakarrik. Inork ez daki hemen nagoenik; ezagun guztiak kartzelan geratu dira eta zaindariak ez du nire alde egingo, nahiz*

*eta emaztea herioaren atzaparretatik atera genuen aitak eta biok bere momentuan. Eskutitzak bidaltzen jarraituko ahal du, sikiera...*

*Kezkak airean bizi naiz, maitea. Ez diot honi traza onik hartzen. Haurra izan arte zainduko naute eta behin izanda lapurtuko didatelakoan nago. Ez dut ihesbiderik. Gure maitasunaren ondorio den haurra, gure txikia, eraman egingo dute, betiko. Gaur bertan sumatu ditut mojak horren inguruan hizketan goizeko otordua ekarri didate-nean... Maitea, zer egin beharko nuke? Zure faltan nago, Gerard. Zure indarra eta kemena behar ditut aurrera egiteko. Non ote zaude? Beti zurea, Pilare.*

...

Arratsaldeko zortziak besterik ez ziren arren iluntasuna eta isiltasuna ziren nagusi kanpamenduan. Zerua izarrez gainezka zegoen, lurra babestu nahiko lukeen manta bailitzan. Inork ez zuen, ostera, pasaiaz disfrutatzeke betarik. Guda gogorra izaten ari zen eta goseak, hotzak eta familiaren oroi-minak nagusitu egiten ziren bestelako ezereen gainetik. Gauaren iluntasunean pauso batzuk sumatu zituen guardiako soldaduek.

-Nor da? -galde egin zuen erne eta Mauserra prest zuela.

-Lasai Fermin. Ni naiz, Bartomeu tenientea. -azaldu zion katalanak. Zaurituen etxolara joango naiz erretiratu aurretik azken begirada ematera, bihar goizean goiz Jaizkibelgo kanpamendura itzuli behar dugu-eta.

Behin soldadua lasaituta, etxolarantz zuzendu zen. Bertako alkohol eta usain desinfektatzaileak jaso zuen soldadua, baina ez zion aparteko jaramonik egin. Misioa zuen, azken egunetako misiorik garrantzitsuenena. Gelaxkako atea zabaldu zen jo aurretik. Gerard eta Pilarek iluntasunaren babesean elkar besarkatu zuten sutu. Giroa hotza bazen ere, ez zuten sumatu. Pasioa eta elkarrekiko grina nagusitu zen euren artean ohi zen legez; bien zein bien eskuek eta ezpainen euren norabidea hartu zuten: bular aldera, lepora, sabelera, hanka tartera, ezpainera... Maite-suak, une batez, errealitate gordinetik atera zituen eta lipar labur batez sexu-desioaren eskuetan utzi zituen.

Goizaldeko argiak esnatu zituen; batak besteari so egin, eta begiradak gurutzatu bezain laster musuka eman zioten "egun ona" elkarri, beste behin ere; oraingoan, akaso, azkeneko aldiz. Jakin, bazekiten geroa, etorkizuna ez zela existitzen, ez lubakietan, ez gerra garaian.

...

*Gerard maitea:*

*Nire susmoak egia bihurtu dira; gure alaba, Kattalin abuztuaren 3an jaio zen, eguerdi partean. Ez naute une batez sikiera magalean edukitzen utzi. Medikuek eta moja-emaiginek ostu didate lehenengo garrasia eman bezain laster. Bizitza heiagora latz batekin jaso du gure nexkak, amaren eta aitaren askatasuna eta bizitzeko eskubidea aldarrikatu nahi izan balu bezala.*

*Burutik jota nagoela irudituko zaizu, baina burua altxatu dudanean haurra niri begira, so neukala esango nuke, nire aurpegiaren irudia betiko gorde nahi izan balu bezala.*

*Erotzen hasia naiz. Egia da. Baina zer irtenbide dut, bestela? Nire bizitzako "pilareak" desagertuta, etsipenak eramango nau herioaren altzora. Izena eta izana galduta, penak ito egiten nau. Etorkizunik gabe.*

*Ez diet, aitzitik, etsaiei ni hiltzeko poza eskainiko.*

*Adiorik ez, zu gabe, sekula santan ez!*

*Betiko zeurea, Pilare.*

...

Coma-ruga (Tarragona), 1997

Gerard Bartomeu aulki kulunkarian eserita zegoen bere etxearen aurreko lorategitxoan, parez pare zuen itsaso zabalari begira, eguzkitan, epel. Egoerak lasaitasuna iradokitzen bazuen ere, gizonak artega zirudien: begitartea goibel zeukan, eskuetan zituen orriak etengabe korapilatzen zituen eta ezkerreko oinak bere dantza propioa zuen, kontrolik gabe. 90 urte bete berri dituk, Gerard. *Ez al diok sekula santan misioari heldu behar? Zeren zain hago? Koldarra izan haiz, koldar hutsa. Ez duk balorerik izan eta har horrek barrutik usteldu hau*

*urteen poderioz. Horrela hilko al haiz, Gerard? Hire zain egon zuan eta oraindik ere, bere espirituak hire zain jarraitzen dik; gogoan al dituk bere azken hitzak?: "Adiorik ez, zu gabe, sekula santan ez!"..*

-Montserrat! -egin zuen dei. Gerard izutu egin zen bere ahots zalapartatsua entzutean.- Vine!

Biloba, harrituta, sukaldeko zereginari utzi eta avirengana hurbildu zen ziztu bizian. Aitonak begiradarekin ondoan esertzeko eskatu zion; hitza hartu, eta ez zuen askatu ordu bete luzean. Amaitu zuenean, biloba, seko hunkituta, negar malkotan eta aho bete hortz zuen aldamenean.

-Avi... -xuxurlatu zuen maitekiro.

Ez zuten ezer gehiagorik hitz egin behar izan. Montserratek ziztu bizian bi maletak prestatu, eta dei pare bat egin ostean, Gipuzkoarako bidea hartu zuen avi Gerard kopilotu zuela.

*Banoa, Pilare, hirurogei urte berandu, baina banoa. Aurkituko zaitut zauden lekuan zaudela; eta biloba lagun dudala Kattalin ere kausituko dut. Ez dut bakerik izango lortu arte. Eta orduan, zure berri izatean, elkarrekin ekingo diogu beste bizitzarako bidaiari.*

Montserratek aviri begiratu zion; beste gizon bat zirudien: gaztetuta eta biziberrituta, balizko ilusioa goitik behera bere arimaz jabetu izan balitz bezala. Eskuek, jada erlaxatuta, eskutitz horituei eusten zieten tinko, bere bizitzako altxorrik preziatuena bailitzan.

*Banoa, Pilare, ederra, maitea.*





# 76Ko gazte beteranoen bazkaria



1976an jaiotakoak, zer gara? Gazte beteranoak edo beterano gazteak? Urte hartan Erreterian jaio ginen guztiok berriro elkarrekin bildu eta galdera erantzuteko aukera izan genuen 2016ko azaroaren 5ean kintokideok ospatu genuen bazkari erraldoi hartan. 40 urteak bete izana ez delako egunero ospatzen.



Iñigo Legorburu Arregi  
Argazkiak: "Pelukas" Ramos

Bazkaria azaro hasieran egin bazen ere, gauzak dexente aurreragotik hasi ziren mugitzen. Lide Garbarain, Mikel Leitza, Oihan Zubieta, Aitor Albistur eta Xabier Vesgak ikastolakide eta gelakide izandakoek osatu zuten talde antolatzailea, eta urtearen hasieratik ekin zioten egun handirako motorrak berotzeari.



Izan ere, belaunaldi berekoen arteko bazkari bat antolatzea xinplea, dirudien arren, konplexua ere badelako. Hasieratik, mila galderari erantzun behar izan zioten euren artean, hala nola: "Zein da datarik onena halako zerbait antolatzeko?", "Nori zuzendu, gertuenekoei edo deialdi ahalik eta zabalena egin?", "Arrakastarik izan dezake halako deialdi batek?"...

Halako eta bestelako galderak, bidean aurrera egin ahala erantzuten joan zirenak. Egunari eta lekuari dagokionez, bazkaria izanda, azaroa izateak bazeukan bere zentzua aterpean egingo zen ekitaldi bat zelako, eguraldiaren menpe egon gabe, eta urte amaie-

ran pilatzen hasten diren *konpromisozko* bazkari eta afarietatik nahiko urruti zegoelako, datei zegokienean behintzat. Bestalde, azaroa bera ere klasiko bihurtu da kintokideen ospakizunetarako, antza; halako ekitaldi ugari pilatzen dira hilabete horretan.

Bestalde, hautaturiko lekua Egi-luze sagardotegia izan zen, herritik gertu eta espazio zabalekoa; deialdiak izan zezakeen arrakastaren baitan malgutasunez jokatzeko aukera ematen zuen.

Ekitaldia prentsan eta sare sozialetan iragartzea izan zen hurrengo pausoa, ahoz ahokoarekin batera. Kon-



tu korronte baten zenbakia iragartzen zen eta bertan norberak bere izenean dirua sartuta, hura izango zuen bazkarirako txartela.

Hortik aurrera, eta jendeak nola erantzungo zuen ikustearekin batera, gauza txikiagoak lotzen jardun zen talde antolatzailea hurrengo hilabeteetan. Autobusak lotu, txapak eta estetika diseinatu, sare sozialetan tantaka-tantaka informazioa filtratu, alor ekonomikoan gauzak finkatu... uda hasierarako, hainbat gauza lotuak zeuden.

Baina garrantzikoena zen ordurako jada aldaketa bat gertatua zela: bazkari soil bat izan behar zuena, egun osoko ekitaldi bilakatua zela. Izan ere, ordurako bazkal aurreko juntadizoa goxatzeko asmoz, otordu aurreko poteo erraldoi bat eta arratsalde-gau partearako sorpresa bat prestatzen hasia zen lantaldea.

Uda hastearekin batera, mundua gelditu egiten da hein batean, eta bazkarirako izen-emateak ere bere barealdia pairatu zuen. Barealdi hura udazkenean etorriko zen ekaitzaren aurrekaria suertatuko zen, ordea...

Irailarekin batera eta data gerturatu ahala, izen-ematea berriro pixkanaka martxan jarri eta urrirako etorri zen iragarritako izen ematearen benetako uholdea. Lantaldea erabat murgilduta antolakuntzan, ahoz-ahokoak eta sare sozialetako argazki, iruzkin eta sorpresa baten iragartzeak irakiten jarri zuten giroa. Azkenerako, 106 pertsonak eman genuen izena egun handirako.

Azaroaren bosgarrena heze jaio zen ordea. Iraila eta urria euri gutxikoak izanda, udazkenari egun horretan otu zitzaion bisita egitea. Eguerdiko 12etarako geneukan egina hitzordua Zumardian, bertako lau tabernatan poteoari ekiteko asmoz. De Cyne Reina, Arkaitza, Kerala eta Gamon 14 tabernekin antolatzailleekin aurretik hitz egin bezela, egunerako presatuak zituzten jaki eta trago goxoak bazkariarekin batera hitzartutako txartelekin trukatu genituenak. Tartean, egunaren nondik norakoaren argazkiak ateratzen, *Pelukas* Ramos aritu zen. Bere argazki-kamera eskuan, bertaratu ginenon argazkizko testigantza eder, oso eta txukun bat egitea izan zuen bere xede. Eta baita lortu ere.

Egi-luzerako autobusa iritsi bitartean, hantxe arituginen denok hizketan eta kontuak berrituz. Hasierako muxu eta besarkadek tertuliari eman zioten bide, konplizitatezko begiraden artean. Herritik zein kanpotik etorritako jendea egonda, Casteldefels-etik propio bazkarira etorritako emakume batek jarri zuen *record* geografikoa. Tartean ere, Oion, Goizuetta, Getxo... eta beste hainbat herritatik etorritakoak bildu ginen. Ikastetxeei dagokienez, Viteri, Hijas de la Cruz, Iztieta, Telleri, Orereta ikastola... eta herrian egondako (eta desagertutako) ikastetxe guztiek izan zuten euren ordezkariak.

Jada Egi-luzen bertan, egunerako prestaturiko *photocall* eder baten aurrean nahi genuenarekin argazkiak ateratzeko aukera baliatu genuen, mahaietan eseri aurretik. Ikerketa soziologiko baterako balioko lukeen moduan eseri ginen talde ezberdinok: batzuk gelaka, besteak kuadrillaka, ikastetxeka... mila modu, baina era bakarrean: denok ere, harmonia ederrean.

Han ere, zizka-mizka batzuk probatu eta txotx eta txotx artean, sagardotegiko menuari ekin genion 106 bazkaltiarrek. Tartean agertu ziren 1961. urteko kintokideak ere, han bazkaltzeko asmoz. *Zuek azkar hasi zarete ospakizunetan!* esan ziguten behin baino gehiagotan algara artean... inbidia bera ere sanoa izan daitekeen seinale!

Bazkaria luze eta goxo joan zen, baina bazkalostea ezin izan genuen gehiegi luzatu... han ez behintzat, gero sorpresa zetorrelako! Eta *Pelukas* Ramosen esanetara egindako hainbat argazki kolektiboren ostean, Niessen plazara jaitsi gintuzten autobusek, eguneko hirugarren zatiari hasiera emateko sorpresaren bidez.

Eta aurretik iragarritako sorpresa, *Rockalean* taldearen kontzertua suertatu zen. *Pirata* Moreno eta bere taldekideek gure belaunaldiarentzako ereserki izan diren abestiak jo zituzten: *Lau teilatu, Ilargia, Xalbadorren heriotzean, No hay tregua...* eurek egindako bertsoiek gure eztarri urratuen laguntza izan zuten eta jendea dantzari jartzeko eragozpenik ez zuten izan. Bere logika ere bazuen ekitaldiak: 76koa kalean hazitako belaunaldia izanik, gure ospakizunaren zati bat kalean gertatzeak *justizia poetiko*-tik dextente zuen!





Argazkia: Pelukas

Eta horrela iritsi ginen gauera, kantu eta dantza artean...

Gauak luze jo zuen batzuentzat, besteok azkarrago erretiratu ginen bitartean. Baina ordu txikietara arte egon zirenen artean ere, harmonia eta enpatia nabaria izan zen, halako egun batek jende berria ezagutu eta lagun zaharrek berradiskidetzeko balio izaten duelako.

Handik 5 urtera berriro elkar ikusiko genuen promesa egin genion elkarri. Batzuk jada, halako zerbait urtero egitea proposatu bazuten ere; hain ekitaldi erraldoi bat antolatzeak duen lana ikusita, bideragarria ez dela argi geratu da, eta, gainera, magia pixka bat galduko luke... Beraz, bost urteko epe-muga hobetsita, orain zain gelditzea besterik ez zaigu gelditzen.

Hasierako galderari erantzunez, jarri genuen giroa eta martxa ikusita, oraingoz gazte beteranoak garela argi gelditu da. Hemendik lau urtera, beterano gazteak izango ote garen? Hori etorkizunak esango du...

**baina  
etorkizuna  
beti izan da  
gaztea!!**



# Entre punkis, maderos y antisistema. Las (no-)fiestas de la Magdalena de 1983

David Mota Zurdo

## Introducción

Los años 80 fueron de desenfreno, radicalidad, empoderamiento y adicción. De mensajes contestatarios y sin cortapisas, de pintadas en las calles con mensajes políticos y de desencanto, de utilización de todo tipo de formas de expresión para producir canales de cambio. De nuevas formas de protesta, de manifestaciones y de lucha por los derechos sociales, políticos y civiles con el fin de mejorar la calidad de vida de la ciu-

dadanía<sup>1</sup>. Tiempos de pancartas, panfletos, revistas, fanzines, carteles, pegatinas, asambleas, huelgas y encierros, y de nuevas oportunidades políticas tras la mordaza impuesta por la dictadura franquista durante casi cuatro décadas. Fueron años marcados también por la contrainsurgencia, el plan ZEN, el terrorismo de ETA, las torturas, el GAL, la extrema izquierda, el nacionalismo, los intentos de golpes involutivos, los pactos, el enfrentamiento, las luchas obreras, vecinales y estudiantiles, y la movilización ciudadana. Tiempos de intento de ruptura con el pasado, de

<sup>1</sup> RIVERA, Antonio et al. (2008): *Movimientos sociales en la España contemporánea*. Madrid: Abada Editores, p. 211.





El día que el punk escupió a Pujol.

cambio social, político y cultural, de construcción del sistema democrático. Años, en definitiva, en los que la música punk se presentó como un vehículo posibilitista de comunicación, de conexión con la rebeldía y el inconformismo juvenil, de expresión de sentimientos palpables y compartidos por la sociedad, de profundización en discursos metafísicos e identitarios, de contrainformación, de búsqueda de la verdad, de duda, de radicalidad y de compromiso ideológico<sup>2</sup>.

Si bien no todo fue una apuesta por el progreso de la naciente democracia. Las ansias de cambio se vieron paralizadas en algunos casos ante el gran número de "quietos, integrados y sumisos, partidarios de cambiar algunas cosas –por supuesto, aquella dictadura y sus formas–, pero no de cambiarlo todo"<sup>3</sup>. La Transición fue, como ha señalado Fernández Soldevilla, una época convulsa y complicada que se caracterizó por contener altas dosis de improvisación y en la que participó un heterogéneo grupo de actores que con su intervención hicieron posible el avance democrático<sup>4</sup>. Un cambio que, por otro lado, fue posible en múltiples aspectos, entre ellos, el cultural. Ya, durante la dictadura, el régimen había perdido el dominio de la cultura sobre las generaciones más jóvenes. Una cultura

marcada fuertemente por la presencia del integrista nacional-católico y las referencias retóricas al Siglo de Oro que se utilizaban como símbolos patrios.

Durante la década de 1960, en el País Vasco, como en otros lugares industrializados, se produjo una llegada masiva de inmigrantes que se asentaron en torno a las principales ciudades, en barrios aislados, deficitarios de dotaciones colectivas de tipo cultural, sanitario, recreativo y de zonas verdes, y de un insuficiente entramado viario de acceso. En las mentes de las personas residentes en estos lugares se fue cuajando un sentimiento de conciencia colectiva con la finalidad de reclamar mejores condiciones de vida y derechos. Estas inquietudes, sumadas al creciente número de universitarios procedentes de las clases medias, dieron lugar a una asociación con la población trabajadora. A la postre, esta alianza fue el germen para que se produjera el crecimiento de una identidad y una cultura popular de barrio. La cultura de la sociedad trabajadora encontró en los sectores juveniles, principalmente los universitarios de clase media, un excelente socio que, a posteriori, ya en el tardofranquismo, ayudó a crear un espacio de crítica al régimen, *underground*, de cultura popular, que

<sup>2</sup> GARCÍA SALUEÑA, Eduardo (2013): "El rock español desde sus inicios hasta la experimentación progresiva". En Kiko MORA y Eduardo VIÑUELA (eds.): *Rock around Spain. Historia, industria, escenas y medios de comunicación*, Lleida: Edicions de la Universitat de Lleida, p. 37.

<sup>3</sup> TORAL, Mikel (2015): *La calle es nuestra. La Transición en el País Vasco 1973-1982*, Bilbao, pp. 25-2

<sup>4</sup> *Ibíd.*, pp. 34-35.



como ha señalado Burutxaga: "fue desapareciendo la censura, se eliminó la barrera entre autores del interior y del exilio, y con algunos secuestros y multas, la libertad de expresión fue avanzando<sup>5</sup>".

Este caldo de cultivo previo, permitió, durante los años de la Transición, el avance en la reclamación de derechos en materia de ecología, feminismo, y minorías étnicas, lingüísticas y de orientación sexual, al que se sumó, entre otras cosas, la lucha por la recuperación y la visibilización del euskera en el ámbito público. No obstante, una audiencia heterodoxa porque de la misma manera que demandaba productos culturales anglosajones no menospreciaba a artistas que habían sido cercanos al régimen franquista como Raphael.

Con la entrada del socialista Felipe González en la Moncloa estas reivindicaciones se tiñeron de pragmatismo, hedonismo y consumo. La libertad en la década de 1980 pasó de ser un fin alcanzable por el que luchar a convertirse en un elemento de pleno disfrute. La Movida madrileña, la estética estrambótica, la música de radio-fórmula disfrazada de alternativa, los punks, la heroína, la crisis económica, la contaminación, bares, gaztetxes, conciertos y el rock se convirtieron a partir de ese momento en algunos de los principales ingredientes del ámbito cultural. Pero, los coletazos involucionistas también. Fruto del proceso de cambio, que ni fue uniforme ni unísono, aparecieron retazos del pasado dictatorial en ámbitos muy dispares y, como traigo a colación, casi siempre relacionados con la libertad de expresión.

## Los sucesos de la Magdalena de 1983

El 21 de julio de 1983, un número indeterminado de policías nacionales –no inferior al medio centenar– agredió violentamente con cadenas, barras de hierro, porras y esposas de acero a numerosos ciudadanos de Errenteria que esperaban en la *Herriko Plaza* el inicio de las fiestas patronales. En la euforia de su agre-



[www.videodromo.es](http://www.videodromo.es)

sividad, los policías llegaron a golpear a niños de corta edad y ancianos. El gobernador civil de Gipuzkoa, Julen Elgorriaga, sin contrastar la información señaló a los ciudadanos como principales culpables, aduciendo que portaban objetos contundentes que utilizaron contra la policía.

Los graves incidentes comenzaron cuando un numeroso público, que esperaba al *txupinazo* de inicio de las fiestas, reconoció a un grupo de hombres ataviados con pañuelo rojo y periódico enrollado bajo la axila, un atuendo poco habitual en las fiestas de la *villa galletera*. En efecto, se trataba de policías vestidos de paisano que fueron reconocidos por varios *errenteriarra*s. Según el diario *La Voz de Euskadi*, tras un intercambio de insultos en los soportales del Ayuntamiento y después de lanzar huevos y tomates a los policías de paisano, estos sacaron las armas de disuasión que llevaban escondidas entre sus pertenencias y comenzaron entonces a disolver brutalmente a la gente congregada en la plaza, aduciendo que se había intentado agredir a un concejal del Partido Nacionalista Vasco –hecho que el mismo edil desmintió<sup>7</sup>–. La policía golpeó indiscriminadamente a mujeres, niños y ancianos. Incluso, un reportero gráfico del mencionado diario *La Voz* sufrió un violento golpe en la cara propiciado por una cadena de hierro y el destrozo de su cámara fotográfica. Inmediatamente, los policías de paisano recibieron la ayuda de las fuerzas policiales apostadas en autobuses y tanquetas en los alrededores de la


<sup>5</sup> *Ibíd.*, p. 230.

<sup>6</sup> ORDOZGOITI, Koldo: "Ecos de radio. Los sucesos de las Magdalenas de 1983 en las emisiones de Herri Irratia - Radio Popular", *Bilduma*, nº 25, 2013, p. 65.

<sup>7</sup> "La policía utilizó cadenas y barras de hierro contra los ciudadanos de Errenteria", *La Voz de Euskadi*, 22-07-1983, p. 5.

villa desde la 6 de la tarde. Aparecieron con material antidisturbios, cargando con pelotas de goma y botes de humo contra la población, la cual no dudó en responder con lanzamiento de objetos diversos a la policía. En medio de los disturbios, pocos minutos antes de las 8 de la tarde, se disparó el cohete anunciador de las fiestas y se procedió a izar la bandera española junto a la ikurriña y la bandera de Errenteria. En el transcurso de la izada de la enseña española, la policía se mostró fervorosa, pero, en cambio, manifestó su desagrado hacia la ikurriña a la que "dirigieron cortes de mangas"<sup>8</sup>. Aparte de que las banderas vasca y errenteriarra quedaron a media asta. La transcripción de la retransmisión en directo de los incidentes realizada por las emisoras de San Sebastián y Loiola de Radio Popular está publicada en Bilduma en el artículo "Ecos de radio. Los sucesos de las Magdalenas de 1983 en las emisiones de Herri Irratia-Radio Popular" escrito por Koldo Ordozgoiti, que junto con Xabier Otegi realizó la emisión radiofónica.

Las fuerzas de seguridad montaron un retén en el interior del consistorio municipal en el que permanecieron. Según la versión ofrecida por los medios policiales a *ABC*, esta enérgica actuación era una medida preventiva para evitar lo que ya había sucedido justo un día antes en la localidad vizcaína de Barakaldo: la



quema de la bandera española y la inoperancia de la dotación de la Policía Nacional allí desplazada<sup>9</sup>.

El gobierno socialista de Felipe González, había realizado una interpretación estricta de la conocida como la Ley 31/1981 de 28 de octubre conocida como ley de banderas aprobada tras el golpe del 23 F en tiempos del gobierno de UCD, que obligaba a que el símbolo español fuera exhibido en todo edificio institucional durante las festividades<sup>10</sup>.

El día de la Magdalena, para relajar la tensión, la Comisión de Fiestas barajó la posibilidad de dejar únicamente la bandera municipal, siendo rechazada esta propuesta por el gobernador civil de Gipuzkoa. Debido a las dificultades para llegar a una solución, a las po-

---

Mikel Gaska, *La Voz de Euskadi*, 22-07-1983, p.1.



<sup>8</sup> LASARTE, G. y ZENDOIA, J.M.: "Errenterian istilu larriak jaiak hasterakoan", *La Voz de Euskadi*, 22-07-1983, p. 35.

<sup>9</sup> PAGOLA, Javier (20-07-1983): "Queman una bandera española en Baracaldo delante de la Policía", *ABC*, p. 21.

<sup>10</sup> ORDOZGOITI, Koldo: "Ecos de radio. Los sucesos de las Magdalenas de 1983 en las emisiones de Herri-Irratia y Radio Popular", *Bilduma*, nº 25, 2013, p. 61.



cas horas, las Sociedades populares y el presidente de la Comisión de Fiestas decidieron suspender todos los actos programados. Tan sólo se trasladó a la patrona de la Ermita a la Parroquia, en donde estuvo del día 22 al 25, y se permitió llevar a cabo una exposición de fotos sobre los caseríos *oarsoarrak*<sup>11</sup>.

A todo esto, se sumó el comunicado conjunto que presentaron Herri Batasuna, PNV y Euskadiko Ezkerra exigiendo la retirada inmediata de la policía, que con medio centenar de efectivos ocupaba la casa consistorial, y solicitando la dimisión del regidor socialista José María Gurruchaga, considerado el principal responsable de lo ocurrido. Aquella misma tarde del 22 de julio se repitieron los momentos de tensión, cuando una persona, en la cola de la manifestación que había recorrido Errenteria, intentó dar fuego con una pértiga a la bandera española que ondeaba en el Ayuntamiento. La policía respondió con pelotas de goma, pero, al acabarse la munición, decidió disparar al aire balas reales.

La incertidumbre fue palpable en las jornadas que tenían que haber sido las Magdalenas de 1983. Todos los días hubo enfrentamientos y un fuerte retén po-


licial permaneció dentro del Ayuntamiento para proteger la bandera española, pero también hubo varias manifestaciones para mostrar el descontento hacia este emblema. De hecho, se tomaron medidas drásticas para todo el periodo de festividades, como quedó reflejado en la prensa:

un riguroso dispositivo de control en los accesos y salidas de la villa, a cargo de fuerzas especiales de la Guardia Civil, y la presencia de numerosos contingentes de la Policía Nacional en las inmediaciones de la plaza del Ayuntamiento, al objeto de impedir cualquier intento de concentración. Asimismo, un helicóptero de la Guardia Civil sobrevolaba continuamente la población<sup>12</sup>.

Los excesos cometidos por la policía en Errenteria fueron condenados por los ayuntamientos de localidades guipuzcoanas como Pasaia, Tolosa, Villabona y Ordizia, que se solidarizaron con las víctimas de lo ocurrido tomando unilateralmente la decisión de hacer ondear tan sólo la ikurriña en sus balcones e incluso llevaron a cabo manifestaciones pacíficas “en apoyo de la ikurriña y en contra de la bandera espa-

---

Mikel Gaska, *La Voz de Euskadi*, 23-7-1983, p. 3.



<sup>11</sup> BANDRÉS, Rafa (1984): “Efemérides renterianas”, *Oarso*, nº 19, p. 79.

<sup>12</sup> PAGOLA, Javier (25-07-1984): “Enérgica respuesta a la provocación abertzale. Las Fuerzas de Seguridad, apostadas en Rentería impiden las manifestaciones”, *ABC*, p. 17.



## LA OTRA CARA DEL TERRORISMO

**Una nueva ofensa a la bandera española —la tercera en los últimos días— ha sido perpetrada con nocturnidad y alevosía, esta vez en Baracaldo. La enseña nacional fue quemada por vecinos del pueblo, a cara descubierta y en presencia de la Policía Nacional. Y nadie levantó un dedo para evitarlo.**

**Estamos, no hay duda, ante una emponzoñada campaña de agresiones al símbolo de la Patria, perfectamente diseñada por los estrategas de Herri Batasuna, mentores «políticos» y portaestandartes de ETA. Es la otra cara del terrorismo; apenas una variante del iti-**

**nerario de sangre y muerte que ETA recorre casi a diario en pos de la destrucción del Estado. Y HB ayuda en lo que puede. Se trata de un comportamiento netamente terrorista y el Gobierno dispone de suficientes instrumentos legales para combatirlo. Extraña esta especie de resignada pasividad ante los hechos cuando, por otra parte, se alardea de desplegar la máxima dureza contra la violencia en el País Vasco. Extraña sobre manera el mutismo de las autoridades que tienen la obligación de pedir la intervención del fiscal en flagrantes casos de violencia contra la bandera.**

ABC 20/7/1983.

ñola [...] sin incidentes”<sup>13</sup>. Pero, con toda probabilidad, la actitud más radical fue la de dos jóvenes del pueblo riojano de Ortigosa en Cameros que prendieron fuego a la bandera española en solidaridad con lo ocurrido en los pueblos guipuzcoanos<sup>14</sup>.

Pronto, se produjeron las críticas a estas acciones de reivindicación y apoyo. Txiki Benegas, secretario general del PSE, describió agriamente los acontecimientos: “los que ahora atacan a la bandera constitucional y han impedido la celebración de las fiestas, son los mismos que llenan de sangre el País Vasco, pretendiendo imponer su voluntad mediante la coacción y el terror”<sup>15</sup>. No quedó ahí la cosa. Benegas insistió en que los culpables de estas acciones eran los militantes de HB que se habían enfrentado a la policía al grito de “mercenarios”, “ETA máталos” y “ETA jarraitu borroka armatua”, considerando que la coalición de izquierda abertzale estaba llevando a cabo “una estrategia perfectamente diseñada para tratar de desestabilizar la situación en el País Vasco, allí donde los socialistas hemos avanzado espectacularmente en las últimas elecciones”<sup>16</sup>. Pero, la actuación de la policía tuvo importantes consecuencias. Durante este suce-

so, el activista ambiental Peio Mindegia perdió la vista a consecuencia de un bote de humo lanzado por la Policía Nacional, llegando a pedir por ello “la dimisión de Barrionuevo, del gobernador civil y del alcalde de Rentería, como responsables de estos espeluznantes acontecimientos”<sup>17</sup>.

### Las Magdalenas de 1983 como punto de no-retorno

